eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

FILMAKETA GATAZKATSUA SAN FRANCISCON: Film independente bateko lantaldeari buruzko ikerketa, behaketa-teknikaren bidez egina

Egilea: Santi Urrutia

EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEKO ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA

Liburu honek UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

Edukiak

1. Eskerrak 3

2. Sarrera 4

3. Ikergalderak 6

4. Metodoa 7

5. Film-produkzioa 10

5.1. Zeri deitzen zaio «aurrekontu ultra txikiko film»? 10

5.2. Filmaketaren fasea 12

5.3. Filmaketako lantaldea 14

6. Filma 23

6.1. Ikerlana egiteko funtsezko baldintza: filmaketa-talde batean sartzea 23

6.2. Filma eta produkzioa 23

7. Filmaketa 29

7.1. Sarrera 29

7.2. Lehen zatia: arazoak lantaldean 29

7.3. Bigarren zatia: lantalde trinkoa sortu 50

8. Ondorioak 61

1. Eskerrak

Euskal Herriko Unibertsitateak Renoko Unibertsitatearekin daukan USAC (*University Studies Abroad Consortium*) programari esker egin ahal izan nuen proiektu hau. Horretan lagundu zidatenak aipatu beharrean nago: Iñaki Zabaleta, UPV/EHUn HEKA ikerketa-taldeko buru dena; Joseba Zulaika, Renoko Unibertsitateko *Center for Basques Studies*eko zuzendari ohia; Gloria Totorikaguena, egungo zuzendaria; eta ezin ahaztu Josu Menchacatorre, UPV/EHUn USAC programaren arduraduna izan zena 2008an hil arte.

Gogoratu behar dut Renora heldu bezain laster eskuzabal hartu ninduen jendea: Imanol Irizar, hango liburutegiaren arduraduna; Carmelo Urza, USAC programaren arduradun nagusia Renoko Unibertsitatean; Kathleen Camino, *Center*reko idazkaria; eta Zuriñe Velez de Mendizabal, hango web-proiektuetan ari zen Arrasateko kazetaria.

Estatu Batuetako egonaldia posible egin eta erraztu zidaten pertsona horietaz gainera, bada jende multzo bat bereziki eskertu beharrekoa ikerketa honen gunea osatzeagatik. Filmaketako lantaldeko jendeaz ari naiz: eskertu behar diet haien artean onartzea eta haiekin izandako harremana, une atseginetan zein gogorragoetan. Ikerlan hau haiekin partekaturiko denboraren emaitza da.

Azkenez, euskarazko testuari dagokionez, aipamen bi egin behar ditut: alde batetik, Joserra Garzia fakultateko lankideak lana egituratzen lagundu zidan; bestetik, Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak hainbat gomendio zuhur egin dizkit testuaren kalitatea hobetzeko.

2. Sarrera

Ikerlan honek helburu bikoitza du. Alde batetik, helburu akademikoa dago, unibertsitateko irakaskuntzarekin lotua: izan ere, urte askotan *Gizarte ikerketarako metodoak eta teknikak* ikasgaia ematen ibili naiz Komunikazioko titulazioetan eta Soziologian; hor irakasten den ikerketarako teknika bat *behaketa* da, gure artean oso maiz erabiltzen ez dena, eta hain zuzen hemen egindako lanak aukera bikaina eman zidan teknika hori aplikatzeko. Bestetik, proiektuaren gaiari dagokion helburua dugu, film-ekoizpenarekin lotua, eta horretan film laburrak egiten izan dudan esperientzia dago: 2000tik hona film labur bi ekoitzi eta zuzendu ondoren, *Ilbera* eta *Urbaltzaga*, garrantzizkoa iruditzen zitzaidan produkzioari buruz gauza gehiago ikastea, batez ere aurrekontu txikiko proiektuetan.

Askotan aipatzen da Espainian eta Euskal Herrian zinemagintza ez dela «benetako industria» bat, batez ere Estatu Batuekin eta antzeko herrialdeekin konparatzen bada. Espainian 2008an 175 film luze kalifikatu zituen Kultura Ministerioak, eta haietako dozena bat inguru ziren Euskal Herriko zuzendariek egindakoak.[1] Gainera, horietako asko Ministerioak berak emandako diru-laguntzari esker egin ziren. Bestela ez ziren egingo. Urte berean Estatu Batuetan, diru-laguntza publikorik gabe, produkzio-konpainiek eta telebista-kanalek 2.322 film amaitu zituzten.[2] Hain zuzen, horietako baten filmaketan parte hartu nuen nik bi urte lehenago, 2006an. Filmaketa hura da ikerlan honetako gaia.

Estatu Batuetako film-industria aipatzen denean Hollywoodeko produkzioa etortzen zaigu burura. Hala ere, esandako 2.322 lan horietatik gutxi batzuk dira baliabide ekonomiko handiak dituztenak, estudio handiek egindakoak. Gehienak *low budget*, «aurrekontu baxukoak», dira, hau da, 2.500.000 dolar baino gutxiagokoak.[3] Horietako ekoizpen askori, telebista-konpainietatik kanpo egiten direnei, *indie* deitzen zaie; produkzio «independente» moduan hartuak dira.

Baina, ekoizpen mota horietan bada beste kategoria bat are apalagoa, *ultra low budget* deitutakoa, «aurrekontu ultra txikia», 200.000 dolar baino gutxiagoko aurrekontua dutenena. Horietako baten filmaketan hartu nuen parte.

Pentsa daiteke film baten arrakasta aurrekontuak baldintzatuko duela erabat. Horixe da Espainiako zinemagintzaz esaten dena: ia denak aurrekontu baxukoak direla eta horrela ezin dela kalitatezko produkturik sortu. Espainian ere, «aurrekontu baxua» bi milioi euro ingurukoari esaten zaio. Hala ere, gure artean ia ez da egiten «aurrekontu ultra txikiko» filmik. Edo, behintzat, ez da egiten hain aurrekontu baxua duen filmik zinema-aretoetan estreinatzeko asmoz. Estatu Batuetan, aldiz, bai.

Posible ote da aurrekontu hain txikiarekin irtenbide komertziala duen film bat egitea? Oso zaila da hori lortzea, baina Estatu Batuetan izaten dira horrelakoak. Haietako batzuek arrakasta handia izan dute. Horretan gailendutako zenbait gogoratuko ditugu: *El Mariachi* (7.000 dolarreko aurrekontua), *The Blair Witch Project*, (25.000 dolar), *Pi* (60.000 dolar). Nik parte

hartu nuena ez dago horien artean, eta oraindik egileak obra banatzeko eta zinema-aretoetan erakusteko tratuetan ari dira. Uste dut horrelakoak egitea izan daitekeela gure artean zinemagintza suspertzeko aukera bat, txikia bada ere, eta ikerketa honek ekarpen xume bat egin nahi lioke erronka horri.

Film duina egiteko gauza asko egin behar dira ondo: gidoi interesgarria, antzezle txukunak, baliabide tekniko egokiak, eta filmaketarako lantalde ona osatzea. Hain zuzen, azken puntu horren inguruan aritu naiz ikerketan, honelako arazoak aztertuz: zer gertatzen da diru oso gutxi dagoenean eta, hala ere, lantalde ahal denik eta profesionalena martxan jarri nahi denean? Nolako baldintzak lortu behar dira lantaldean horrelako eginkizuna ondo betetzeko? Bitxia badirudi ere, film-produkzioaren arlo askori buruzko lan asko dauden arren eta filmaketari dagozkion atal batzuk —hala nola filmaketaren produkzio-antolaketa— erabat ikertuak dauden arren, oso gutxi dago filmaketan sortzen diren lan-harremanei buruz, eta are gutxiago aurrekontu oso txikia duten ekoizpenetan.

Hori aztertzeko, 2006ko maiatzean San Franciscon «aurrekontu ultra txikia» zuen proiektu batean sartu nintzen produkzio-laguntzaile. Horrela, ikerketa-metodoak eta -teknikak ikasten direnean askotan aipatzen den baina hainbestetan erabiltzen ez den teknika erabili nuen: behaketa parte-hartzailea; eta aukera ezin hobea izan nuen metodo horrek dakartzan baldintzez eta ikertzaileari egiten dizkion eskakizunez jabetzeko.

3. Ikergalderak

Ikerlan honek gai hauek aztertu ditu:

1. Filmaketako lantaldean sortutako arazoak eta gatazkak.

2. Filmaketako lantaldeko karguek beren zeregina ondo betetzeko baldintzak.

3. Nola lortzen den, baliabide ekonomiko gutxi izanda, lantalde ahalik eta profesionalena.

4. Metodoa

Lan hau egiteko behaketa-teknika erabili nuen, «behaketa parte-hartzailea», eta, zehatzago esanda, «ikertzaile ezezagun» moduan jardun nuen lana egiten, hau da, filmaketa-taldean inork jakin gabe era honetako ikerlana egiten ari nintzela. Behaketa-teknika erabiltzen denean, puntu nagusi bat ikertzaileak betetzen duen «rola» izaten da, eta kasu honetan ni *production assistant* nintzen, «produkzio-laguntzailea». Beraz, rol guztiz ezagun eta arrunta neukan filmaketa-taldean aritzeko, behaketaren munduko ikertzaileek *active membership role* edo «partaidetza aktiboko rol» esaten diotena.[4]

Rol honek bere abantailak eta desabantailak zituen. Abantailen artean aipatutakoa da nagusia: inork ez dio errezeloz edo susmoz begiratzen ikertzaileari arlo kezkagarriren bat aztertzen ari delakoan. Nire justifikazioa han egoteko, eta lantalde hartan sartzeko, lehen eguneko bileran aipatu nien: unibertsitateko irakaslea nintzela, eta nire gai akademikoen artean film-analisia zegoela. Hauxe ere gaineratu nuen: «Asko dakit teoriaz, baina gutxi praktikaz». Denek hartu zuten aintzat nire arrazoia.

Beste abantaila bat hau zen: produkzio-laguntzaile izatean lantaldeko posturik apalenean ari nintzen, hango hierarkian beheren dagoen tokian, eta horrek esan nahi zuen beherengo jendeak ez zidala errezeloz begiratuko, eta haien produkzioari buruzko ikuspegia eta sentipenak jasotzeko leku onean nengoela.

Baina horrek desabantaila zekarren, beste aldetik: produkzio-laguntzaile moduan ibilita ezin nuen parte hartu produkzioburuek egiten zituzten antolaketa-bileretan; ez nengoen gai nagusiak aztertzen eta erabaki garrantzizkoak hartzen ziren gunean; filmaketa-garaian bakarrik izan nezakeen horien berri zeharkako era batean, hau da, problema eta erabaki haiek nolako eragina zuten eguneroko jardunean jasoaz. Horrek esan nahi du lanpostuak guztiz markatu zuela nire ikuspegia. Lehenengo eta behin, beraz, nik zuzenean jasotzen nuena *produkzio-laguntzaile* baten begirada zen. Baina nik begirada zabalagoa eta sakonagoa lortu nahi nuen. Nola egin hori?

Elkarrizketak izan ohi dira behaketa zuzenaren osagarri. Horrela jakin nuen zer gertatu zen lantaldean izan zen arazo larrienean —zuzendari laguntzaileak produkzioa utzi egin zuenean—, aukera izan bainuen pertsona horri elkarrizketa sakona egiteko nire egonaldiaren amaieran. Hauxe izan zen, hain zuzen, nik izan nuen «informatzaile pribilegiatu»etako bat, era honetako ikerketa-teknikan beharrezkotzat jotzen den informatzaile mota. Beste «informatzaile pribilegiatu» bat produkzioan zebilen pertsonarik beteranoena izan zen. Aukera izan nuen, orobat, hari ere galderak egiteko produkzioaren hainbat xehetasunez, urte bereko irailean Europara bidaia egin zuelako bere emaztearekin, eta bidaia horren barruan Euskal Herria ere bisitatu zuelako neu gidari nintzela.

Pertsona horietaz gainera, «egituratu gabeko elkarrizketa» gehiago egin ahal izan nuen, batez ere lantaldeko edonorekin filmaketako lanetik etxerakoan kotxean edo trenean, eta bidaia

horiek eguneroko gorabeherei buruz hitz egiteko baliatu nituen. Horrela egin nuen behin baino gehiagotan produkzioan aritu ziren kamera-laguntzaile biekin.

Horrelako ikerketa batean arazo handi bat hauxe izaten da: norbera dagoen talde edo azpitaldearekin norainoko identifikazio-graduarekin funtzionatzen den. Jende xumeenarekin egoteak haien arazo eta eskariekin guztiz identifikatzeko bidea ematen zidan, ohi bezala egoera horretan sortzen diren harreman sozialetan. Baina ikertzaile bat ezin da lerratu erabat azpitalde batera, horrek arazo asko sortuko bailioke bere ikerketa era egokian bideratzeko unean: besteak beste, hori egiten badu, ezin izango du zalantzan jarri haientzat bistakoena den gauza bat, edo haiei galdetu horretaz. Esate baterako, batzuk oso kexu ziren astero sei egunean lan egin behar zutelako, eta gainera ordu asko egunero. Egun batean kamera-laguntzaileak hauxe aipatu zidan: Ordutegi horrekin ez banengoen ados, arduradunei esan egin behar niela. Zaila zen harentzat ulertzea nire jarrera, «ni horretarako etorri naiz hona» esan bainion aurreko egunean; ni beste langile bat nintzen harentzat.

Horrela, bada, ikerketa mota honetan ikertzaileak «marjinaltasunaren estrategia» deitzen dena erabiltzea gomendatzen dute adituek.[5] Horrek esan nahi du ikertzaileak ez duela lerratu behar inoren aldera taldean, baina, aldi berean, ezin da axolagabe ibili, jendeari gertatzen zaionak ardura ez balio bezala. Nire kasuan talde hartan nolabait «kanpotarra» izateak, bai jatorriz bai ohiko lanbidez, erraztu egin zidan era «marjinal»ean funtzionatzea. Taldeko bi aldeekin harreman egokiak izaten saiatu nintzen, eta uste dut lortu nuela. Behin baino gehiagotan jende xumeenaren sufrimenduekin elkartasuna agertu nuen, baina, bestalde, gainerako jendearen konfiantza ere lortu nuen, langile prestuaren inpresioa ematen nuelako, uneoro edozer gauza egiteko eta ikasteko gogoz, eta behar ziren ordu guztiak sartuaz inongo kexurik gabe.

Datuen erregistroa izaten da beste arazo bat. Ezin nuen ezer erregistratu bertatik bertara. Ezin nuen grabatu, edo are gutxiago, bideo batean ezer jaso. Ezinezkoa zen apunteak hartzea ere, gehienetan ez zegoelako batere denborarik libre horrelakorik egiteko. Egun batean, horrelako abagune bakanetako batean ezer egin gabe nengoela, ohar batzuk idazteko baliatzen ari nintzen, eta horretan nenbilela produkzio exekutiboa zeraman emakumea agertu zen (filma egiteko dirua jarri zuena) eta, nolabaiteko errezeloz begiratu ondoren, berehala zerbait egitera bidali ninduen handik. Beraz, datuak jasotzeko era bakarra egunaren amaieran gogoratzen nituen kontuak idaztea zen.

Filmaketak iraun zuen lau asteetatik hirutan izan nintzen. Nire egonaldiak maiatzaren amaieran zuen muga, eta arazoa neukan filmaketa amaitzeko falta zen denboran zer gertatzen zen jakiteko. Hori nolabait konpontzeko, beste «informatzaile pribilegiatu» baten laguntza izan nuen. Lantaldean erdi-mailako postu batean zegoen pertsona bat konbentzitu ahal izan nuen horretarako, jantzien arduraduna zen neska. Zalantzarik gabe haren posizioa eta nirea guztiz desberdinak ziren, batez ere hark lotura handiagoa zeukalako goiko jendearekin eta haiekin identifikatuago zegoelako. Hala ere, bide batez, pertsona horrek goiko postu horietan sortzen ziren gorabeherei buruz datu zehatzagoak eman zizkidan, haien arteko harremanei buruz, hain

zuzen. Neska horrek azken asteko egunerokoa bidali zidan, egun bakoitzean bere ikuspuntutik esanguratsuak izan ziren datuak bilduz. Horretarako gidoi txiki bat eman nion, ahal zuen neurrian hura kontuan izateko.

Ondoren datorren idazlana norberaren ikuspuntutik egindako eguneroko moduan antolatuta dago. Izaera subjektibo hori dauka. Horrez gainera, beste zenbait elementu gehitzen dira egun bakoitzean, ikuspegi subjektiboa zehazteko edo hobeto interpretatzeko: egun horiek bilduta daude multzotan eta, idazpuruan, egun horiei buruz aipa daitekeen puntu nagusia agertzen da. Hori guztia, behar denean, informatzaile nagusiek eskainitako datuez osatzen da.

Ikerketa kualitatibo batek *narratiba* bat sortzen du, kontakizuneko elementuak modu esplizituan elkarrekin lotuaz, itxuraz egitura kausala duen trama batean.[6] Ez da egiten lan aurretiazko hipotesi batekin, eta azterketa saiatzen da ekintzen zentzua bilatzen haiek gertatu eta gero.[7] Bildutako datuak narrazio moduan antolatuta daude, filmaketako eginkizunak hasiera, garapena eta amaiera dituela baliatuz. Gertakizunaren beraren izaerak eta erabilitako metodoak eramaten dute emaitza horrela azaltzera. Ohi denez, testua idazterakoan anonimotasuna errespetatu dugu, eta pertsonen benetako izenak ez dira azaltzen, ezizenak baizik.

5. Film-produkzioa

5.1. Zeri deitzen zaio «aurrekontu ultra txikiko film»?

Film independenteen barruan kostu baxuenaz egiten den film mota da hau.[8] Nahiz eta, itxura batean, merkatuak aurrekontu handiko pelikuletarako joera duen, efektu berezi ikusgarriz beteta eta izar handiak diren antzezleekin, badago lekua horrelako film independenteentzat ere. Horiek dituzte sarritan ikusmolde freskoenak, eta haien kontakizunetan pertsonen arteko harremanekin jokatuz, adibidez, audientziak erakartzen dituzte eta arrakasta lortu. Dena den, inork gutxik daki zerk bihurtzen duen film bat arrakastatsu, ez baitago horretarako araurik.

Gauza da film txikiak interesgarriak izan daitezkeela; haien kostua berreskuratzeko gai eta komertzialki egokiak izan daitezke, batez ere telebistetarako eta bideo-merkatuetarako. Hori gertatzeko aukerak, egia esanda, ez dira handiak, baina oraindik ere film bat ezaguna egin daiteke jaialdi batean, edo, kritika on batek zinemagileari beste proiektu bat aurrera ateratzen lagundu ahal dio.

Hollywoodeko produkzio handietan hauek dira filma garestitzen duten atalak, batez ere: gidoiak, antzezleak, produktoreak eta zuzendariak. Horiek har dezakete edozein aurrekonturen zati handiena. Aurrekontu txikiko filmetan atal horien kostua gutxienekora jaitsi beharra dago. Gidoiak doan izan behar du, produktoreak eta zuzendariak soldatatzat ezer kobratu gabe ibili behar dute, eta antzezleek ere ahal denik eta gutxien jaso. Hortik kanpo, bada aurrekontua igotzen duen elementu gehiago: kokapen exotikoak, lantalde handiak, tresna bereziak, ibilgailu eta antzekoak hondatzen ibiltzea, leku historikoetan filmatzea, efektu berezi sofistikatuak eta, batez ere, filmaketa luzeak. Ikus dezagun, bada, zer egin behar den elementu hauetako batzuekin eta gainerako besteekin produkzioa ahal denik eta merkeena izateko.

Gidoia. Gidoian azaltzen diren eszenatokiek eta protagonisten eginkizunek ahal denik eta arruntenak izan behar dute, eta hala ere interesa izan. Gidoiak soilik eskuragarriak diren lekuetara mugatu behar du istorioa. Horrek hurrengo elementua, kokapena, erraztu egingo du.

Kokapenak. Hurbileko lekuak hobetsi behar dira, ez baitute bidaia luzerik edo gauak kanpoan igarotzerik eskatzen. Horrela familiartekoen eta adiskideen laguntza lor daiteke. Kokapenak, ahal den neurrian, partikularren etxe eta jabegoetan egitea komeni da. Horrelako lekuak erabili ahal izanez gero, filmaketak irauten duen denbora osoan gastuak gutxitu egiten dira, gauzak leku batetik eramaten eta berriro martxan jartzen ibiltzeak dakartzan arazoak saihesten baitira.

Eszenatoki asko eta desberdinak eskain ditzaketen kokapenak bilatu behar dira. Dena leku berean egoteak hauxe dakar: alokairuen gastua gutxitzea, baimenak merkatzea, eta batez ere denbora aurreztea. Zenbat eta luzaroago egon ekipo bat leku berean, orduan eta denbora gehiago izango da lanean aritzeko, eta denbora gutxiago erabiliko da gauzak biltzen, kargatzen eta mugitzen. Janariaren kontua ere errazagoa izango da. Garraioak ekar ditzakeen beste arazoak ere gutxitu egingo dira (gauzak hondatzearena, adibidez).

Film-formatua. Hauxe da azken urteetan erabat aldatu den kontu bat. Lehenago, 16 mm-an filmatzen bazen ere, horren kostua nahikoa altua zen; zer esanik ez, 35 mm-an filmatu nahi bazen. Gaur egun, bideo digitalak asko aldatu du egoera, eta, beraz, nahitaez aurrekontu baxuko filma formatu digitalean egin behar da. Digitalaren barruan ere formatu asko egon daitezke, baina posible da ekipo txikiekin lan egitea eta kalitate onargarria lortzea.

Lantaldea. Kontuan izan behar da hainbat jende egon daitekeela prest doan lanean aritzeko produkzio merke batean: ikasleak, jardun mota «komertzial»agoetan ari diren langileak, hala nola telebistetan edo bideo korporatiboak egiten dihardutenak... Hauxe da garrantzizkoa, funtsezko postuak jende ahal eta profesionalenak betetzea —argazki-zuzendaria, argiztatzaileen burua, soinu-arduraduna—, eta horrela arriskua txikiagoa da gainerako postuak ikaslez edo nolabaiteko ikasketa jasoa duten pertsonez betetzen badira. Edonola ere, oso kontuan hartzekoa da lantaldea ahalik eta txikiena izatea. Horrek esan nahi du hobe dela pertsona batek postu bat baino gehiago betetzea: produkzio-zuzendaria zuzendari laguntzaile aritu liteke; atrezzoaren arduraduna sail artistikoan eta eszenatokiaren diseinatzaile; argiztatzaileak kamera orga eta antzeko tramankuluekin ere ibil daitezke; argazki-zuzendaria, kameralari; makillajekoa jantziez ere ardura daiteke; gidoi-ikuskatzailea *(script)* argazki finkoaz ardura daiteke eta bigarren zuzendari laguntzaile izan... Hori bai, oso garrantzizkoa da janari, zizka-mizka, freskagarri eta ur ugari egotea lantaldearentzat.

Antzezleak. Benetako antzezleak ez diren pertsonak, lagunak, familiakoak, amateurrak, baztertu egin behar dira. Nahiz eta horrela gastua gutxitu egingo dela uste, azkenean produkzioaren kalitatea asko jaitsiko da hori eginez gero. Zuzendariaren eta produktorearen lan funtsezkoa da antzezle egokiak bilatzea.

Tresneria. Ahal bada, onena tresneria daukan jendea kontratatzea da: kamera daukan kameralaria, soinu-ekipoa duen soinu-arduraduna, argi-tresneria duten argiztatzaileak...

Aseguruak. Beharrezkoak dira. Gutxienez, «hirugarrenen asegurua» izan behar da.

Post-produkzioa. Azken urteetan asko merkatu da post-produkzioa edizio digitalei esker.

Lan-akordio motak taldearekin. Bi modu daude «aurrekontu ultra txiki»ko produkzioan. Bata, jendeak «janariaren eta DVDaren truke» lan egitea da. Kasu horretan produkzioak ez dauka ezer ordaindu beharrik langileari, nahiz eta filmak gerora arrakasta lortu. Estatu Batuetako hiri batzuetan film asko egiten dira era horretara, jendearen arteko lehia handia dagoelako eta bakoitzak bere curriculuma eta lan-esperientzia handitu nahi dituelako.

Beste modua «ordainketa atzeratua» da: dirua iritsi ahala ordainduko da. Ez da ezer bermatzen hasieran. Sarritan, horrela egiteko prest dagoenari ohiko saria baino % 10 gehiago ordaintzen zaio, horrelako baldintzetan lan egiteko eskaintzearren bere burua. Produkzioaren amaieran denek dakite zer «zor» zaien, filmak arrakastarik badu.

5.2. Filmaketaren fasea

Film baten produkzioan lau fase daude: garapena, aurreprodukzioa, produkzioa edo filmaketa, eta post-produkzioa.[9]

Garapena. Produktoreak edo zuzendariak ideia garatzen du, interesgarria eta arrakastatsua izan daitekeen film baterako materiala bilatuz. Material hori gidoi original bat izan daiteke, edo beste edozein gauza: nobela, ipuina, liburua, bizitza errealeko gertakizuna... «Aurrekontu ultra baxu»ko filmean oso ohikoa da produktorea, zuzendaria eta gidoigilea pertsona bera izatea, gure kasuan gertatzen den bezala.

Aurreprodukzioa. Fase honetan egin beharreko lanak asko dira. Filmaketa-egitaraua osatu, kokapenak zehaztu, dirua lortu, antzezleak aukeratzeko *casting*ak egin, baimenak eskuratu, lantaldeko jendearekin hitzarmena egin, tresneria bilatu, eta abar.

Produkzioa edo filmaketa. Gure ikerketan aztertu dugun fasea da hau, filmaketaren unea. Planoz plano joaten da filmatze-lana, eta ohiko plano bakoitza jasotzeko pauso hauek jarraitzen dira:

- Prestaketa: antzezleekin ikusten da zein diren irudiaren konposizio eta mugimendu egokiak.

- Argiztapena: kamera-ekipokoek eta argi-arduradunek eszenatokia prestatzen dute filmatzeko; estrak edo produkzio-laguntzaileak antzezleen posizioetan jartzen dira argiak nola funtzionatzen duen ikusteko; bitartean, antzezleak janzten eta makillajeko zereginetan egoten dira.

- Azken entsegua: elkarrekin lotzen dira ahal den erarik egokienean antzezleen jarduna eta irudia eta soinua jasotzeko lanak.

- Filmatu: antzezleek beren lana egiten dute, eta mugitu beharra duten langileak mugitzen dira bakarrik; beste guztiak isilik eta geldi daude.

Post-produkzioa. Filma editatzen den unea da.

Fase guztiak dira erabat garrantzizkoak, baina filmaren etorkizuna inon jokatzen bada, produkzioaren unean gertatzen da hori. Hortxe egiten da langiletan eta dirutan inbertsiorik handiena, filmaketako unean biltzen baita jende gehien. Hor sortzen da filma egiteko lehengaia, irudiak eta soinuak, eta lehengai hori ona ez bada, ondoren hobetzeko egin daitezkeen aldaketak txikiak dira. Une erabakigarria da, beraz: filmaketak iraun bitartean egiten dena egina geratzen da betiko; ez dago han egindakoa aldatzeko modurik (neurri batean bai, hala ere), hots, beste une guztietan gauzak behin eta berriz egin eta errepasa daitezke, dela gidoia egiten den unean, dela filma editatzen den unean. Baina filmaketan egiten denak ez dauka bueltarik; hortxe lortzen den materialarekin lan egin beharko da geroago.

Film luzea egiteko jende kopurua eta baliabideak asko aldatzen dira produkzio batetik bestera, aurrekontu handi edo txikiaren arabera. Hollywoodeko estudioetako filmaketek ehunka

lagun bilduko dute hilabete pare batean edo luzaroago lan egiteko, eta, aldiz, baliabide gutxikoek talde txikiekin lan egingo dute, hilabetez gehienez.

Guk aztertutako kasuan ekoizpena *nonunion* motakoa zen, lantaldea ez baitzegoen inongo sindikatu edo konbenioren mendean. Hala ere, antzezleei zegokienez, SAG (*Screen Actors Gild*) sindikatuaren arauekin funtzionatzen zuen. Sindikatu horrek tarifa batzuk ditu ezarrita, segun eta zer aurrekontu-kategoriatan sartuta dagoen filma; eta kategoriarik baxuena «aurrekontu ultra txikia» duena da. Antzezleez gain, 22-25 pertsona biltzen ziren eguneroko lanean, eta horietako gehienek 25 dolar jasotzen zuten eguneko. Batzuetan jende gehiago zegoen, adibidez une berean kamera-ekipo bi ari zirenean edo estrak etortzen zirenean, baina hori 24 egunetik hirutan gertatu zen bakarrik.

5.3. Filmaketako lantaldea

Ondorengo taulan ikus daiteke nork osatzen zuten ikertutako film honen oinarrizko lantaldea. Pertsona bakarra behar den ohiko postu batean izen bat baino gehiago agertzen badira, horrek esan nahi du egun batzuetan haietako bat egon zela, eta besteetan beste bat.

1. taula. Filmaketako oinarrizko lantaldea

Saila	**Kargua**	**Izena**
Produkzioa	Produktore exekutiboa	Berta
	Produktorea	Anthony*
	Produkzio-zuzendaria	Bob*, Geraldine
	Produkzio-aholkularia	Abel
	Produkzio-koordinatzailea	Angela, Catherine*
	Produkzio-laguntzaileak	Catherine*, Louise, Justin, Rosanne*, Raymond, Santi
Kamera	Zuzendaria	Anthony*
	Zuzendari laguntzailea	Bob*, Dave
	Argazki-zuzendaria	Mark*
	Kameralaria	Mark*
	Kamera-laguntzailea	Paul, Heather
	Gidoi-ikuskatzailea	Julie
	Konputagailura hustea	Thomas
Soinua	Soinu-arduraduna	Philip
	Mikrofonista	Fred, Amanda
Argia	Argiztatzaileburua	Ken, Max, Jason*
	Argiztatzaileak	Eric, Alberto, Gerry, Jason*, Fran
Sail artistikoa	Arduraduna	Lorena
	Laguntzailea	Jennifer

Makillajea eta ile-apainketa	Makillaje-arduraduna	Davin
	Makillaje-laguntzailea	Elizabeth
Jantziak	Jantzien arduraduna	Rosanne*, Jessica
Espezialistak	Espezialista	Kurt
Janaria	Sukaldaria	Marcelo

* Pertsona hauek postu bat baino gehiago bete zituzten (Anthony, Bob, Mark), edo postu batetik bestera igaro ziren (Jason, Catherine, Rosanne).

Ikus dezagun ondoren atal horietako bakoitzaren zeregina, nola bete zituen lantaldeko jendeak postu horiek, eta zer arazo egon zen.

5.3.1. Produkzio Saila

Sail hau proiektuaren finantzaketaz eta antolamenduaz arduratzen da. Ekoizpen handian kargu multzo oso zabala egon daiteke, baina produkzio txikiagoan hiru edo lau postu bereizten dira, batez ere hauek: produktore exekutiboa, dirua jartzen duena; produkzio-zuzendaria, antolaketaren pisu guztia eraman eta aurrekontua behar bezala kudeatzeko ardura nagusia duena; eta produkzio-koordinatzailea, produkzio-zuzendariari edozertan lagundu eta idazkaritza-lan guztiak egiten dituena.

*5.3.1.1 Produkzio exekutiboa (*Executive Production*)*

Produkzio handietan kargu hori duen pertsona ez da agertu ere egiten filmaketa-lekuan, eta produkzio-zuzendariaren eskuetan uzten du lantaldea eta antzezleak antolatzeko lana; produkzio txiki askotan, aldiz, egon ere ez da egiten, dirua zuzendariak edo hurbileko jendeak jartzen duelako; orduan, pertsona bera izaten da zuzendari eta produktore.

Film honetan Bertak, zuzendariaren bizikideak, jarri zuen dirua; zuzendariak berak produkzioko hainbat ardura hartu zituen prozesuko fase guztietan, eta horregatik azaltzen da «produktore» moduan ere krediturzko tituluetan. Inoiz film-munduan lanik egin gabekoa zen Berta, nahiz eta aurretiaz proiektuak kudeatzeko konpainia baten ardura izan. Baina, hala ere, produkzioan lan egin nahi zuen bertatik bertara. Esperientzia faltagatik, ordea, ez zuen eginkizuna behar bezain ongi bete. Film-proiektu handietako Produkzio Sailean izaten den kargu bat ere betetzen zuen Bertak: produkzio-kontuen arduraduna zen (*Production Accountant*); jendeari ordaintzeaz eta txekeak egiteaz arduratzen zen.

*5.3.1.2 Produkzio-zuzendaria (*Production Manager*)*

Produkzio-zuzendariak ez dauka sorkuntza artistikoarekin loturarik, eta horregatik ez du parte hartzen antzezleen aukeraketan; zuzendariaren lana erraztu behar du, hari lan baldintzarik onenak eskainiz. Produkzio-konpainiaren interesak defendatu behar ditu, berak

ordezkatzen baitu produkzio-bulegoa; eta gainerako unitate guztiek —sail artistikoak, kamera sailak, eta abarrek— produkzio-zuzendariaren jarraibideei kasu egin behar diete aurreprodukzioko fasean. Tentsioa eta gatazka jasan dezakeen norbaitek hartu behar du postu hori, eta hala ere harremanetan diplomaziaz jarduteko gai den norbaitek.[10] Konfiantza handia eskatzen duen kargua da; dirua zertan gastatu eta zertan ez gastatu erabakitzearen ardura du. Hain zuzen, produkzio-zuzendariak egin zuen porrot film honetan, hainbat arrazoi zirela tarteko.

Lehen bi asteetan Bob aritu zen lan horretan, zuzendari laguntzaile izatearekin batera. Bigarren astearen amaieran utzi egin zuen produkzioa, «ez zutelako profesionaltasunez hartzen», berak zioenez. Ez da agertzen krediturzko tituluetan. Handik aurrera, Geraldine aritu zen lan horretan.

5.3.1.3 Produkzio-koordinatzailea edo -idazkaria (Production Coordinator or Production Secretary)

Produkzio-koordinatzaileak produkzio-zuzendariari laguntzen dio antolaketa-lanetan: telefono bidezko elkarrizketak egin, e-posta mezuak idatzi, hitzorduak lotu, akordioak egin, eta sailek behar dituzten dokumentuak prestatu eta idatzi.

Postu honek ere porrot egin zuen filmatzen hasi bezain laster. Izan ere, Angela lehen egunean soilik aritu zen lan horretan. «Berari ez zegozkion erabakiak hartzeagatik» bota zuten, eta handik aurrera produkzio-laguntzaile moduan hasitako Catherinek hartu zuen haren postua. Angela ez da azaltzen krediturzko tituluetan.

5.3.1.4 Produkzio-aholkularia (Production Consultant)

Beste lankide batek ere, Abelek, inplikazio dezente zeukan produkzio honetan, eta produkzio-aholkulari jarri zuten. Adineko pertsona horrek zeregin asko bete zituen: antzezle aritu zen, hainbat aldiz antzezleak bilatzeko bere kontaktuak erabili zituen, eta kontaktu horiek zirela medio produkzioko hainbat gauzatan lagundu zuen.

*5.3.1.5 Produkzio-laguntzaileak (*Production Assistants*)*

Louise, Justin, Rosanne, Raymond, eta ni neu ginen produkzio-laguntzaile. Edonori eta edozertan laguntzeko prest egon behar genuen: sail artistikoaren eta argi-arduradunen aginduak bete, jendea leku batetik bestera eraman, eszenatokiaren kanpoaldean isilik egoteko agindu, aparkalekuan autoak zaindu, sukaldariari lagundu, gauzak bildu eta garbitu, jendeari ur-botilak eraman, zuzendariarentzat zigarretak erosi, eta abar; hau da, edonork agindutakoa egiteko prest egon behar genuen. Ordu asko sartu beharreko lana zen, denen aginduak zintzo betez; produkzio-laguntzaileetako bat, Louise, bota egin zuten hirugarren astean, zegokion lana, jendea leku batetik bestera eramatea, ondo egiten ez zuelakoan. Ez da agertzen krediturzko tituluetan.

5.3.2. Kamera Saila

Postu hauek ageri dira sail honetan: zuzendaria, zuzendari laguntzailea, argazki-zuzendaria, kameralaria, kamera-laguntzailea, gidoi-ikuskatzailea eta konputagailura husten duena.

*5.3.2.1 Zuzendaria (*Director*)*

Talde sortzaileko partaiderik garrantzizkoena da. Filmaketako sail guztietako buruekin lan egin behar du estu-estu, bera baita denaren ikuspegi orokorra eman behar duena; bera da, izan ere, filmaren bisioa (*vision*),duena; berak du, era berean, antzezleen jarduna beste elementu guztiekin lotzeko ardura. Gure ikerketaren gai bat lantaldeko harremanen analisia izanik, ohartu gara zuzendariaren esku dagoela eszenatokiko *feeling*a edo «sentimendua» zein izango den; hark eragiten du gehien talde osoaren espirituan eta gogoan. Aurrekontu ultra txiki bati zegokion moduan, film honetan pertsona bera izan zen, zuzendari izateaz gain, gidoigile, produktore, eta editore ere: Anthony.

*5.3.2.2 Zuzendari laguntzailea (*Director Assistant*)*

Proiektu handietako aurreprodukzio fasean, zuzendari laguntzaileak produkzio-zuzendariari laguntzen dio lantaldea osatzen, gidoia filmaketarako zatikatzen eta filmaketa-egitaraua zehazten. Filmaketan zehar, zuzendari laguntzailea zuzendariaren esku eskuina da, eszenatokiko osagaiak kontrolatzen ditu eta antzezleen eta lantaldearen zeregina koordinatzen du. Beharrezkoa bada, lan guzti hauek egiten ditu: filmatzeko lekuak bilatu eta haiei buruzko tratuak egin, eguraldiaren aurreikuspenak kontrolatu, egitaraua egunean jarri, antzezle eta lantaldekoei egin beharreko deiak erabaki, bai antzezle eta bai lantaldearentzat biharamunerako egiten diren dei-paperak gainbegiratu; hortik aparte, filmaketa-garaian atzeko ekintza zuzentzen du, hau da, figuringileek edo antzezleez gaineko jendeak egindakoa.

Produkzioa handia denean, bigarren eta hirugarren zuzendari laguntzaileak ere egoten dira. Horien zereginak dira: eguneroko dei-paperak zehaztea, «estra» edo antzezleez gaineko jendeari buruzko agiriak eta paperak egitea lehen zuzendari laguntzaileak edo produkzio-zuzendariak onar ditzan, eta eguneroko produkzio-txostena egitea egunaren amaieran; beste eginkizun hauek guztiak ere bete ditzakete: gidoiak eta haien aldaketak banatu antzezle eta lantaldekoen artean; produkzioko kideekin koordinatu egunaren hasieran jende guztia prest egon dadin; gauzen bilketa gainbegiratu; janaria, ostatua eta gainerako beharrak programatu, eta abar.

Zuzendari laguntzaileak eszena bat filmatzeko behar den jende guztia kontrolatzen du, eta dena prest jartzen du zuzendariak *action! [*ekin!*]* agindu dezan. Bere egitekoa da pertsona guztiak lanean jartzea, agintzeko modu lasaia erabiliz, denek modu eraginkorrean eta gustura lan egin dezaten.[11]

Horregatik guztiagatik, zuzendari laguntzailearen «agintea» nabari izaten da eszenatokian; hura da bistako liderra, haren eskuetan baitago filmaketaren martxa, erritmoa, azkartasuna, eta eszenatokian dauden ekipoak mugiaraztearen ardura.

Gure filmean bi zuzendari laguntzaile aritu ziren, Bob eta Dave. Hasieran, Bobek oso garrantzizko bi postu hartu zituen —zuzendari laguntzaile eta produkzio-zuzendari—; baina sistema horrek antolakuntzari dagozkion aurreprestaketak oso ondo eginda daudenean soilik funtziona dezake, eta ez zen horrela gertatu. Postu biak ondo bete ezinak ito egin zuen Bob, eta utzi egin behar izan zuen lana filmaketaren erdian, gorago esan bezala. Ondoren Dave etorri zen eta, erritmo azkarregia ezarri nahi izateagatik zenbait arazo sortu arren, hari esker pentsatutako denboran amaitu zen filmaketa.

Filma amaitu ondoren, zuzendariak hauxe adierazi zidan: filmaketa errepikatu behar izanez gero, askoz ere arreta handiagoa jarriko zukeela batez ere zuzendari laguntzailea aukeratzen.

5.3.2.3 Argazki-zuzendaria (Director of Photography)

Kamera Sailaren arduraduna da, eta aginduak ematen dizkie argiztapen zein tramankuluen buruei. Aurreprodukzioan gidoia zatikatzen laguntzen dio zuzendariari eta eszena bakoitzaren diseinua egiten du, eszenatoki edo kokapen bakoitzean zein diren argiztapena eta kameraren beharrizanak zehaztuz.

Argazki-zuzendaria filmaren izaera bisualaren arduraduna da, zuzendariak zer nahi duen kontuan izanda. Ardura osoa du planoak irudi aldetik nolako itxura izango duen erabakitzean eta, horregatik, mendean izaten ditu argiztatze-lanean aritzen direnak. Berak agintzen die langile horiei zer egin behar den argi-foku eta tramankuluekin. Alde horretatik, argazki-zuzendariaren lanak ez du eskatzen ahalegin fisikorik.

Teorian, argazki-zuzendariak ezartzen du planoaren «tonua»; postu horrek garrantzi handia zuen filmaketa emultsiozko pelikulen bidez egiten zenean (orain ere, horrela egiten da produkzio handietan). Filmaketa tradizionalean, berak zeukan argazkiaren irudia buruan eta, gainerakoek filma errebelatu arte itxaron behar zuten. Horregatik, prozesu digitalak indartzen eta zabaltzen doazen neurrian, argazki-zuzendariaren garrantzia gutxitzen joan daiteke.

Horren ondorio bat hauxe da: filmaketa tradizionalean oso komenigarria zen argazki-zuzendariaren eta kameralariaren postuak bi pertsonaren eskuetan egotea; modu digitalean grabatzen diren oraingo produkzio txikietan, ordea, bi postuak pertsona batek betetzea da ohikoena. Horrela, ondo funtzionatuz gero, lana azkarrago egin daiteke, argazki-zuzendariak ez dauka kameralariari azalpenak ematen ibili beharrik-eta. Horixe izan zen film honekin gertatu zena ere: pertsona batek, Markek, zituen ardura biak. Hala ere, zuzendariarekin izandako gorabeherengatik, Markek ez zuen argazki-zuzendariak eskuarki hartzen duen pisurik izan.

*5.3.2.4 Kameralaria (*Camera operator*)*

Kameralariak prest egon behar du kameraren posizioak edo mugimenduak eskatzen duen esfortzu fisikoa egiteko, behar den beste plano-altxaeratan. Kamera astun bat lepoan edo eskuan hartuta ibiltzeak ahalegin handia eskatzen du eta, beraz, postu horretan aritu nahi duenak kamerarekin lan egiteko oreka fisiko ona eta indarra behar ditu. Dena den, bideo digitalaren garaian kamera gero eta eramangarriagoak agertu dira eta, lana bideoan egiten bada, kameralariaren lana ez da hain neketsua.

Horixe gertatu zen filmaketa honetan ere, formatu txikiko HD bideo-kamerak erabili baitziren: Panasonic AG-HVX200 P2 HD. Redrock M2 izeneko egokitzaile edo akople bat gehitzen zieten, 35 mm-ko lenteak erabili ahal izateko.

Mark aritu zen, beraz, kameralari eta argazki-zuzendari. Zuzendariak eta argazki-zuzendariak «harmonia» handian lan egin behar dute, baina ez zen horrelakorik gertatu film honetan: Anthony zuzendaria ez zegoen gustura Markek egindako lanarekin. Jessica jantzien arduradunak sarritan aipatu zuen haien arteko «komunikazio eza».

*5.3.2.5 Kamera-laguntzailea (*Camera Assistant*)*

Kamera-laguntzaileak kamera ondo zaintzeko ardura hartzen du, denbora guztian; izan ere, kamera izaten da, eskuarki, ekipoaren tresnarik garestiena. Horrez gain, lan hauek egiten ditu kamera-laguntzaileak: planoa filmatu baino lehen arbeltxoan idaztea altxaera bakoitzaren zenbakia; filmaren bobina, bideo-zinta edo memoria-txartela haiek gorde beharreko lekura eramatea. Heather eta Paul arduratzen ziren horretaz.

*5.3.2.6 Gidoi-ikuskatzailea (*Script Supervisor*)*

Plano bakoitzaren xehetasun garrantzizkoak hartzen ditu honek: zenbat altxaera egiten diren, bakoitzaren luzera, zein lente erabiltzen den, eta antzezleek nola esaten dituzten gidoiko esaldiak. Eszena batetik besterako jarraipenaren ardura ere badu, eta kontuan izan behar du eszena bakoitza modu egokian filmatu den, edizioan ez dadin zatiren bat falta. «Jarraipenaz» ere arduratzen da, objektuei, jantziei eta gainerako elementuei dagokienez ez daitezen aldatu plano batetik besterako xehetasunak. Julie ibili zen lan horretan.

5.3.2.7 Konputagailura hustea

Postu hau guztiz berria da, bideo digitalaren garaiak ekarritakoa. Bideo-kamerak memoria-txartelak erabiltzen dituenean, horiek disko gogorretara hustu behar dira, materiala sailkatzeko sistema oso argia erabiliz. Kasu honetan kamerak bi txartel erabiltzen zituen, gehienez lau minutu grabatzen zituztenak, eta txartel bat kameran zegoen bitartean bestea hustu egiten zuten. Thomas zen horren arduraduna, eta post-produkzioan ere arituko zen, zuzendariarekin batera editatzen.

5.3.3. Soinuaren Saila

Pertsona bik osatzen dute sail hau: soinu-arduradunak eta mikrofono-eramaileak

*5.3.3.1 Soinu-arduraduna (*Sound Director*)*

Soinu-arduradunak soinuaren ardura izaten du platoan, laguntzaile izaten duen mikrofono-eramailearekin batera. Ahal den kalitaterik onenaz jasotzeaz gain, soinu-arduradunak behin baino gehiagotan erabaki behar izaten du plano bat errepikatu behar den ala ez, batez ere zuzeneko soinua funtsezkoa denean.

Philip izan zen soinuaren burua filmaketa honetan. Bere grabaketa-gailuetan konfiantza handia bazuen ere, edizio-garaian zuzendaria konturatu zen soinu-grabaketak akatsak zituela, eta hori zela-eta soinua hobetzeko lanek aurrekontua handitu zuten.

*5.3.3.2 Mikrofonista (*Boom operator*)*

Pertika luzagarri batean mikrofonoa darabilena izaten da mikrofonista. Hasieran Fred aritu zen, baina ez zegoen batere gustura ekoizpenarekin eta utzi egin zuen. Handik aurrera, Amandak hartu zuen Freden lekua.

5.3.4. Argiztapen eta Tramankuluen Saila

*5.3.4.1 Argiztapen eta tramankuluen arduradunak (*Gaffer*,* Key grip*)*

Argiztapen-arduradunak (*Gaffer*), berez, argien ardura hartzen du; tramankuluen arduradunak (*Key grip*), berriz, garabiak, kamera-orgak eta errailak muntatzen eta maneiatzen ditu. Hala ere, produkzio txikietan bakar batek izaten ditu ardura biak. Gainera, gehienetan, argi-fokuak eta horien osagarriak kenduta ez da erabiltzen beste tramankulurik. Esate baterako, ekoizpen honetan behin bakarrik erabili zen kamera-orga. Sail horretako langileak argien eta tramankuluen kamionetarekin ibiltzen dira; batzuetan kamioneta langileena berena da eta bestetan, aldiz, alokatua. Kasu honetan, *U-haul* konpainiako atoi batean eraman zituzten gailuak lehen egunean.

Max izan zen lehen egun hartako argiztapen-arduraduna. Egunaren amaieran, istripua izan zuen errepidean, atoia zeramala. Autokoei ez zitzaien ezer gertatu, baina istripu hark arazoak sortu zituen produkzioko lantaldearen barruan. Horren ondoren, Ken izan zen argiztapenaren ardura hartu zuena. Oso langilea eta diziplinatua zen; egunek aurrera egin ahala, ordea, produkzioaz zituen kexuak adierazten hasi zen, ez baitzitzaion gustatzen zuzendariak nola zerabilen argiztapena. Hirugarren astean, ordura arte elektrikari moduan aritutako mutil bat onartu zuten argiztapenaren buru, Jason. Mutil gogotsua zen, oso langilea, ingurua bere gogo biziaz kutsatzen zuena. Ez nion inoiz entzun kexurik produkzioaz.

Askotan, argiztapenaren buruak berak arduratzen dira langileak lortzen, eta horixe gertatu zen gure kasuan ere.

*5.3.4.2 Argiztapen edo Tramankuluen Saileko langileak (*electricians, grips*)*

Eric, Alberto, Gerry, Jason, eta Fran. Guztiek talde trinkoa osatzen dute buruaren agindupean, eta lan fisikorik gogorrena egiten dute. Beren ospea izan ohi da lan neketsua egitea eta gutxitan kexatzea. Hala ere, Alberto egun bakar batean azaldu zen eta ez zegoen batere ados argazki-zuzendariarekin; ideiarik ez zeukala zioen.

5.3.5. Sail artistikoa

Sail hau arduratzen da eszenatokiko objektuez eta eszenatokiaren itxurari dagozkion arlo guztiez. Gauzak eta eraikinak zenbat prestatu behar diren, jende gehiago edo gutxiago egongo da sail horretan. Sar daitezke pintatzaileak, arotzak, eszenatokia txukuntzen dutenak... Eszenatokia prestatzen dute, eta filmaketan hantxe daude, behar diren gauzak apailatuz. Atrezzoa deitzen diogun arlo guztia sartzen da hor.

Sail artistikoaren arduraduna (*Art department coordinator*)

Sail artistikoaren barruan hainbat postu egoten dira produkzio handietan: zuzendari artistikoa, eszenatokiak eta kokapenak behar duen itxura izan dezan arduratzen dena; atrezzoaren arduraduna, (*Property Master*, edo *prop*), eszenatokian beharrezkoak diren objektuez arduratzen da, batez ere antzezleek eskuan edo aldean eraman beharrekoez; eta *Set Dresser* edo eszenatokia «janzten» ari dena, bereziki eszenatokiaz arduratzen da (hura hornitzeko beharrezko objektuez, hura egokitzeko pintaketaz edo hormetan papera jartzeaz).

Produkzio txikian lan horiek guztiak pertsona bakarrak betetzen ditu, laguntzaile batekin; gure kasuan Lorenak egin zuen. Lorenak, besteak beste, elizako aitorlekua muntatu behar izan zuen, aurretiaz arotz batek diseinaturiko piezak elkarrekin lotuz. Pasadizo bitxi bat aipatzearren, Lorenak hiru aldiz muntatu behar izan zuen aitorleku hori: izan ere, filmaketan erabili zen eliza erlijio-ospakizunak egiteko behar zuen herriko jendeak eta, egun horietan aitorlekua soberan zegoenez, handik kendu egin behar izaten genuen.

*5.3.5.1 Sail artistikoaren laguntzailea (*Art department assistant*)*

Egin behar den lan motaren arabera, laguntzaile gehiago edo gutxiago behar izaten da sail artistikoan. Produkzio honetan, Lorena kexu izaten zen haren sailean ez zegoela behar beste jende esanez. Jennifer izan zen sailari atxikitako laguntzaile bakarra.

5.3.6. Jantzien arduraduna (Wardrobe supervisor, Costume Designer)

Filmaren *look*a, begiratzean sortzen duen efektua, zuzendariaren eta argazki-zuzendariaren eskuetan dago batez ere, baina baita jantzien arduradunaren eskuetan ere.

Lehen astean, aurretiaz horretan jardun gabea zen Rosannek hartu zuen ardura hori. Baina bigarren asterako beste neska bat lortu zuten, Jessica. Iritsi eta bi egunera, Jessicak errieta egin zion Rosanneri, ezer egiten ez zuela-eta. Rosannek produkzio-laguntzaile jarraitu zuen handik aurrera.

Jessicak uste zuen ez zela behar beste biltzen zuzendariarekin eta argazki-zuzendariarekin jantzien arloa hobeto antolatzeko; eta, gainera, aurrekontu baxuegia zeukala zioen.

5.3.7. Makillajea eta ile-apainketa

Produkzio handietan bereizi egiten dira eginkizun horiek; bereizten ez direnean, pertsona bakarrak betetzen ditu, laguntzaileren batekin.

*5.3.7.1 Makillajearen arduraduna (*Key make up*)*

Esan ohi da makillajeaz arduratzen den pertsonak zerikusi handia duela antzezleek gero agertuko duten jarrerarekin. Hizketa-jardun interesgarria badu, antzezleak lasaitu egiten ditu, eta lekura egokitu, lan txukuna egiteko aukera erraztuz. Horixe gertatzen zen gurean Davinekin, nortasun berezia baitzuen; gainera, bere postuari zegokiona baino askoz urrunago joan zen produkzio honetan, eta behin baino gehiagotan jarri zuen lantalde osoa martxan.

*5.3.7.2 Makillajearen laguntzailea (*make up assistant*)*

Elizabeth aritu zen Davini, makillaje-arduradunari, laguntzen.

5.3.8. Espezialista (*Stunt Coordinator*)

Filmaketan kolpeak eman/hartu eta hilketa bati zegozkion eszenak egin behar ziren. Espezialistak koordinatu behar zituen antzezleen mugimenduak; batak bestea jotzeko tresna bat hartzean nola jokatu behar zuten adierazten zien antzezleei, irudian efektu egokia lortzeko. Behin, detektibe papera zeukan antzezlea sokatik eskegita geratu behar zen, itotzen ari zen plantak egiteko; espezialistaren esku zegoen, orduko hartan ere, ekintza hori guztia nola egin. Lan horretan Kurt aritu zen eta espezialistaren paper hutsa baino gehiago bete zuen; ekoizpenean eta haren ibilbidean inplikatu zen.

5.3.9. Janaria (*Catering*)

Marcelo izan zen sukaldaria. Funtsezko postua da hori ekoizpen guztietan, eta are gehiago merkeetan. Izan ere, jendeari ez bazaio ordaintzen edo oso gutxi ordaintzen bazaio, jaten behintzat itxuraz eman behar zaio; lantaldea ondo elikatu behar da, bestela ez da izango lana ondo egiteko gogo bizirik.

6. Filma

6.1. Ikerlana egiteko funtsezko baldintza: filmaketa-talde batean sartzea

2006ko apirilean iritsi nintzen San Franciscora eta, espero ez bezala, filmaketetan parte hartzeko aurretiaz nituen kontaktuek ez zidaten batere lagundu. Hasiera hartan, ez nuen uste filmaketaren batean sartzeko aukerarik izango nuenik.

Azkenean, Internetez harremanetan jarri nintzen film-produkzioko jendearekin. Hainbat deialdi agertzen dira sarean taldea osatzeko jende bila, eta hauxe egin nuen: *unpaid* edo ordaindu gabeko zerrendetan begiratu eta izena eman estrak eskatzen zituzten deialdi batean. Horrela, estra eta *production assistant* ibili nintzen film labur batean eta asteburuetan zatika egiten ari ziren film luze batean. Baina ez nuen aurkitzen film luze baten filmaketarako deialdirik, eta Los Angelesera joan ala ez erabaki behar nuen, han aukera askoz ere zabalagoa baitago zinemagintzan. Halako batean, «aurrekontu ultra txikiko» (*ultra low budget*) proiektu baterako deialdia aurkitu nuen Interneten; Bay Area-n (San Franciscoko badia inguruan) filmatu behar zuten maiatzean zehar eta ekainaren hasieran. Berehala idatzi nien, eta erantzun bat jaso nuen, baina ez besterik. Berriz ere saiatu, eta dohainik lan egiteko prest nengoela adierazita, laguntzaile onartu ninduten.

Filmaketa maiatzaren 8an hasi zen, eta hiru astez jarraian egon nintzen bertan. Esan bezala, aurrekontu «ultra txikia» zuen (filmaketa-garaian 150.000 dolar inguru kalkulatu zen, baina edizioaren amaieran 195.000 dolarrera iritsi zen); 20-25 pertsonako taldea zen, eta noizean behin zenbait estra erabili ziren.

Aurrekontu txikia izateak ez zuen esan nahi jendeari inplikazio txikia eskatuko zitzaionik. Gogoan dut ordaindutako langile zein ordaindu gabekoen bila Internet bidez egindako deialdietan zer jarrera eskatzen zitzaion apuntatu nahi zuenari: gogo beroa, taldean lan egiteko entusiasmoa eta presioa jasateko gaitasuna. Baldintza berdinak ziren Hollywoodeko konpainia handi baterako edo film merkea egin nahi zuen produkzio-etxearentzako.

6.2. Filma eta produkzioa

6.2.1. Gidoia eta plangintza

Gidoiak 107 orrialde eta 108 eszena zituen. Kontuan izanda orrialde bakoitzak minutu bat har dezakeela filmean batez beste, gidoiak ordu eta erdi pasatxoko kontakizuna sortzeko aukera ematen zuen; hori da film luze baten ohiko iraupena. 24 eguneko filmaketa egiteko asmoa zegoen; beraz, lau orrialde eta erdi ateratzen zen eguneko. Estudio handietako filmaketaren batez bestekoa egunean bi orri ingurukoa izaten da. Alde horretatik, plangintzak erritmo azkarra ezarriko zuen; hori izaten da aurrekontu baxuko gehienen erritmoa, edo are erritmo gogorragoa.

6.2.2. ***Filmaren gidoia***

Gidoia korapilatsua zen. Jarraian azalduko dugu egileek *psycho thriller* edo intriga psikologikoaren generoan kokatzen zuten film horren kontakizun laburtua:

Apaizek zuzendutako umezurtz-etxean dago Leonard mutikoa. Buztinezko iruditxoak egitea gustatzen zaio Leonardi; baina egoitzako mojek ez dute gogoko zaletasun hori eta, berriz ere horretan harrapatu dutenean, apaiz buruarengana eraman du moja batek, umearen ezezkoei kasurik egin gabe. Ez dakigu zer zigor jarri dion apaiz buruak, «berriro ere gaiztoak izan ote gara, Leonard?» galdetu ondoren.

Dagoeneko Leonardek baditu 35 urte, eta psikiatrikoan dago. Buztinezko iruditxoak egiten jarraitzen du. Halako bat erakutsi dio bera aztertzen ari den doktore heldu berriari: haren aurpegia du iruditxoak eta, doktorea harrituta hari begira dagoela, Leonardek hil egin du lepoa moztuta.

Doktorearen arropak jantzi eta ihesi doa, tren geltokirantz. Apaiz bat ikusi du trenaren zain; harekin hizketan hasi eta apaiza herri galdu batera doala jakin du, hango parrokiaren ardura hartzera lehen aldiz, aurreko parrokoa hil egin delako. Apaizarekin konfiantza hartu eta Leonard trenean sartu da; gauean, apaiza hil du, lotan dagoela. Biluztu eta trenetik bota du haren gorpua. Hurrengo goizean, Clearheart,(«bihotz garbia») izeneko herritxora heldu da, benetako apaizaren helbidera.

Leonard Clearhearteko kafetegira joan da, eta han neska xarmant eta *sexi* batek zerbitzatu du, lepotik zintzilik urrezko kutuna daraman Sarah-k. Ondoren, elizara heldu da eta han Robertekin topo egin du, egoitzaren ardura duen gaztearekin. Robertek doan izan omen du bizilekua lanaren truk, horrelako tratua egin baitzuen aurreko parrokoarekin; Leonardek ondo deritzo tratuarekin jarraitzeari. Biak eliza barrura sartu dira eta Leonardek zirrara sentitu du aitorlekua ikustean. Robert jatekoa prestatzera joan da; bitartean, Leonardek elizako diru-kutxa zabaldu (hil duen apaizari kendutako konbinazioa erabiliz), eta diru kopuru ederra aurkitu du barruan.

Ordurako, hasi da lanean polizia. Zoroetxeko hilketaren berri izan, eta Mullens eta Lydia detektibeak hara joan dira. Mullensek harriturik begiratu dio doktorearen aurpegia duen iruditxo odoleztatuari, eta zera agindu dio Lydiari: ahal dituen Leonarden aurrekari guztiak aurkitzeko. Geroago, poliziaren egoitzan bildu direnean, Lydiak zer jakin duen kontatu dio Mullensi: Leonard kristau-ikasbidean ikasketak egina dela. Mullens psikiatrikoan hartutako dosierra begiratzen aritu da, eta Leonarden gauzak azaltzen diren argazkia ikusi du: arropak, zapatak eta abar era berezian lotuta daude elkarrekin, soka baten bidez.

Hurrengo goizean, Leonard herriko denda batera joan da. Robert kanpoan geratu da eta hark ezagutzen duen herriko neska bat heldu da, Brenda; neska ilehori liraina da, eta ume batekin etorri da. Brenda Robertekin hizketan ari dela, Jack mutikoa denda barrura sartu da, Leonardekin hitz egiten ari den Alder denda-jabeari gozokia eskatzera. Leonard umeari zuzendu zaio, baina umeak ez dio erantzun, ez omen duelako ezezagunekin hitz egin behar. Leonard kanpora irten da, eta Robertek Brenda aurkeztu dio. Leonardek esan dio ume azkarra daukala; etxeko lanak egiteko pertsona bila dabilela ere esan dio, baina Brendak badu lana.

Brenda herritik kanpoaldera dagoen karabanan bizi da eta taberna batean egiten du lan. Bezperako arratsaldean ezustekoa izan zuen ugazabarekin. Egunero bezala, kamioilariak eta motorzaleak zerbitzatzen ari zen. Bezero batek dantzatzeko eskatu zion —izan ere, bi neska dantzari ari ziren dantzan, taberna bazterrean, arropa gutxirekin— baina Brenda horrelakorik onartzeko prest ez, eta

gogor erantzun zion. Ugazaba ere bertan zen, eta ez zuen begi onez ikusi Brendak bezeroarekin izandako jarrera.

«Apaiz berriak», Leonardek, herrian jarraitu du erosketak egiten eta eliztarrak ezagutzen. Burdina-dendara abiatu da zenbait tresna erostera, eta orri bat eman dio saltzaileari; hurrengo larunbatean elizako elkartekoek egingo duten bileraren berri ematen du orriak. Apaiz-etxera itzuli eta ezagutu berri dituen pertsonen aurpegiak buztinez egiten dihardu Leonardek, xake-taula batean jartzeko.

Heldu da larunbata. Elizako elkartekoek ongietorria egin diote Leonardi; eta igandean apaiz berriak sermoia egin du aitortza zein garrantzitsua den gogoratuz. Jenson andrea etxera itzuli, eta apaizak egindako sermoi ederraren berri eman dio senarrari; eta, bide batez, aitortzera joan beharko lukeela esan dio.

Aitortza egunean, Alder denda-jabea azaldu da lehena. Burutazio lizunak dituela Sarah-rekin esan dio apaizari. Aitortza horrek eragin berezia du Leonardengan, eta Alderrek alde egin duenean gauza bitxia gertatu zaio aitorlekuan: leihatilaren beste aldean ikusi duen geriza batek hitz egin dio, bere barruko ahotsa balitz bezala. Gerizak esan dio «Babiloniako emagaldua» etorri dela herria suntsitzera, Sarah-ri buruz. Bekatura omen darama jendea, eta hauxe agindu dio: herriko jendea harengandik libratzeko. Leonardek korrika alde egin du handik.

Alder dendarako bidean dela, Sarah aurkitu du kalean; autoa hondatu omen zaio eta ez daukala etxera nola joan esan dio Sarah-k. Eramango duela esan dio Alderrek, hala nahi izanez gero. Neskak onartu du proposamena. Alderrek etxe-atariraino eraman du eta neskak etxerako gonbitea egin dio, baso bete ur nahi duen galdetuz; biak barrura abiatu dira. Ez dakigu zer gertatu den, baina geroxeago Alder badoa handik, urduri, ibilgailua hartuta. Une berean, Leonard etorri da Sarah-ren etxera.

Brenda lanera heldu da, beti bezala; zain dauka ugazaba taberna aurrean, eta han ez duela gehiago lanik egingo esan dio. Brenda kexu da, baina ugazabak erantzun dio ez duela bezeroak zaintzen ikasi, behin eta berriro abisatu arren. Apaizaren proposamenaz gogoratu da Brenda, eta eliza aldera abiatu da.

Robert lanak egiten ari da apaiz-etxean eta zarata entzun du. Leihotik begiratu eta Leonard ikusi du nonbaitetik bueltan; sirena entzun du eta kanpora irten da: sutea dago. *Pick up*a hartzera doa eta apaizari galdetu dio zer gertatzen den jakitera joan nahi duen, baina Leonardek ezetz diotso; aitortza-lanetan jarraitu behar omen du. Robert gertakariaren ingurura heldu da eta sheriffak kontatu dio Sarah-ren etxea erre egin dela, eta neska ere kiskalita hil dela.

Elizan Jenson hurbildu da aitorlekura. Luzaroan gordeta izandako bekatu bat kontatu dio apaizari, baina ez dakigu zein. Leonardek aitortu du eta kanpora irten da; Brenda aurkitu du bere zain, lan-proposamena onartzera etorri baita. Hurrengo goizean has daitekeela erantzun dio apaizak, eta diru mordoa aurreratu dio. Agurtu eta bere gelara doa Leonard; xake-taulatik kanpora bota du Sarah-ren iruditxoa.

Jenson etxera itzuli da, Sarah-ren heriotzaren berri izanda. Emazteak esan dio espero zela Sarah-k bukaera hura izatea. Hori entzunda, senarra oihuka hasi zaio, nola izan dezakeen hain sentipen gutxi era horretan hil berri den neskari buruz. Haserre irten da etxetik.

Hurrengo egunean, Brenda lanean hasi da apaiz-etxean, jatekoa prestatzen. Gero, apaizaren gela txukuntzera joan da, eta xake-piezak ikusi ditu; baina Leonard etorri da eta bere bulegoa pribatua dela esan dio; hara ez sartzeko gehiago. Ondoren, Leonardek Roberti eskatu dio jensondarren etxera

eraman dezan *pick-up*ean. Hara helduta, Leonardek autoan itxaroteko esan dio Roberti; atea jotzera doa. Inork ere ez du erantzun. Orduan, Leonard etxearen atzeko aldera joan da, baina ez dakigu zer egin duen han. Eliza aldera itzuli, eta Leonard bere bulegoan dago buztinezko irudi berria egiten, Brendaren Jack semearena, hain zuzen.

Hurrengo egunean, Brenda semearekin joan da Leonarden etxera, arratsaldean zaldien kortara eraman nahi duelako semea. Umeak bere marrazkiak erakutsi dizkio apaizari. «Hau oso ederra da, Jack, ez utzi inori zure dohaina kentzen» esan dio mutikoari. Brenda sukaldean hasi da lanean; mutikoa, berriz, kanpoan ari da jolasten. Leonard sukaldera sartu da, eta Brendari esan dio mutikoak talentua daukala, «jainkoaren dohaina».

Egun horietan, bi detektibeek ikerketarekin jarraitu dute. Lydiak zera jakin du: Leonard egon zen umezurtz-etxeko apaizburua sexu-gehiegikeriengatik salatu zuten bere garaian, epaiak errugabetzat jo bazuen ere. Apaiz hura aurkitu behar du. Elizaren erretiro-etxera joan da eta apaiz hura elkarrizketatu du; sexu-gehiegikerien kontuak aipatu dizkio eta apaizak azkenean aitortu dio: «ume deabrua zen, hementxe ebaki zidan» sabelaldea seinalatuz. Lydiak Mullensi deitu dio eta mezua utzi sakelakoan. Mullensek berak ere mezua utzi dio Lydiari: trenetik botatako gorpua aurkitu dute eta sokatxoz elkarrekin lotutako jantziak ere bai.

Jensondarren etxean senar-emazteek eztabaida gogorra izan dute. Senarrak jakin du emazteak aspalditik ezagutzen zuela bere sekretua: bere bekatu zaharraren fruitu izan zela Sarah. Senarra alde egitekotan da betiko; baina emazteak esan dio badakiela zer gertatu zen aurreko gauean ere, eta urrezko kutuna erakutsi dio. Senarrak ezagutzen du kutun hori, Sarah-rena baitzen. Bere onetik irten da, emazteak hil duela neska uste baitu, eta ito egin du emakumea lepotik oratuta. Zer egin duen konturatu denean, autoa hartu eta eliza aldera joan da, Leonard aitzurka ari den tokira. Emazteak hil duela Sarah esan dio. Baina Leonardek erantzun dio berak eman ziola urrezko kutuna andreari. Jenson harri eta zur geratu da eta, ustekabean, Leonardek aitzurraz kolpatu du; behin eta berriro eman dio. Sasiapaizak Jenson hil du eta albo batera eraman du arrastaka haren gorpua.

Mullens detektibea gorpu-gelan dago; oraindik ez dakite nor den trenbidean hilda aurkitutakoa. Sarah-ren gorpua ere hara eraman dute, eta sheriffak esan dio gorpuarekin batera neskaren jantziak aurkitu dituztela, «elkarri lotuta». Lydiari deitu dio, non dagoen kontatzeko. Mullens Clearheart-era heldu da, eta Sarah-k lan egin zuen kafetegira joan da; zera jakin du: herrira heldu den azkena «apaiz berria» izan dela.

Eliza inguruan, mutikoa lorategian jolasten ari da. Umea ez da konturatu, baina handik hurbil Jensonen burmuinak daude barreiaturik. Amak deitu dio, eta Leonard, Brenda eta umea lapikokoa jaten hasi dira. Mutikoak beste platerkada bat jan dezan nahi du Leonardek «handi eta indartsu hazteko», baina mutikoak ez du gehiago nahi; Leonard oihuka hasi zaio, «Jainkoak eman dion dohainari» eusteko indartsua izan behar omen du. Umea kanpora joan da ihesi, eta Brendak berriz halakorik ez egiteko diotso apaizari. Leonard ez dago pozik, baina gerizak galdetu dio umearen dohaina edonork honda dezan utziko duen.

Brenda umearengana joan da eta, hura lepora altxatzen ari dela, konturatu da zerbait odoltsua dagoela bazterrean. Burezur zati odoleztatua ikusi du. Leonard kanpora atera da deika, eta Brenda ezkutatu egin da umearekin. Leonard lorategira joan da, eta mutikoaren jostailua ikusi du odolezko hondakinetatik hurbil.

Ezkutatuta dauden lekutik, Brenda konturatu da Robert datorrela dendako gauzak hartuta. Brenda oihuka hasi zaio, baina ezertarako betarik izaterako Leonardek aitzurra hartu eta aurpegian jo du Robert. Brenda kotxean sartu da umearekin, baina ezin du martxan jarri, giltzak ahaztu baititu. Leonard joan zaie ingurura, autoaren alde batera, eta Brendak beste aldetik korrika joateko agindu dio umeari. Mutikoa korrika joan, baina orduan Leonardek Brenda harrapatu du, eta lurrera bota, konorterik gabe utziaz; mutikoak hori ikusi duenean, itzuli eta apaizarengana joan da oihuka. Apaizak umea ere harrapatu eta Jensonen autoko maletategian sartu ditu biak.

Handik gutxira Mullens detektibea heldu da eliza ingurura. Etxe barrua eta inguruak miatzen ari zela, burezur hondatua aurkitu du; bat-batean, dilin-dalan hasi da elizako kanpaia. Une horretan jo du Mullensen sakelakoak ere, eta Lydiari kontatu dio aurkitu duela zoroetxeko hiltzailea, Clearhearteko elizan. Elizako kanpaia isildu da eta harantz doa; bidean Robert aurkitu du, zaurituta eta konorterik gabe, baina bizirik. Kanpaia berriz ere jotzen hasi da, baina ez du inor ikusten; kanpandorrera hurbildu eta eskailera igotzen hasi da, esku batez eskailera oratuz eta bestearekin pistolari eutsiz, harik eta Leonardek goitik eskailera mugitu duen arte. Mullens erori egin da, kanpaiaren soka lepoan trabatu eta ito egin da.

Leonardek zaldi-kortara joateko erabakia hartu du, Jensonen kotxea hartu eta ama-semeak maletategian direla. Zaldi-kortara iristean, Leonardek sokaz lotu du Brenda bazter batean, eta mutikoa eskutik hartu ondoren zaldia askatu du.

Iluntzen ari da, eta Lydia eliza aldera iritsi da; bat-batean Robert agertu zaio, aurpegitik odola dariola. Geroxeago, Mullens aurkitu du sokatik eskegita. Kortetara joatea erabaki dute.

Kortan Leonard mutikoarekin dago, zaldiaren alboan. Zaldiak ustekabeko mugimendua egin du eta, ohartu gabe, Leonardi labana erori zaio poltsikotik. Mutikoak hartu egin du, eta sakelean gorde. Hareatzara eraman dute zaldia. Bitartean, Brenda sokatik askatzeko ahaleginean ari da.

Lydia eta Robert kortara heldu direnean barrura sartu dira, eta hareatza erdian Leonard ikusi dute mutikoarekin eta zaldiarekin. «Geldi!» egin dio oihu Lydiak Leonardi. Une horretan, Brenda sokatik askatu da, eta hareatzara jauzi egin du mutikoarengana joateko. Zoritxarrez, Lydiak tiroa bota duenean Brendari eman dio, Leonard jo beharrean. Nahaspilaren erdian, mutikoak labana atera du eta Leonardi sartu dio sabelean. Leonard lurrera erori da.

Jack mutikoa gela batean dago, gizarte-laguntzailearekin. Umezurtz-etxearen kargua duen apaiza dauka aurrean. Apaizak mutikoaren marrazkiak begiratu ditu; goren zaldiaren irudia ikustean, «zein polita!» esan dio mutikoari. Mutikoak erantzun dio: «jainkoaren dohaina daukat-eta».

6.2.3. Antzezleen aukeraketa

Laburtutako gidoi horretan denak azaldu ez arren, guztira 32 antzezle behar ziren filma osatzeko. Horiez gain, filmaketa-lantaldeko zenbaitek edo inguruko herritik etorritako batzuek ere estra jardun zuten egun batzuetan. Antzezleak aukeratzeko, Internet bidezko bi zerbitzu erabili zituen zuzendariak, *Casting network* eta *Now casting*, Los Angelesen eta San Franciscon. Horien bidez, ia 3.000 antzezleren erreferentziak ikusi ahal izan zituen. San Franciscon, astebetean ia 600 lagun aztertu zituen, eta falta zitzaizkionak Los Angelesen bilatu zituen (beste 15 bat ikusi zituen). San Francisco inguruetan, Bay Area izeneko zonaldean filmatu behar zenez, zuzendariak interesa zuen inguru horretan edo oso urrun joan gabe bilatzeko antzezleak, horrela kostua baxuagoa izango baitzen.

6.2.4. Filmaketarako kokapenak

Bost egunetan izan ezik, San Franciscoko badian hegoaldera dagoen herritxo batean egin zen filmaketa. Herri hartako eliza txikia eta eliza ingurua osatzen zuten etxeak erabili ziren gehien, eta filmaketako hainbat tresna ere hantxe gorde ziren. Eliza inguruetatik aparte, herrian zeuden hainbat leku eta eraikin baliatu ziren filmaketan: tren-geltokia, trenbidea, dendak, taberna, herritik hurbil zegoen etxaldea, eta abar.

Horiez gain, Petalumako nekazal-etxe baten ingurua, Oakland-eko trenak gordetzeko eremua, mendialdeko taberna bat, zaldiak hazteko korta bat, eta produkzio-taldearen bulegoa eta biltokia ere erabili ziren.

7. Filmaketa

7.1. Sarrera

Filmaketako lau asteak bi bloketan bana daitezke: lehen zatia hasierako bi aste eta erdiri dagokio (filmaketako lehen 15 egunak); bigarren zatia beste aste eta erdiri (filmaketako azken 9 egunak). Lehen zatiko prozesua hau izan da: hasierako ilusioa galduz doa, arazoak pilatuz, eta lantaldearen egoera zein lan-giroa gaiztotu egin dira. Horren amaieran, bilera orokor baten bidez, produkzioburuek jendea gogo berriz jartzea lortu dute, eta amaitu arte eusteko asmoa sendotu dute.

Banan-banan aztertuko ditugu zati horiek eta, horretarako, egunez eguneko kontakizuna egingo dugu. Egun bakoitzaren hasieran, dagokionean, idazpurua jarriko dugu egun horretan gertatutakoa labur-labur adieraziz. Eta eguneko kontakizuna egin ostean, gehiago landuko dugu idazpuruan jarritakoa, hala behar izanez gero.

7.2. Lehen zatia: arazoak lantaldean

7.2.1. Filmaketa hasi aurreko bilera

Filmaketaren aurreko astean egin zen lantaldearen lehen bilera. Lehen bilera hori antzezleak izan ezik beste guztiak biltzeko saioa izaten da: zuzendaritza-taldeko jendea, produkzioburuak, kamera-taldekideak, soinu-teknikariak, argiztapenaz arduratzen direnak, arte-sailaz arduratzen direnak, makillajekoak, jantzietakoak, eta produkzio-laguntzaile guztiak. Horri esker sortu zuten filmaren arduradunek filmaketaren inguruan giro egokia.

Zuzendariaren hitzaldiak taldean gogoa piztea zuen helburu eta, horretarako, puntu hauek nabarmendu zituen: antzezleen egokitasuna, filmaketako egun batzuen erronka zirraragarriak, ezohiko kokapenen ezaugarriak, eta lantaldean aritzeko «berdintasuna»; alegia, eszenatokian inor ez zela beste inor baino gehiago izango.

Maiatzak 4, osteguna

Produkzioko bilera egiteko abisu bat bidali digute e-postaz, arratsaldeko 7:30ean Oakland ondoan dagoen Alameda izeneko irlako pabilioi batean biltzeko. BART (*Bay Area Rapid Transportation*), San Francisco eta badia inguruetako hiriak lotzen dituen lurpeko trenez Oaklandera abiatu naiz, eta han Alamedarako autobusa hartu dut. Izan ere, itsaspeko bideak lotzen du Oakland hiria irla horrekin. Autobusa pabilioi handi erdi-utziak dauden inguru bakarti baterantz zihoan. Bat-batean, ni iritsi beharreko helbidea irakurri dut pabilioiaren horman, eta hantxe geratzeko eskatu diot gidariari.

Irlaren mendebaldean, lehenago hegazkinak egiten ziren hangar hutsak daude. Orain, eraikin horietako batzuk oso bestelako zereginetarako erabiltzen dira, eta filma ekoizten ari den taldeak horrelako bat dauka hartuta. Pabilioira iritsi naiz esandako ordurako, eta Angela agurtu dut, produkzio-koordinatzailea. Irribarre handiko neska baxu, lodi, beltzarana da. Hogeita bi lagun bildu gara eraikinaren bazter batean, eta hango aulkietan jesarri gara biribilean: tartean jende zuria, txinatarra,

hispano edo mexikar itxurakoa; neska beltz bat ere agertu da. Hiru kide izan ditugu mahaian, aurrez aurre: Anthony zuzendaria, Bob zuzendari laguntzailea eta produkzio-zuzendaria, eta Angela produkzio-koordinatzailea.

Anthonyk eskatu digu banan-banan zutik jarri eta nor garen eta gure asmoak (*aspirations*) zein diren labur esateko. Irakaslea naizela esan diet eta film-analisia irakasten dudala, besteak beste; beraz, asko dakidala teoriaz, baina gutxi praktikaz. Anthonyk buruari eragin dio, baietz, ulertzen duela. Bakoitzak bere helburuak ditu: produkzioan aritzea, film luzean parte hartzea, eta abar; hainbat ikasle ere izan da tartean, eta benetako filmaketaren esperientzia izan nahi dute haiek. Argiztatzaileen burua (*gaffer*ra) zutitu denean, ordea, «nik ez daukat *aspiration*ik» esan du, eta jendeak harriduraz begiratu dio; zuzendariak hitz joko bat egin du (ez diot ulertu).

Anthonyk filmaren nondik norakoak aipatu dizkigu, eta haren ustez antzezleak, lekuak, eta filmaketa-egun zailenak zein izango diren azaldu digu. Bakoitza bere postuan aritu arren, denok berdinak garela aipatu digu. Bai zuzendariak bai Bob produkzio-zuzendariak giro gogotsua sortu dute bileran. Ondoren, talde txikiagotan banatu gara, pizza zati bana hartuta.

Jendea itxaropenez irten zen bilera hartatik. Baina lehen egunean bertan izan ziren arazoak.

7.2.2. Lehen eguna

Maiatzak 8, astelehena

Goizaldeko bost eta erdietan altxatu, eta Folsom Street-etik abiatu naiz; Paul kamera-laguntzailearekin nuen hitzordua, haren autoan joan ahal izateko, *carpool* eginez (kotxe partekatua), zortzi dolar ordainduta. Paulen etxe aurrean zain egon da Raymond ikaslea, ni bezala produkzio-laguntzaile izena emandakoa hura ere. Aitona poloniarra zuen, baina ama japoniarra du, eta ondo nabari zaio hori aurpegieran. San Franciscoko *Art School*en ari da ikasten, eta Coca Colak publizitaterako ateratako txamarrarekin ibiltzen da, *John Smith* itxurako zapatila berde hautsiak jantzita. Jendeak esan izan dio bere txamarra *cool* dela, «itzela»; eta orain dela egun batzuk *San Francisco Examiner* egunkariko komikian irakurri nuen *Art School*eko ikasleek erabiltzen dituztela zapatilarik *cool*enak. Bitxia da zein erruz erabiltzen duten *cool* hitza. Nik esaten diet dena dela *cool*, antza. «Dena ez», erantzuten didate.

Etxetik atera dira Paul eta Rosanne neskalaguna, hura ere produkzioan baitago, jantzien arduradun; sei lagunentzako monobolumen batean sartu gara. Van Ness kalean aurrera joanda merkataritza-gune txiki batean geratu gara, kartoizko edalontzi luzean kafea hartzeko. Ondoren, San Franciscotik irten, *Golden Gate* zubia pasatu eta, iparralderantz, Petaluma herrira heldu gara ordubeteko bidean, San Rafael eta Novato herriak igarota.

Auzo bidetik jarraitu eta, zelai berdeen erdian, etxe sakabanatuak zeuden eremu batean amaitu dugu, nekazal giroko etxaldean. Etxe nagusia solairu bakarreko bizitokia zen eta, harez gain, egurrezko eraikin batzuk ere bazeuden inguruetan; autoarekin ibiltzeko karabana bat ere bai, hortxe hasi behar izan baitugu eszenak filmatzen. Filmeko protagonistetako bat, Brenda, eta haren umea bizi ziren karabana da hura; Nadine ere etorri da, filmean ume-zaintzailearena egiten duen emakume beltza.

Argitzen ari zuen heldu garenean eta, autotik irten baino lehen, Bob produkzio-zuzendaria etorri eta lehen aginduak ematen hasi zait, argindar kablea luzatuz: «Begira ezazu entxuferik dagoen hor

nonbait, eta jarri indarra Marcelori (sukaldariari) eta Davini (makillajekoari)». «Hemen ez dago denborarik jolaserako» pentsatu dut neure artean, eta lanean hasi naiz Marceloren tokia martxan jartzeko. Marcelok *pick up* handia dauka, eta haren atzetik sukaldea atoia zabalean; bi aldeetan hauxe irakur daiteke: *Marcelo's kitchen on wheels* («Marceloren gurpil gaineko sukaldea»).

Marceloren atoian zerbait egiten saiatu naiz, baina sukaldariak ezadostasun keinuak egiten zituen —egia esan, ezin zen sartu entxufea berak esandako lekuan, ez baitzegoen lekurik hozkailuaren atzean—; Bob etorri da eta egurrezko eraikinaren atzera eraman nau, zementuzko lurzorura. Kanpatzeko denda handi bat ekarri du eta jartzeko agindu dit. Antzezleek leku bat behar zuten jantziak janzteko eta eranzteko. Zera pentsatu dut: «zorionez, badakit traste honek nola funtzionatzen duen, gutxi gorabehera», eta gauzak zorrotik atera eta jartzen hasi naiz. Dendaren lehen haga luzea oihalaren barruko zirkilutik sartuta neukanean Raymond etorri da, eta bion artean oso azkar altxatu dugu oihala. Bob zuzendariarekin itzuli denerako denda zutik zegoen, eta harrituta geratu dira biak, hain azkar egin dugulako. Bobek esan digu orduan: «denda-mutil izendatzen zaituztet, hau zuen zeregina izango da egunero».

Lehen antzezlea heldu da, Nadineren papera egiten duen emakume beltza, eta hura dendaraino gidatzeko agindu didate. Geroago etorri dira Brendaren papera duena, neska ilehori baxu polita, eta 8 urte inguruko mutikoa, Jacken rola egiten duena. Karabana barruan filmatu dira lehen eszenak, argi fluoreszenteak jarrita. Bob ez zebilen txantxetan; une batean, norbaiti kostatu egin zaio lekura heltzea eta Bobek zera esan du: «makillajea deitzen badut, makillajekoak *fucking* hantxe egon behar du; *prop*a deitzen badut, *prop*ak *fucking* hantxe egon behar du; eta argi-arduraduna deitzen badut, hark ere *fucking* hantxe egon behar du». Hala ere, Boben zakar itxurako aginduek ez dutela azpi-azpiko tonu maltzurra guztiz estaltzen iruditu zait. Borroka askotan ipurdia erretako morroia dela ematen du; beltzez jantzita ibiltzen da, betaurrekoekin, zigarreta ahoan eta kafea eskuan.

Kamera birekin ari dira, printzipala eta osagarria; azken horrek garrantzi gutxiagoko planoak jasotzen ditu beste angelu batetik. Mark argazki-zuzendaria ibiltzen da kamera printzipalarekin, eta Thomas bestearekin. Julie ibili da *script* edo gidoi-ikuskatzaile lanetan.

Eszenak filmatzeko plana, gutxi gorabehera, honelakoa da: lehen plano orokorra edo «masterra» egin, ekintza guztia jasoz, eta gero tartekatzekoak grabatu bi aldeetatik; ondoren, angelu hurbilagoak, plano itxiagoak, eta giro-soinua hartzeko isiluneak.

Eszena horien ostean luncha izan dugu. Benetan gose izan naiz eta espagetiak irentsi egin ditut, okela-bola eta gainerako guztiekin.

Ondoren, karabana inguruko eszenak egiten jarraitu dugu. Bi emakumeak karabanatik kanpora atera behar ziren, eta han hurbilean aulkietan jesarri. Fred mikrofono-eramaileak mikroaren makilarekin jarraitu behar izan die, eta oinekin zaratarik ez egiteko mantak jarri dizkiote lurrean. Hauek izan dira eszenak: emakumea umearekin karabana aurrean, kontutxoak esanez; amak kontatu dio apaizaren etxera joan behar duela lan egitera, eta umeak erantzun dio: «ama, ez arduratu, nik babestuko zaitut». Oso ondo jardun dute. Mutikoa ilehoria da, begi argi handikoa; bere benetako ama ere han egon da, eta maisua ere badu, une libreetan eskolako zenbait gauza ikasi ahal izateko. Askotan, Anthony zuzendariak *beautiful! [ederra!]* esanez amaitzen zuen. Anthony barre zalapartatsuak egiten dituen betaurrekodun eta kepidun morroskoa da. Despistatu itxura du, baina hark ondo kontrolatzen du dena.

Arratsaldea aurrera joan da; bidean autoa nola zetorren filmatu dugu, barruan ama-semeak zirela. Mark argazki-zuzendariaren ibilgailu beltza erabili dute horretarako, horrela egiten baitira film merkeak. Batzuetan eszenen plangintza aldatu egin dute, sinpleago bihurtuz: autoa heldu eta geratzean filmatzeko *dolly*a erabiltzea pentsatuta zeukaten —erraila k lurrean jarri eta, kamera haien gaineko gurditxoan ipinita, mugimenduan grabatu—; baina bide-zorua ez zen laua eta ezin hori egin; horren ordez, tripode gaineko plano estatikoa egin dugu.

Beste eszenak: Brenda Nadinerekin zegoen, biak karabana aurrean jesarrita, elizari eta apaizari buruz hizketan; bi emakumeen inguruan umea ibili da korrika; azkenean, bien erdian geratu eta marrazkiak erakutsi dizkie. Sail artistikoaren buruak, Lorena *prop*ak, etxetik ekarritako traste ugari zegoen, eszenatokiaren osagai izateko: plastikozko zaldi handia, hiru gurpileko bizikleta, eta superheroiaren panpina zaharkitua; ustez, umeak marraztutako zaldia ere Lorenak egin du. Badirudi zaldia motibo garrantzizkoa izango dela filmean. Azken altxaerak berriz ere karabana barruan egin dira, ilundu arte.

Egunean zehar, Raymond eta biok bidea zaintzen ibili behar izan dugu hainbat aldiz, filmatzen ari zirenean etorritako autoak geratzeko, eta jendeari isilik egoteko eskatuz. Prozesua hau izan da: Bobek dio, *picture's up [prest]*; Philip soinu-arduradunak dio, *speeding,[soinu grabagailua martxan]*; kamerak dio *rolling,[kamera grabatzen]*; kamera-laguntzaileak klaketa itxi du «eszena, planoa eta altxaera» esanda; eta orduan heldu da zuzendariaren unea, *action* agintzeko. *Rolling* oihukatzen dutenean, han ibili behar dugu *quiet, please [isilik, mesedez]* esanez. Abel *production consultant* funtzioa duen antzezle adinekoa ere arduraz ibili da jendea isilarazten. Hauxe esan zigun Anthony zuzendariak lehen eguneko bileran: «Abelek asko daki; edozein arazo baduzue, hari galde diezaiokezue».

Dena jaso eta tolestu (*wrap*) behar izan dugu, filmaketa-lekua atzean uzteko. Jendeak alde egin du, baina produkziokoek eta laguntzaileek han jarraitu behar izan dugu, gauzak biltzen. Guztia *u-haul* alokatze-konpainiaren atoiara eraman dugu: aparatu elektriko guztiak eta produkzioko tresnak —mahaiak, aulki tolesgarriak, denda eta, azkenean, zarama-poltsa ugari ere bai—. Lehen unean, lurjabearen etxe aurreko kontainerraren inguruan pilatu ditugu zabor-poltsak; baina lurjabea ez zegoen ados —haiei begira susmatu dut gizona— eta Catherine produkzio-laguntzailea etorri zaigu zorroak handik kentzeko eta atoiara eramateko eskatuz. Bederatziak jota ziren handik irten garenerako; beraz, 14 ordu baino gehiago aritu gara lanean.

San Franciscorako bidean gentozen, Petaluma atzean utzita, hura gertatu denean. Ametsetako irudi moduan gogoratzen dut: *u-haul*a atoian zeraman *pick up*a 200 bat metro aurrerago zetorren eta bistatik galduta genuen ordurako. Halako batean, ibilgailu bat ikusi dugu kontrolik gabeko mugimendu dardartsuak egiten, eta hark zeraman atoia laprastadan zebilen eskuineko bidetik erdikora; bat-batean, *pick up*a irauli egin da, eta hirutik bi errei oztopatu ditu: «*My god*, haiek dira», esan du Paul gure gidariak. Haien atzean geratu gara: norbait atea zabaltzen hasi da gorantz (alboz iraulita baitzegoen autoa); Max argi-arduraduna zen eta, zorionez, barrukoei ez zaiela ezer ere gertatu jakin dugu. Bide-seinalerik bazeukan galdetu diot Pauli, Europako legeen antzekoak izango direla pentsatuz; baietz esan dit, baina autoaren atzetik argi gorria egiteko suzko ziriak atera ditu, bide-seinaleen ordez. Zoritxarrez, ez genekien nola pizten ziren ere. Atzerago geratutako ibilgailu batetik gidaria etorri da; hark bazekien tutu haren burua igurtzi behar zela lurrean, pospolo handi bat balitz bezala; horrela egin du eta, bidearen lurzoruan jarrita, argi gorrixka ematen hasi da.

Hamar minutu geroago etorri dira poliziak, eta istripuan nor zeuden tartean galdetzen hasi dira. Paulek erantzun die istripukoen lankideak ginela, eta geure auto barrura sartzeko agindu digute.

Ondoren, suhiltzaileak heldu dira. Denak ziren 120 kiloko morroskoak, suhiltzaileak poliziak baino are sendoagoak. Ordu erdi inguru egon gara bertan; ikusi dugu poliziaren eta suhiltzaileen artean *pick up*a nola zutitzen zuten eskuz, eta atoia ere nola eraman duten arrastaka albora, bidea libratuz.

Ez dakit zer ondorio izango duen istripuak filmaketan. Zirrara handia eragin digu autoan gentozen guztioi, eta Paulek esan du holako ezbehar batek pikutara bota dezakeela proiektu osoa. Ez dakigu bihar zer gertatuko den; San Franciscora heldu garenean hala esan diot Pauli: «bihar joan behar badugu, deitu». Baietz erantzun dit.

Lanegun luze haren ostean gertatutako istripuak eragin handia izan zuen gure gogoan. Ekoizpen hura oker hasi ote zen irudipena zabaldu zen; auto hartan gentozenok ekoizpen osoaren etorkizuna ere zalantzan zegoela uste genuen.

7.2.3. Bigarren eguna

Lehen egunaren amaierako istripuak gauzak nahasi egin zituen. Bigarren egunean lantaldeko batzuk ez ziren lanera joan, filmaketak etena izan zuela pentsatuz.

Maiatzak 9, asteartea

Inork ere ez dit deitu, eta atzoko istripuaren ostean gaur etenaldia egingo zutela pentsatu dut. Angela produkzio-koordinatzaileari deitu diot, eta ez dit gauza handirik argitu. Bihar harekin joateko hitzordua jarri dit, haren etxean, goizaldeko 5:30ean. Eman didan helbidea San Francisco hegoaldeko gainaldeetan dago, eta arazoa izango dut hara garaiz heltzeko; ordu horretan martxan hasi gabe egoten dira udal-autobusak edo *muni*ak eta, beraz, taxiz joatea erabaki dut. Goizaldeko 5etarako agindu diot gidariari ostatura etortzeko.

Egun hartan, filmaketaren antolaketak ez zuela batere funtzionatzen iruditu zitzaidan.

7.2.4. Hirugarren eguna

Bezperan Angelarekin geratu nintzen haren autoan joateko, eta sorpresa handia hartu nuen harekin elkartzean. Ordurako, produkziotik kanpora zegoen Angela.

Maiatzak 10, asteazkena

Agindu bezala, 5etarako heldu da taxia. Gidariak ez zuen ezagutzen Angela bizi den kalea, baina azkar heldu gara. Bostak eta laurden edo ziren, eta itxaron egin dut, *San Francisco Examiner* etxez etxe doan banatzen duten egunkaria irakurriz farolaren argipean. Heldu dira bost eta erdiak, baina etxe hartan ez zen mugimendurik. Pasatu dira bost minutu, baina inor ez da jaitsi, ez irten, ezta argirik piztu ere barruan; eta tinbrea jotzea erabaki dut. Ez da inor irten eta berriro jo dut. Halako batean, mutil argal beltzaran batek zabaldu du atea. «Angela?» galdetu diot, eta etxe barrurantz egin du deia. Atera da Angela, eta berak ez duela produkzioan jarraitzen esan dit. Galdua zeukan lehen eguneko irribarrea. Harri eta zur eginda, harritu egin naiz inork ez deitu izanagatik. Gauza bitxiak ari direla gertatzen produkzioan pentsatu dut. Ez dit esan filmaketak jarraitzen zuen ala ez; ez dugu hitz gehiagorik egin, eta ostatura bueltatu naiz. Geroago, Bobi deitzea bururatu zait. Are harrituago geratu naiz filmatzen ari zirela entzun dudanean, eta Fremont-era joateko esan dit, badiaren hegoalderantz dagoen hirira,

trenez San Franciscotik ordubetera; han Louise izeneko neska beltzak jasoko omen nau autoz. Horixe egin dut.

Louisek Sunol-era eraman nau, Fremontetik milia batzuetara dagoen herritxora. Bidea mendi artetik igaro da, zuhaizpean, Euskal Herriko mendialdeetako bidea bailitzan, inguru lehorragoa izan arren. Hara helduta, erreka ondoan eta zuhaitz handien artean dagoen egurrezko eliza txiki baten ingurura joan gara. «Elizatxo iluna» (*little brown church*) du izena. Esan diot Bobi zer gertatu zaidan, eta ez arduratzeko erantzun dit, hasteko lanean.

24 lagun aritu gara, antzezleak barne, eta Brenda eta Jackez aparte beste bi antzezle ezagutu ditut: Leonarden papera duena, filmeko protagonista, eta Roberten rolean ari dena.

Eszenak: Brenda eta Robert sukaldean; Leonard, Robert eta Brenda eliza aurrean; Brenda eta umea eliza ondoan. Umearekin beste eszena aipagarri bat egin behar izan da. Abade-etxearen aurreko bidexkan, odolez beteriko burezur zatia jarri dute, Davin makillaje-arduradunak landutakoa (izan ere, morroi hori espezialista omen da hainbat jardun artistikotan). Burezurrera artean, atrezzoko haragi zatiak lerrokatu dituzte bidexka alboan. Eta umeak, superheroiaren panpina hartuta, zati odoltsua zapaldu behar zuen, eta zapatilan itsatsita eraman etxerantz. Ate aurrean erori zaio zati bat, halabeharrez, eta Anthony pozik zegoen gertatutakoarekin; inoiz, filmaketako ekintzak uste baino hobeto ere ateratzen baitira.

Konturatu naiz argi-teknikariek *u-haul* enpresaren ibilgailu berria dutela, garraiorako kamioneta bat.

Marcelo elizatik 200 metrora dagoen zabalgunean egon da, eta hantxe bazkaldu dugu. Luncharen ostean Marcelori lagundu diot, mahaia eta aulkiak batzen, *pick-up*ean gauzak jartzen, eta agindu didan guztia egiten.

Egun eguzkitsua izan da, eta bero egin du. Altxaerak eliza aurrean egin behar ziren; tarteka auto batzuk igarotzen ziren hango errepidetik eta, soinua ondo jaso ezin zenez, errepikatu egin behar izan dira planoak. Ibilgailuen zarata ez zenean, zeruan bueltaka zebiltzan aeroplanoena izan da. Horrek luzatu egin digu lana.

Leonarden papera duen antzezlea hurbildu zait une batean eta esan dit emaztea Malagakoa duela. Tipo jatorra ematen du eta, bitxia bada ere, Antonio Banderasen airea hartu diot.

Iluntzean jende guztia etxera joan da, lehenbailehen. Fred mikrofono-eramailea eta biok ia bertan utzi gaituzte konturatu gabe, inor ez baita arduratu gutaz. *Unbelievable [sinestezina]* zioen Fredek. Egia esan, nahikoa sinesgaitza zen hango antolamendu gabezia. Azkenean, Abelek eraman gaitu Bart geltokira.

Atzo filmaketarik ez zela egin uste banuen ere, jakin dut nola edo hala ekin ziotela lanari. Ezin izan dut jakin zer gertatu den Angelarekin.

Geroago, Bobek kontatuko zidan zer gertatu zen neska horrekin, azken astean egin nion elkarrizketan. Ez zegozkion erabakiak hartzen ari omen zen:

BOB. «Oso haserre jarri zituen produktoreak. Erabakiak hartzen ari zen, bere kontura. Neronek ere, produkzio-zuzendaria izanda, ez nuen erabakirik hartzen; goragoko jendeak hartutako erabakiak betearazten nituen. Baina neska hura benetako erabakiak hartzen ari zen. *Screen Actors Guilt*era deitzen duzunean —zinemako antzezleak biltzen dituen *union* edo sindikatura— oso kontuz ibili behar duzu; antzezleak prest egon daitezke produkzioaren mesedetan tarte gris bat uzteko, baina, arauak

estu jarraituz, antzezleak 30 milia baino gehiago egiten baditu, produktoreek ordaindu egin behar diote. Kasu horretan, gure antzezleei ez zien ardura zenbait gauzak, filma gustatu egiten baitzitzaien. Baziren Santa Cruzetik etorri behar zuten antzezleak, filmean ari den umea eta ama, esaterako; Angelari zer edo zer esan zioten, eta Angelak niri galdetu beharrean (eta nik Bertari), *Screen Actors Guilt*era hots egin zuen, zera galdetuz: «Film honen produkziotik deitzen dizut; antzezle hauek bide hau egiten dute, eta aparteko dirurik jaso behar ote dute?». Eta egunaren amaieran, *pick up*a irauli zenean, jendeari deitu zion eta esan: «geratu etxean, ez gara lanean arituko». Edozer gauza pentsatuta ere, hura ez zen bere kontua. Telebistako ikuskizun bat produzitzen aritua zen, mutil-lagunarekin, eta produktorea zela pentsatuko zuen…».

Hori izan zen, beraz, Angela kanpora botatzearen arrazoia. Lantaldeari begira, hauxe eman zen aditzera: hura ez zela txantxetarako lekua. Bakoitzak zegokion eginkizuna egoki betetzen zuen, edo inork ez zuen haren errukirik hartuko. Hura ez zen lagunen arteko filmaketa dibertigarri bat.

7.2.5. Laugarren eguna

Langileen arteko tentsioen esperientzia pertsonala.

Maiatzak 11, osteguna

6:30ean geratu naiz Paulekin kotxez Sunolera joateko.

Eszenak: eliza sarreran, Robert loreak zaintzen eta Leonard harekin hitz egiten; sukaldean, Brenda umearekin eta Leonardekin hizketan; hirurak jangelan bazkaltzen.

Leonardek eta Brendak sukaldean antzeztu duten eszenak bazuen morboa: emakumea azenarioa ebakitzen ari zen, eta Leonardek hobeto nola ebaki adierazi behar zion. Horretarako, emakumearen atzealdean jarri da, aiztoa zuen eskutik heldu eta eskua gidatu dio Brendari, azenarioa zatitxoetan ebakitzeko. Hala ere, jangelako eszena izan da harrigarriena; Leonardek oihuka hitz egin dio umeari: «lapikokoa jan behar duzu indartsua izateko!». Bere onetik irtenda, lurrera bota du katilua. Umea ihesi zihoan kanpora, eta Brenda haserre jarri da Leonardekin. Leonardek hain serioski hartu du jarduna, aluminiozko lapikoari albo bat mailatu baitio, emandako kolpeaz.

Ordu luzeetan bero handia egin du, eta gogorra gertatu da lan egiteko.

Luncharen ostean Marcelorengana joan naiz inork ezer agindu gabe, baina gehiago halakorik ez egiteko gogoz geratu naiz: gizon hark ez nauela aintzat hartzen sentitu dut; nire ingelesa oso ona ez denez, batzuetan ez ditut gauzak ondo ulertzen aginduak era egokian betetzeko, eta uneren batean ahotsa altxatu dit. Pentsatzen aritu naiz horrelakorik ez dela berriro gertatuko; hurrengoan, zer edo zer erantzun beharko diot morroi horri. Seguru asko tipoa nahiko estu ibiliko da lanarekin, baina ez nago horrelako zaratarik entzuteko prest.

Bihar Alamedako irlara joan behar dugu, eta autoan inorekin joaterik ez daukadanez, Bart-a hartu beharko dut.

Egun hartan nahiko haserre amaitu nuen. Konturatu nintzen zer esan nahi duen aintzakotzat hartu gabe agindupean aritzeak. Hala ere, arruntagoa izan daiteke jendeari itxuraz ordaintzen zaion film batean horrelakoak gertatzea; baina bitxia zen *ultra low budget*eko

filmaketan horrela ibiltzea. Filmaketa haren «filosofia» ez zen lagunarteko proiektu batena bezalakoa. Hango antolaketak jokabide «profesionala» eskatzen zuen. Eta hortxe zeukan dilema nagusia produkzioak: nola eskatu jendeari era profesionalean aritzeko, ordainsaria hain txikia izanda?

Kasu honetan, aipagarria da hizkuntzaren erabilerarekin lotutako beste fenomeno bat ere. Hirugarren astearen amaieran jakin nuen, harriduraz, Marcelok gaztelaniaz eta italieraz ere egiten zuela. Emaztea Salvadorrekoa zuen. Zergatik ez ote zizkidan esaldi batzuk gaztelaniaz egiten? Horixe gertatzen da; jendeak ez du erabili nahi ingelesa ez den hizkuntzarik. Jatorrizko hizkuntza erabili beharrean ingelesez egiten du, gainerako hizkuntzak erabiltzeko lotsaz eta hori eginez gero gutxietsia izan litekeen beldurrez. Izan ere, hizkuntzaren soziologiak behin baino gehiagotan aztertu du edozein kultura gutxietsita dagoen tokian jendea bere ezaugarriak ezkutatzen saiatzen dela, besteen parean jartzeko asmoz. Jendeak lotsa senti dezake bere jatorrizko taldearen hizkuntza erabiltzerakoan, talde horren zenbait ezaugarri mespretxatu egiten dituelako.[12]

7.2.6. Bosgarren eguna

Nola egiten ote dira filmaketa «independenteak»? Besteak beste, ahal den baimen gutxienekin arituta, horrek garestitu egiten dituelako gauzak. Baina, horrek arazoak ere ekar ditzake.

> Maiatzak 12, ostirala
>
> 6:15ean hartu dut Bart-a, garaiz; baina okerreko geltokian geratu naiz Oaklanden. Kalera irten eta ez dut ezer ezagutu; minutu parea igaro eta konturatu naiz hura ez zela lekua eta, orduan, berriz ere Bart-a hartu dut atzeranzko bidea egiteko.
>
> Oraingoan bai. Alamedarako autobusa hartu eta Central Street-en jaitsi naiz; oinez joan naiz Ballena bulebarrean zehar, berandu zela pentsatuz. Halako batean, *Trooper*ra, 4 x 4 ibilgailua geratu da nire ondoan: Berta zen, produktore exekutiboa, kepiarekin ibiltzen den emakumea, zuzendariaren bizikidea. «Hau zortea!» esan diot, eta barre egin du. Kontatu dit, atzo, Leonardek eszena hura oihuka egin eta gero, umeak negarrez amaitu zuela. Eta oraindik beste hainbat eszena egin behar omen ditu. Ulertu diodanez, zuzendaria prest zegoen eszena hura umerik gabe egiteko, baina haurraren ama tematu omen zen haurra hantxe egon zedin.
>
> Berehala heldu gara bilgunera, *Ballena Point* izeneko muturrera; aparkaleku zabala da eta bista ederrak ditu San Franciscoko badiara. Anthony eta Abel bakarrik zeuden han; Marcelo sukaldaria heldu gabe zegoen artean, bidean nahastu zelako-edo. Apurka, denak azaldu dira. Gosaldu ondoren —arrautzak, saltxitxak, baina kaferik ez— filmaketa-lekura abiatu gara, Oaklandeko *Amtrak* (*American Track*) trenen eremura. Tren-parkean hiru bagoiko tren bat zegoen, eta jangela eta gela pribatuak zituen bagoia prestatzen hasi gara. Atean, eskuz idatzitako papera itsatsi dute: «plato beroa, ez sartu lanerako ez bada» (*hot set*). Raymondi eta bioi bagoiko zenbait leihotan kanpotik plastiko beltza jartzeko agindu digute. Aurrenez, plastiko bana jarri diegu, eta gainetik beste bana ere jartzeko esan digute, artean argitasuna nabaritzen zela-eta.

Bi antzezle ibili dira. Benetako apaizarena egiten zuena eta Leonard.

Eszenak: bagoi sarreran, sasiapaiza benetako apaizaren gorpua kanpora botatzen; benetako apaiza sarrerako zoruan, mahukarik gabeko kamiseta zuriz jantzia, eta Leonard hura arrastaka kanpora ateratzen.

Plano hori filmatzeko kamera behetik gora zegoen, kontrapikatu gogorra eginez. Trena martxan zegoela ulertu behar ote zen? Kontua da, une batez, Leonardi aurpegira kartoiarekin haizea egiteko ahaleginetan aritu garela.

Orduan etorri da gizon betoker hura. Hango arduradunetako bat zirudien, edo jaberen bat. Produkziokoek zerbait esan diote eta joan egin da. Baina minutu gutxiren buruan, morroi bera poliziarekin bueltatu da. Berehala, Anthonyk esan digu handik alde egin behar genuela. Fred mikrofono-mutilak kontatu didanez, taldeak hitzartua zuen trenaren arduradunarekin hura nola erabili. Baina azkeneko bagoiaren jabea beste bat zen eta, han barruan filmatzen ari ginela jakin duenean, oso haserre jarri da.

*Ballena Point*era itzuli gara, eta han izan dugu luncha. Bobek esan digu Abeli eta bioi: «Zuek hartuko duzue luncha lehenengo, lana baitaukazue SFn». Eta SFra (San Franciscora; hemengoek dena sigla bihurtzeko seta baitaukate) etorri naiz Abelekin, *Expedition* 4 x 4 ibilgailu handian —semeak utzi omen dio—. Pazientzia gutxiz gidatu du *Bay Bridge*rantz —badia gurutzatzeko zubi luzea, erdian irla baten barrutik igarotzen dena—, astiroago zetozen autoen atzetik gaizki esaka; gertatutako guztiarengatik izango zela uste dut. Lorena atrezzokoaren etxera joan gara, O'Farrel Street-era. Heldu garenean, deitu egin dio Abelek Lorenari, eta itxuraz hark ez zekien ezer egin beharrekoaz. Elizako aitorlekua egiteko piezen bila gentozen, eta Lorenak erdi-prestatuta baino ez zituen osagaiak.

Igo naiz igogailuan Lorena bizi den laugarren pisura, trasteak jaitsi, eta 4 x 4 ibilgailuan sartu ditut. Lorena kezkatuta zegoen zer egin katuarekin, eta bainugelan giltzaperatu du. Ni SFn geratu naiz, eta Lorena Abelekin joan da 4 x 4 ibilgailuan.

Egun hartako gorabeherak aurretiaz antolaketa era egokian egin ez izanaren ondorio izan ziren. Egoera horri Bobek «aurreprodukzio eza» esaten zion. Hainbat gauza ez ziren behar bezala prestatu aurrez; adibidez, ez zeuden beharrezko hitzarmenak eginda edo paperak sinatuta filmaketa-eremuetako arduradunekin. Bobekin elkarrizketa egin nuenean, halako arazoez mintzatu ginen:

SANTI. Nola hobetu zitekeen produkzioa?

BOB. Aurreprodukzioan denbora gehiago erabiliz. Esaterako, non filmatu behar dugu? Gauzak *nuts and bolts [torlojuak eta azkoinak]* dira; non izango da gosaria? eta abar; gauza sinpleak.

Asko erabiltzen dute esaera hori, produkzioa *nuts and bolts* dela, elementu guztiak elkarrekin doitzea, akoplatzea, lotzea. Niri iruditzen zait, hala ere, oso zaila dela holako film baten aurreprodukzioan gauzak hain ondo prestatzeko aukera izatea. Horretan ekin nion Bobi:

SANTI. Baina, ezinezkoa da denbora zehatzarekin funtzionatzea filmaketan.

BOB. Hori ez da egia. Guztia planifika daiteke. Eguraldia, elurra, euria, haizea, den-dena. Horixe da morroi handiek egiten dutena. Nik benetan aurreprodukzioan sinesten dut. 35 mm-ko eskola zaharrekoa naiz, eta orduan askoz ere denbora gehiago behar izaten genuen prestaketan. Orain

jendeak uste du kamera hartu eta filma dezakeela, besterik gabe. Egin, egin dezakete, baina kalitatea askoz ere pobreagoa da.

Egun hartako filmaketaren beste misterio bat: nola lortu trena martxan joatearen efektua, benetan geldi zegoela; geroago jakin nuen post-produkzioan egin beharrekoa zela, efektu bereziak erabiliz.

7.2.7. Seigarren eguna

Aurreprodukzio kaskarraren eragina nabarituko da oraingoan ere, jateko lekuari dagokionez.

Maiatzak 13, larunbata

Sunolen izan da gaurko filmaketa. Bart-a hartu eta Philip aurkitu dut bide erdian, irlandar ilegorria, eta filmaketei buruzko zenbait gauza interesgarri kontatu dizkit. Aurrekontu «ultra baxuko» filmean lan egitea ez dagoela hain gaizki zioen; berak «aurrekonturik gabeko» filmean ere parte hartu zuela SFn, pertsona partikularren etxeetan egindako batean, eta asko ikasi zuela. Film honetan 100 $ ordaintzen dizkiote eguneko; Mark kameralariak 150 inguru jasoko dituela uste du, kamera ere hark jartzen baitu. Zera zioen, Hollywoodeko film batean egongo balitz eguneko 800 $ inguru ordainduko lioketela. Philipentzat horrelako lanak produkzio handietara hurbiltzeko bidea dira. «Baldintza kaskarretan lana ondo egiteko gai bazara, produkzio handietan ere gai izango zarela erakusten duzu», zioen.

Fremonten Heatherrekin bildu gara, Paul falta denean kamera-laguntzaile aritzen den neskarekin, eta Abeli itxaron diogu haren autoan joateko. Fred mikrofono-eramailea ere geltokira heltzekoa zen, baina Philipi deitu dio, lo geratu dela eta geroago etorriko dela esanez.

Eszenak: eliza barruan, Leonard sermoia egiten eliztarren aurrean.

Fred heldu arte Philipek lan gehiago izan du soinua jasotzeko. Gainera, une batez, errekaren beste aldean norbaitek *country* musika jarri du bozgorailu batetik. Philipen kexuak entzunda —hala ezin omen zen ezer grabatu—, Anthony joan da tresna itzaltzeko eskatzera, mesedez, eta kasu egin diote, musika isildu baita.

Eguerdia baino lehen herriko hogei estra inguru heldu dira, haietako asko gazteak eta neska-mutikoak, eliztar moduan aritzeko. Jaten eman behar zitzaien, eta Marcelok lunch berezia prestatu du. Baina, hara non, orain arte bazkaltzeko egunero erabili dugun aparkalekua utzi egin behar izan dugu, okupatu egin digutelako, jende pila etorri baita ardo-dastaketaren ekitaldi batera. Hori dela-eta, txinatar jatorriko Justin produkzio-laguntzaileak eta biok Marcelori lagundu behar izan diogu, «gurpil gaineko sukaldea» beste leku batera eramaten. Janaria eliza ondora garraiatu behar izan da, eta inprobisazioa nagusitu da.

Arratsalde osoa mezaren grabaketak hartu du. Leonard sermoia egiten, eta estrak, tartean neu ere bai, hari entzuten. Sermoiaren azkenean Leonardek «amen» zioen, baina inork ere ez zuen erantzun behar. Erantzuteko eskatuz gero, aktoretzat hartuko gintuzten. Antzezleen sindikatuaren arauak aintzat hartuta, hitz bat esaten duzunean antzezle bilakatzen zara, eta horren arabera ordaindu egin behar zaizu.

Goiz eta arratsalde osoan, *prop*ak aitorlekua eraikitzen aritu dira. Piezak aldi baterako elkarrekin kokatu dituzte, sendo jartzen ibili gabe; izan ere, atrezzoko lan horietan garrantzizkoena eskaintzen

den irudia da, ez benetan gauzak nola eginda dauden. Baina horrek ere ekartzen ditu arazoak: egunaren amaieran abade-etxearen atzeko aldera eraman behar izan dugu aitorlekua, eta zatiak apurtu zaizkio.

Egunaren azken aldera Berta txekeak banatzen ibili da, eta 125 dolarreko txekea eman dit, gastuen truke. Bob ondoan zegoen eta, maltzur, esan dit doan lan egiteko prest eskaini nuela neure burua e-posta batean. Baietz esan diot, egia zela, baina hala ere oso ondo datozela 125 dolarrak. Filmaren gidoia eskura nezakeen galdetzeko baliatu dut egoera, eta baietz erantzun dit: «etxera joan bezain laster bidaliko dizut».

«Baldintza kaskarretan lana ondo egiteko gai bazara, produkzio handietan ere gai izango zarela erakusten duzu», zioen Philipek. Hura ziur zegoen soinua ondo jasotzen ari zela eta zeukan grabagailuak lan ona egiten zuela. Inork ez zuen jartzen zalantzan filmaketan zehar soinuaren kalitatea; irudiarena, aldiz, bai. Baina, hara nola diren gauzak; geroago, edizioaren garaia heldu zenean, zuzendariak ikusi zuen soinuaren kalitatea hainbat aldiz desegokiagoa zela, eta lan handia egin beharra zegoela hura hobetzeko. Irudiak, ostera, ez zuen hainbeste arazo eman.

7.2.8. Zazpigarren eguna

Agintea nabarmentzen da langileen arteko harremanetan, bat-bateko gertakizunengatik, besteak beste.

Maiatzak 15, astelehena

Goizeko 6:30ean bildu naiz Rosanne eta Paulekin Sunolera joateko. Jantzi-arduradun berria agertu da gaur, Jessica, arduradunek esperientziadun norbait ekarri nahi izan baitute, antza. Jessica begi argidun neska txiki eta bizkorra da. Lehendik ezagutzen nuen argi-teknikari bat ere agertu da, Alberto; aurretik ibili nintzen film labur batean ezagutu nuen.

Leonard eta Robert izan dira gaurko antzezleak. Eliza aldea utzi eta herritik hurbil dagoen mendialdeko paraje batera abiatu gara. Hango larreetan abereen kortak zeuden, eta etxalde guztien aurrean amerikar izardun bandera zeukaten zutoin luze baten puntan. Halako etxalde batera heldu gara, bi solairuko bizileku «victoriano» batera. Atzeko aldean egonleku handi bat zeukan; oholezko zorua zuen, dantzaleku eta guzti. Familia bat bizi da bertan, guraso maisu-maistrak eta bi alaba.

Bero handia egin du, eguzkia astuna izan da landetxearen aurrean.

Eszenak: landetxean, Leonard sarrerara bidean, inor aurkitzen ez eta etxearen atzeko aldera korrika, norbaiten bila arituko balitz bezala; eliza inguruan, Leonard eta Robert.

Berriz ere Marcelori lagundu diogu janaria eliza aldera eramaten; *pick up*a atzerantz botatzen ari zela argiztapen-ekipoaren metalezko barra luzeak zapaldu ditu, eta haietako bi okertu. Anthony kopetilun jarri da; «jendea inguruan, argi-teknikariak ere bertan, eta inor konturatu ez», zioen. Baina gaur jendea ez zegoen inguruan zer gertatzen zen ohartzeko moduan. Izan ere, lantaldearen erdia landare-lore hautsaren alergiak jo du: Ken argi-arduraduna, Justin eta Alberto argi-teknikaria landare hautsa jasan ezinik ibili dira.

Barra okertuen auzia konpontzeko aseguruko paperak egin behar izan dituzte. Arazoek jendea urduriago jarri dute, eta orduan gehiago nabaritu da nork agintzen duen. Marcelori laguntzen ari nintzen edari hotzen kutxa astuna eramaten, eta etxe aurreko harrizko hesiaren gainean jarri dugu. Baina Abelek esan digu behera eroriko zela eta lurrean uzteko. Marcelok zerbait erantzun dio, ez zela leku txarra, baina Abelek behean jartzeko zioen serio, eta halaxe egin dugu.

Marcelok txahal-saiheskiak jarri ditu bazkaritarako —orain arte ez da egon horrelako askorik; ohikoagoak izan dira okela-bolak eta hanburgesa lehorrak— eta, aurreko egunetako neure errezeloak alde batera utzita, esan diot: «oso ona, Marcelo».

Abade-etxearen atzeko aldean filmatzen jarraitu dugu, egurrezko eserleku itsatsiak eta lorategitxoak zeuden tokian, plano-kontraplano sistema erabiliz. Ondoren, elizako gizarte-etxeko aretoan ari ginela, metro inguruko «lorategiko sugea» (*garden snake*) azaldu da. Catherinek zabor-baldea hartu du eta sugea haren barrura sarrarazi du makila batez. Anthonyk esan dio bizirik uzteko, eta erreka aldera bota du. Gerrirainoko mototsa daraman neska argal, luze eta ilegorria da Catherine, zirt edo zart egitekoa eta gauzak azkar atontzekoa. Estatu Batuetako Armadan sei urtez-edo ibilitakoa da, eta nabaritzen zaio hori bere pauso luze eta azkarreko ibileran ere. Hark hartu zuen Angelaren postua, Angelak produkzioa utzi eta gero.

Geroago, Rosanne negarrez ikusi dut, eta berehala susmatu dut zer edo zer gertatu zaiola produkziokoekin; besotik heldu diot, nolabaiteko elkartasuna azaltzeko.

Rosanne makillajeko laguntzaile eta jantzien arloan ibili da gaur arte, baina Jessica ekarri dutenez jantziez arduratzeko, zeregin argirik gabe aritu da. Dirudienez, produkziokoek esan diote ez zegoela han geldi egoteko, edozertan laguntzeko baino. Albertok honela itzuli dit mexikar gaztelaniara gertatutako guztia: «que le van a correar», bota diotela. Alberto bera ere ez zebilen gustura lanean, Mark kamera-operadoreak ez zeukala ideiarik zioen.

Filmaketak etxe barruan jarraitu du, apaizaren bulegoan eta bainugelan. Azken altxaerak iluntzeko argiekin egin dira kanpoan, eliza ondoko plazatxoan, bi antzezleak teilatu parera begira zeudela, urrunean sutea ikustearen plantak eginez.

Rosanne eta Paulekin itzuli naiz SFra, eta bide osoan isilmandatuak egiten aritu dira elkarren artean. Paulek galdetu dit ea zer uste nuen filmaketaz, eta zera esan diot: «uste dut produkzio oso gogorra dela; ni horretarako etorri naiz, baina gogorra da jendearentzat». Paulen ustez, antolaketarik gabeko produkzioa da, ez daukate benetako produktorerik, dirua jartzea ez da nahiko produktore bihurtzeko. «Askoz ere hobeto prestatu behar zuten aurreprodukzioa», gaineratu du.

Horrelako egun batean lantaldeko jendeak barnean sentitzen du lanaren gogortasuna, eta eginkizunak ez duela txantxa edo dibertsiorako betarik ematen ikusten da. Guztiz sobera daude amateurismoa eta profesionaltasun eza.

Beste alde batetik, niretzat, argazki-arduraduna zalantzan jarri zuten lehen eguna izan zen. Eta jendeak ikusten badu ardura nagusia dutenek ez dutela era egokian egiten dagokien lana, eta ez direla profesional onak (batez ere, norberari horixe eskatzen zaionean), orduan, zalantzan jartzen hasten da goikoen autoritatea.

7.2.9. Zortzigarren eguna

Agintea nabarmentzen: beste langile bati errieta. Jendea gorantz egin nahian: langile bat ardura handiagoa hartzeko prest.

Maiatzak 16, asteartea

6etan Bart-a hartu eta Pleasantonera abiatu naiz —badiaren hegoaldean dagoen hiri bat— eta Abelek jaso nau han. Hantxe batu zaizkigu Philip, Jessica jantzi-arduraduna eta Jason argi-teknikaria. Abel bereak eta bi esaten aritu da Louise neska beltzari buruz («*motherfucker* halakoa» zioen); lanetik bota behar zutela, garraio-koordinatzaile jarrita zegoela eta ez zuela ezer egiten. Arraroa egin zait ia ezer ere kobratu gabe lanean dabilen jendea lanetik botatzearena.

Mendialdeko toki baterantz abiatu gara, *Mountain House* motordunen taberna zegoen bidegurutzeko aparkaleku handira. Leku ederra da, erabateko *country* estiloa duena. Taberna atzean zuhaitzez betetako leku zabala dago, hesi metalikoz inguraturik; jarlekutzat galtzu-fardoak daude, eta mahaitzat elektrizitate-kableak biltzeko erabiltzen diren egurrezko bobinak. Beherago, plazatxoa eginez, oholtza dago musikarientzat; aurrean dantzalekua du. Eguraldi beroarekin garagardoa hartzeko leku aproposa, gaur bezala. Baina guk lanari ekin behar izan diogu.

Autobus bat ekarri dute. Izan ere, Abelek antzezle bat lortu du autobus-gidariarena egiteko eta, gainera, antzezle hori autobus-jabea da. Hantxe egin behar izan dira zenbait altxaera, inguruko errepidean zehar, Leonard Clearheart herrira heltzen, besteak beste.

Une batez, Paulek esan dit *Trooper* 4 x 4 ibilgailua taberna aurrera eramateko; pentsatu dut ez zuela halako ibilgailurik gidatu nahiko, enbragea zeukalako; izan ere, autorik gehienak automatikoak dira. Eraman dut, baina Catherinek ohartarazi dit ezin dudala gidatu, Kalifornian baimen berezia behar dela autoak gidatzeko. Bitxia iruditu zait, baina esan diot: «zuk badiozu, hala izango da»; Anthony zuzendaria ondoan zegoen eta, nire erantzuna entzunda, hauxe gaineratu du: «*good boy*».

Lantalde bat autobusean grabatzera joan da, eta nik Jasoni lagundu diot *grip* edo argiztatzaileen kamioneta ordenan jartzen. Izan ere, gaur arte gertatutako aldaketa guztiengatik nahaspila handia zegoen kamionetan, eta inork ere ezin zuen han ezer aurkitu. Jason argi-teknikariak egun gutxi darama filmaketan, baina aparteko gogoa adierazten du mutilak. Harekin ikasi ditut *grip*en hiztegiko hainbat hitz: HML argi-foku handia, *c-extents* edo tripodeak, *stinger*ra edo argi-kablea, eta kableak nola bildu ere ikasi dut (horrek ere bai baitauka bere trikimailua: kablea airean bota daiteke bihur-uneak kentzeko, baina «entxufe emearen» aldetik —«entxufe arra» botatzen bada puntak hautsi edo okertu daitezkeelako—).

Halako batean, Louise agertu da autoan, eta apur bat geroago negarrez ikusi dut. Dirudienez, agiraka egin diote. Handik aurrera, alergia zeukala eta horregatik zegoela negarra dariola esanez ibili da.

Taberna egurrezkoa zen, eta barrua oso bitxia zuen. Hormak ibilgailuen matrikulaz beteta zeuden; hainbat estatutako lizentzia-plakak, eta idatzitako ohartxoak zituzten dolar bateko billeteak ere ikusten ziren hormetan eta sabaian. 1850eko hamarkadako poster baten kopia ere bazen horman, halako testuarekin: *… Joaoquin Murrietta lapurraren burua erakutsiko dute Stockton-en, eta baita* hiru hatzamar *ezizeneko gizonaren eskua ere… jendeak ikuskari ederraz goza dezan…*

Tabernako emakume ilehoriak, adinean aurrera joanda egon arren, itxura ederrekoa izaten jarraitzen du; eskultura-gorputza dauka, eta hara doazen motorzaleei harrera egiteko moduko hitz-tonu zakarra du, pattarrak eta likoreek lehortua dirudiena. Tabernaren kanpoaldeko horman emakumearen

50. urtea ospatzera deitzen zuen pankarta zaharra zegoen. Guk pankarta hori kendu eta beste bat jarri dugu: «dantzariak» (*dancers*) jartzen zuena.

Eszenak: Brenda barraren atzean, eta bi neska dantzari aurreko mahaien artean; barra aurrean kamioilaria eta ugazaba; kamioilariak begirune handirik gabeko aipamenak egiten dizkio Brendari, eta hark lehor erantzun; ugazaba Brendari errietan; tabernaren kanpoaldean, nagusia Brenda lanetik botatzen, eta hura kexu; Brenda bere autorantz, eta inguruan motordunak —haien artean tabernako emakumea ere bai—; motordunetako bat Brendari esaten: «*welcome to America*», eta Brenda ibilgailuan alde egiten.

Zuzendariak *prop* lanetan ari diren bi neskei eskatu die dantzari moduan agertzeko, Lorena eta Jenniferri —batez ere azken horrek gorputz liraina dauka-eta—, eta Davinek apropos makillatu ditu. Lantaldeko jende gehiago ere aritu gara estra moduan: Jason *grip*a, Catherine produkzio-koordinatzailea, eta ni neu. Niri esan didate tabernako mahaian esertzeko eta Lorena dantzariari begirada lizunak botatzeko, plastikozko edalontzi gorritik garagardoa edanez.

Tresnak tolestu eta bildu ondoren, jende guztiak alde egin du, Louise, Jason, Anthony, eta laurok izan ezik. Jason argi-teknikaria eta Anthony zuzendaria luzaroan egon dira hizketan; dirudienez, Jasonek proposamen bat egin nahi zion zuzendariari, prest zegoela argiztatzaileen buru aritzeko, hala behar bazen. Hori zela-eta ez zela, berandu bueltatu gara Louiserekin Bart-a hartzera, eta ostatura gaueko 11:30ean heldu naiz, neka-neka eginda. Eskerrak biharko ez garen hain garaiz geratu.

Alde batetik agintea nabarmentzen da (langile bati errieta eginez, esaterako) eta, bestetik, horrelako produkzioak leku egokiak dira maila-zerrendan gora egin nahi duenarentzat, postuak eskalatzen joateko.

7.2.10. Bederatzigarren eguna

Egun horretan nabaria izan zen antolamendu eza eta inprobisazioa, filmaketa-lekura heldu baino lehenagotik ere.

Maiatzak 17, asteazkena

Eguerdiko 13:30ean geneukan hitzordua Pleasantoneko Bart geltokian eta, beraz, goizean *West Fargo Bank*era joan naiz gastuen truke eman zidaten txekea kobratzera. Bankuan konturik eduki ezean, bi nortasun-txartel erakutsi behar ziren; hatz-marka txekean jarri ostean kobratu dut, 5 $ komisiorako utzita.

Pleasantonen sei lagun bildu gara Louiseren autoan herri hartako merkataritza-guneko aparkalekura joateko. Leonard, Brenda, jende ezezaguna, eta filmaketan erabiltzeko bi ibilgailu alokatu berri zeuden; baina antolaketa eza nabaritzen zen, eta inork ez zekiela zer egin behar zuen zirudien.

Jason eta Freden hizketaldiari adi egon naiz; Fred ez dabil oso gustura ekoizpenarekin, «Anthonyk esaten du filmeko krediturzko tituluetan zure izena agertzea garrantzizkoa dela… Hemendik!» eta behatza astintzen zuen. Ezkor ari zen, soinu-ikasketak amaituta edukitzeak ere ez omen du ezertarako balio. Jasonek kontatu dio atzo estra moduan aritu ginela, eta atrezzoko neskak ibili zirela dantzari. Besteak ezin zion barreari eutsi.

Bob oso serio aritu da gaurkoan, antolamendu ezak larrituta-edo. Purrustadak ere banatu ditu, haietako bat Catherineri. Geroxeago, merkataritza-gunean sumatu dut Catherine Bobekin hizketan ari zela negarrez eta, handik aurrera, egun osoan kopetilun ikusi dut.

Catherinek paperak ekarri dizkigu sinatzeko; zaldien kortara joan behar izan dugu eta, besteak beste, ez genituela zaldiak eta behorrak ukituko sinatu dugu. Ez ukitzearena oso abisu serioa zen; antza, animalia haietako batzuek haginka ere egiten dute, eta jabeek ez dute arazorik nahi.

Kortara heltzeko mendialdeko bideetatik abiatu gara, ezkutuan dagoen larre batera arte. Goian landetxe eder bat zegoen, eta beherago korta zabala. Erabiliko genuen zaldiaren bi zaintzaile ere han zeuden.

Pabilioi handi batek osatzen zuen korta; erdian leku librea, hareatza modukoa, zaldiak hezteko eta bueltaka erabiltzeko; aldamenetan zalditegiak, animalia bakoitza bere lekuan, besteekin kontakturik izan gabe. Toki bakoitzaren atean zaldiari buruzko xehetasunak zeuden idatzita.

Kanpoaldean luncherako mahaia jarri dugu, eta zerbait jan ostean lanera abiatu gara. Zaldizainak egonlekutik atera du erabili behar zen animalia eta hareatzara eraman; han zerabilen jendearengana hurbildu eta usain egiten, haiekin ohitzeko. Ni argi-teknikariei laguntzen ari nintzen, eskailera luzeetara igota fokuak jartzen. Gauzak ez zeuden aurretiaz prestatuta, eta denbora galdu da argiak non jarri erabakitzen; aldatu ere egin behar izan ditugu lekuz, hasierakoa aproposa ez zelako.

Aurreko egun batean grabaturiko eszena gogorraren ostean, gaur umeak berriro antzeztu behar zuen Leonardekin. Une batean konturatu naiz antzezlea umearengana joan dela, haren amaren eta maisuaren begiradapean. Hunkigarria izan da bien arteko adiskidetzea: hizketalditxo baten ostean, antzezleak umearen konfiantza lortu du eta elkarri besarkada eman diote.

Iluntzen ari zuen filmatzen hasi garenerako.

Eszenak: Leonardek Brenda eta umea kortako bazter batean sokaz lotu; Leonardek zaldia hartu, umea askatu eta eskutik oratu, eta zaldia bueltaka erabili plazan; neska detektibea heldu, kortako bazter batetik tiroa bota eta Leonard jo beharrean Brenda hil; umeak labana atera eta sabelean sartu Leonardi.

Une batez harritu egin nau Brenda negarrez ikusteak, Leonard ondoan zuela; baina ez zen benetan ari, ondoren zetorren eszenarako prestatzen baizik.

Gaueko 10ak aldera, pizzak ekarri dituzte kanpoaldera afaria egiteko, eta jendeak ahal zuenean zati bat hartu du. Une batez, Philip eta Fred soinuko biak ere aldendu dira, goseak jota. Plano berria prest zegoenean soinu-jendea falta izan da, eta haiei deika hasi dira. Korrika etorri dira pizza zatiak eskuetan hartuta, eta Davinek errieta egin die, «*no food*», ez zegoela janaritarako astirik amaitu arte.

Kortaren kanpoaldean, alokaturiko autoetako bat poliziaren ibilgailu moduan erabiltzeko zen, gainean argi gorria jarrita; barruan neska detektibea eta Rober zetozen, azken hori aurpegian odolezko zauria zuela, makillajearekin eginda. Azken planoak, goizaldean, hareatza erdian egin behar ziren: Leonardek lurrera erori behar zuen zaurituta, eta hori egiteko lehenengo koltxoi gainera erortzen zen, baina azkenean zuzen bota da zorura. Antzezlea benetan gogotsu aritu da, hura behin eta berriro errepikatzen.

Oso bitxia izan da umeak nola erabiltzen zuen labana Leonard zauritzeko, Kurt espezialistaren esanak jarraituz. Aurreko egunen batean ere etorri den arren, gaur ikusi dut lehen aldiz Kurt, *Stunt Coordinator* edo espezialista funtzioa duena, lan hori egiten.

Oso berandu amaitu dugu kamioneta atontzen. San Franciscorako jendea joana zen ordurako. Azkenean, neu bakarrik geratu naiz Anthony zuzendariarekin eta Berta produktorearekin. «Geuk eramango zaitugu San Franciscora», esan didate. Ordu hartan ez zegoen garraio publikorik itzultzeko.

Lehenengo haien etxera hurbildu gara; goizaldeko lau eta erdiak edo izango ziren, eta Catherine etxe ondoan zegoen kamioneta barruan, hark baitu tresneriaren ibilgailua eramateko ardura. Catherinek zioen Bart trena bostetan hasten zela martxan, eta Anthonyk eta Bertak Pleasantoneko Bart-a hartzera eraman naute. Goizeko 6etan heldu naiz ostatura.

Egun hartan areagotu egin zen antolakuntza gabezia eta inprobisazioa. Geroago, Bobek hauxe kontatuko zidan:

BOB. Kortetan antolaketak porrot egin zuen, arratsaldeko hirurak-edo ziren lehen planoa prestatzen hasi ginenean, eta lehen altxaera filmatzeko 7ak edo 8ak heldu ziren; lau ordu… Aurretiazko prestaketa gehiago egon behar zen.

SANTI. Baina filmaketa hura oso konplexua zen…

BOB. Zuzendaria, argazki-zuzendaria eta espezialista inoiz ere ez ziren aurretiaz han egon; hura zen korta ikusten zuten lehen aldia. Aurreprodukzioa funtsezkoa da! Gosaririk gabeko eguna izan zen hura, eta horrelakorik ezin da egin. Badakizu… torlojuak eta azkoinak! Gauza sinpleak. «Non egongo da komuna?» galdetzen nien. «O, ez arduratu horretaz…» erantzuten zidaten.

Agintearen arloan, beste gauza bat ikusten hasi ginen egun hartan; makillajearen arduradunak zer pisu zuen filmaketan. Hori ez da oso ohikoa, baina produkzio honetan Davinek zegokiona baino askoz ere paper garrantzizkoagoa hartu zuen; inplikazio berezia zuen filmarekin.

7.2.11. Hamargarren eguna

Aurreko eguneko antolakuntzaren arazoek ondorio larriak sortu zituzten produkzioan.

Maiatzak 18, osteguna

Eguerdiko ordu batean geratu naiz Paulekin. Sunolera heldu garenean, Marcelok prestaturiko *burrito*a hartu —tortilla, artozko talo batean bildua— eta eliza aldera joan gara.

Eszenak: apaiz-etxearen inguruan Brendak burezurra ikusi; Leonardek haitzurrez eraso Robert; Leonard oihuka, Brenda eta umea autoaren barruan zeudela.

Ikaragarria izan da nola antolatu duten haitzurrez erasotzeko eszena, Kurt espezialistaren agindupean. Benetako tresna erabili dute horretarako, eta mutilaren aurpegitik oso hurbil igarotzen zela zirudien. Ondoren, koltxoi gainera erortzen zen.

Une batez, eliza atarian nengoela, Leonarden papera egiten duen antzezlea hurbildu zait, eta oso lan ona egiten ari naizela esan dit. Erantzun diot bera ari dela bikain.

Ondoren, bilera izan dute lantaldeko buruek: produkzio, kamera, soinu-arduradun, Kurt, Davin… Bobek produkzioa utziko duela esan die, eta larunbatera arte soilik jarraituko duela. Horrez gain, Anthony zuzendaria ez omen dago gustura Mark egiten ari den lanarekin. Mark eta Anthony elkarrekin hitz egiten aritu dira; ez dakigu zer gertatuko den.

Niri oso penagarria iruditu zait Bobek lana uztea. Gaitasun handiko tipoa dela uste dut, oso dinamikoa, eskarmentu handia daukana. Baina, zergatik utzi nahi ote du? Susmatzen dut produkzioan arazo handiak daudela. Lehenago Angelak utzi zuen, eta orain Bobek.

Zuzendari laguntzaileak produkzioa uztea erabaki zuen egun hartan, produkzio-antolakuntzan zeuden akatsak ezin zituelako jasan. Gero, Bobek berak kontatu zidan bilera hartan gertatutakoa:

> BOB. Jende guztiari esan nion nire azken astea zela, horixe. Baina Anthonyk beste gauza bat ere nahi zuen, Marken ordez norbait jartzea argazki-zuzendari. Eta Mark harekin hitz egiten egon zen kanpoan. Izan ere, Anthonyk argazki-zuzendari berria ekarri nahi zuela esan zuen, baina Markek erantzun zion, «itxaron apur bat», eta biak kanpora irten ziren.

Aurreko eguna, zaldi-kortetako filmaketarena, jasanezina izan omen zen Bobentzat. Baina gainerako egunetan ere ardura gehiegi jarri omen zuten haren bizkarrean:

> BOB. Alde batera utzi ninduten arazoak etorri arte, eta orduan nik konpontzea nahi zuten. Oso zaila zen niretzat. Ez ninduten era profesionalean tratatu. Azkenean, Anthonyk guztiaren arduradun egin ninduen, sail artistikorako, kokapenetarako, eta gauza guztietarako; eta nik benetan nahi nuena zen zuzendari laguntzaile izatea, «*roll sound*, *camera*» esanez, baina ezin izan nuen hori egin. Korta hartan eskailera puntan zeundeten, eta ni zuei itxaroten ari nintzen; Anthony urduri ari zen, «*roll sound! roll sound!*» esanez. Ez zeukan ideiarik ere bakoitza zer egiten ari zen; izan ere, zuk ikusi behar duzu zertan ari den jendea inguruan, norbait eztula egitera badoa ere bai, eta ni begira ari nintzen, begira, begira, ea dena *ok* zegoen, orduan «*roll sound*» esateko. Baina Anthony oso estu zegoen, badakizu. Ezin nuen horrela jarraitu.

Hala ere, Bob ez zegoen harro hartutako erabakiaz:

> BOB. Nik uste dut zerbait hasten baduzu amaitu egin behar duzula, hura nire akatsa izan zen. Ez naiz berriz horrelako film batean arituko. Produktore edo zuzendari ibiliko naiz, baina honen ostean, zuzendari laguntzaile ez.

Nire iritzian, Bobek lan handiegia hartu zuen eskuarki bi pertsonak hartzen dituzten postuak hartuta. Produkzio-zuzendaria ibil daiteke zuzendari laguntzaile filmaketa era perfektuan antolatuta dagoenean, eta produkzio-bulegoa produkzio-laguntzaile bakarrak eraman dezakeenean eta, beraz, egunean zehar ez denean behar produkzio-zuzendaririk. Baina gauzak ez ziren horrela gertatu. Gainera, bigarren egunean produkzio-koordinatzailea bota zutenez, gauzak are korapilatsuago zeuden.

Filmeko beste arazo handia zuzendariaren eta argazki-arduradunaren arteko harreman desegokia izan zen. Antolaketan ote zegoen akatsa, ala Markek ez ote zeukan behar besteko prestaketarik? Jessicak Marken gaitasunean sinesten zuen:

> JESSICA. Uste dut pelikularen ikuspegi sendo eta argia zuela, eta atzean utzi dutela apur bat. Polita izango zen sailen artean elkarrizketarako lerro irekiagoak egotea, guztiok parte hartzeko eta prozesu sortzailean ekarpenak egiteko.

Bobek beste gauza bat kontatu zidan:

> BOB. Mark fokuarekin arduratuta ibili da, kamera-operatzaile baten moduan, ez argazki-zuzendariari dagokion bezala; ez du benetako eraginik izan.

Niri ere iruditzen zitzaidan Markek nahikoa lan izaten zuela kamera erabiltzearekin, gehiagorik gabe. Baina, beharbada, ez zeukan aukerarik. Bobek argi esan zidan zuzendariak ez zeukala jendearen iradokizunik hartzeko jarrerarik:

BOB. Badakizu, lehen aldiz ari diren zuzendariek uste dute beren burua defendatu behar dutela, defentsa-jarreran daude; «hau egingo dut, neu naiz zuzendaria, neuk idatzi nuen gidoia…».

SANTI. Uste duzu Anthonyk era profesionalean tratatzen duela Mark, argazki-zuzendaria?

BOB. Ez. Oso ondo tratatzen ditu antzezleak, oso ondo tratatzen du Davin, Kurt ere bai, baina uste du Mark bere mendean dagoela, eta beste guztiak ere bai.

Beraz, zuzendariaren jarrera ez zen egokiena jendeak zuen onena eskain zezan, Boben arabera.

7.2.12. Hamaikagarren eguna

Egunetik egunera jendea gehiago kexatzen da.

Maiatzak 19, ostirala

7:45ean heldu naiz Paulen etxera, Sunolera joateko. Lantaldea herriko erdigunera joan da eta nik Lorenari lagundu diot elizako aldare ondoan aitorlekua amaitzen. Askotan aritzen naiz atrezzokoei laguntzen, arozgintzako gauza asko egin behar izaten baitira.

Ondoren, herri barrura joateko agindu didate filmaketan laguntzera.

Eszenak: herriko kale nagusian, Leonard, Robert, Brenda, Jack, sheriffa eta herriko jendea; eliza ondoan, Leonard Brenda jotzen eta umea harrapatzen; elizako gizarte-aretoan, Leonard eliztarrekin kafea hartzen.

Goizeko filmaketan Abel sheriff jantzita zegoen bere papera egiteko. Ez du ematen produkzioarekin oso pozik dagoenik. Izan ere, Abel bere kontura dabil apur bat, eta antzezle adiskideak produkzioan sartu nahi ditu. Haiek deika ari zaizkio, baina programa ez doanez zehatz, ezin die esan zein egunetan etorri behar duten.

Lunch ostean egin da Leonardek Brenda jotzearen eszena, eta Kurt espezialista beste behin ere han egon da, mugimenduak nola egin adieraziz. Leonardek umea ere harrapatu du.

Gero, filmatzera egongelara joan garenean, euria hasi du eta kanpoan zeuden gauza guztiak aterpera sartu behar izan ditugu. Ondoren, arazo bitxi bat sortu da: herritar batzuk etorri dira elizara prestakuntzak egitera, bihar ezkontza ospatu behar baitute. Horregatik, egongelako filmaketa lehenago amaitu behar izan dugu, eta hori dela-eta azken altxaerak nahiko urduriak izan dira. Leonard bera ere ibili da aginduak ematen, eszenatokia behar bezala prestatzeko.

Lorenak ezin zuen sinetsi baina, egun osoan aitorlekua jasotzen ibili ondoren, hura desmuntatu egin behar izan dugu eta aldare ondotik beste leku batera eraman. Oraingoan ere, hainbat pieza eta adornu aldi baterako finkatuta zituenez, askatu egin dira. Berriz ere antolaketa kaotikoaren itxura hartu diogu. Aitorlekuaren atalak non jarri ere ez dugu jakin, apaiz-etxearen atzean —eta euria eginez gero, han busti egingo ziren— edo etxe berberaren portxean. Anthonyk gauza bat zioen, baina Bertak beste bat agintzen zuen. Azkenean, portxean jarri ditugu. Gainera, etxea hustu behar izan da, tresneria

guztia jaso eta ibilgailuetan sartu —gaur arte han zeuden gordeta produkzioko, jantzietako eta makillajeko hainbat gai—, aitorlekuaren atalak izan ezik. Hori zela-eta, lanorduak luzatu egin zaizkigu.

Philipek arazoa izan du soinua jasotzeko gailuarekin, eta bihar goizean nire ostatutik hurbil dagoen denda batera joan beharko dut, zenbait osagai erostera.

SFra Philip, Fred, Rosanne eta laurok itzuli gara Paulekin kotxean. Philipek Bertari buruz dio gauzak antolatzeko gaitasun oinarrizkoa daukala, baina ez dagoela prestatuta film-produkzioan lan egiteko; Mark tipo majoa dela, baina tinkoagoa izan behar duela bere lanean; izan ere argazki-zuzendariaren lana ardura handikoa da, eta zuzendaria ari omen da Marken ordez gauza asko erabakitzen.

Produkzioari buruz kexa gehiago entzuten dira. Izan ere, lanorduak berez luzeak direnean, gutxiago jasaten da antolakuntza eza eta inprobisazioa.

7.2.13. Hamabigarren eguna

Maiatzak 20, larunbata

Goizeko 8etan Harrison Street-en dagoen *JCX Expendables* dendara joan naiz. Hartu dut poltsa bat gauza guztiekin, dendako neskari produkzioak emandako txekea entregatu, eta Bart-era abiatu naiz Fremontera joateko.

Sakelakoaz deitu diot Catherineri eta kotxearekin etorri zait bila, Sunolera abiatzeko. Antzinako generoen dendaren aurrean filmatzen ari ziren, herri barruan, aurreko egunean bezala.

Eszenak: herriko kale nagusian eta hango etxeen aurrean Alder, Sarah eta sheriffa; eliza inguruan Leonard eta Robert.

Anthony zuzendaria eta Bob deika ari ziren Thomasi walkietik, baina inork ez zien erantzuten. Thomasengana joateko agindu didate —tren-geltokiko aparkalekuan zegoen, filmaketan grabatzen izan diren memoria-txartelak ordenadorera pasatzen— eta walkiea piztu zezala esateko. Abisua pasatu diodanean Thomas irribarreka hasi zait, berak ez zeukala walkierik esanez, eta ez zekiela non zegoen ere. Itzuli naizenean Bobi kontatu diot, eta algaraka hasi da, «hau bai hau antolaketa!», esanez bezala.

Luncha hartu ondoren eliza ingurura hurbildu gara. Apaiz-etxeko logelan eszena batzuk egin dira. Horren aurretik, aitorlekuaren piezak kendu behar izan ditugu portxetik etxearen atzeko aldera, filmatzen ari ginen gelako leihoan oztopo egiten zutelako.

Boben azken eguna izan da. Une batean galdetu diot elkarrizketaren bat egin ahal nion; baietz erantzun dit, eta *Memorial Day* eguna aipatu dugu horretarako, maiatzaren 29a. Geroago, Anthonyk galdetu dit, serio, ea ezer ikasten ari nintzen produkzio honetan. *Of course [jakina]*, erantzun diot. Izan ere, nire helburua ikerketa egitea da, besteak beste, baina ez diot esan horrelakorik zuzendariari. Gainera, produkzioan den-dena ondo joango balitz, orduan oso erraza emango luke. Horixe gertatzen da hemen ere arlo batekin, antzezleen jardunarekin hain zuzen: hain ondo egiten dute, ezen antzezleak ondo aritzeak munduko gauzarik errazena baitirudi.

Leonarden paperean ari den antzezleak galdetu dit ea irakaslea nintzen, eta Buñueli buruz hitz egiten hasi gara. Asko gustatzen zaizkio Buñuelen filmak.

Etxeko gela bat prestatu behar izan dugu, logelatzat erabiltzeko. Hori egin dugun bigarren aldia izan da. Arazoa gero etorri da, gela aurretiaz zegoen moduan utzi behar izan dugunean; nahiz eta bigarrenez egin, ez genuen ondo gogoratzen gauzak nola zeuden. Orduan konturatu naiz aurretiaz argazkiak ateratzearen garrantziaz, ondoren erreferentzia moduan erabili ahal izateko.

Egunaren amaieran berriro ere dena jaso behar izan dugu apaiz-etxetik, ezer ere utzi gabe. Jendea alde egiten ari zen, eta azkenean Anthony, Berta eta hirurok geratu gara bakarrik. Bertak Pleasonteko Bart-era eraman nau autoz, eta antzezleei buruz zenbait gauza interesgarri kontatu dizkit: Anthony antzezle moduan lan egina dela, eta Leonarden papera duen antzezlea filmaketa batean ezagutu zuela. Antzezle hori oso prest agertu omen zen film honetan parte hartzeko, eta baldintza bakarra jarri omen zuen: beste antzezleak aukeratzeko probetan egotea. Roberten papera egiten duen antzezlea ere lehendik ezagutzen omen zuen Anthonyk; diru-arazoa sortu omen zen haren agentearekin, gehiago eskatzen baitzuen, baina antzezleak hori jakin zuenean, aurretiaz adostutako diru-kopuruaren truke lan egingo zuela berretsi omen zuen.

Gainerako antzezleen aukeraketa Internet bidez egin zuen Anthonyk: hiru mila inguru antzezleren memoriak jaso omen zituen. Horietako ia mila aztertu omen zituen San Franciscon eta Los Angelesen egindako castingetan, guztira 30 inguru aukeratzeko. Paper laburragoetan ari diren zenbait antzezlek ere curriculum aipagarriak dituzte: Jensonen papera egingo duena *Psico* 2 eta 3an aritutakoa da. Eta bere emazte moduan agertuko dena *Rent* filmean aritu zen; izaera eta aurpegiera bereziko antzezlea da. Berta irrikitan dago bi horiek nola lan egiten duten ikusteko datorren astean.

Zuzendariak egin zidan galdera, ea ezer ikasten ari nintzen produkzio hartan, adierazgarria zen. Nolabait, Bobek utzi izateagatik kezkatuta zegoela zirudien, eta bazituela arrazoiak filmaketa ez zebilela ondo bideratuta pentsatzeko. Filmaketa amaitu eta aurrerago galdetu nion ea zer aldatuko zuen errepikatzeko modua izanez gero, eta hauxe erantzun zidan: «kontu handiagoa izango nuke lantaldea aukeratzerakoan, eta denbora gehiago erabiliko nuke zuzendari laguntzaile egokia bilatzeko».

7.2.14. Hamahirugarren eguna

Gauzek zer bide hartuko duten esperoan.

Maiatzak 22, astelehena

8:30ean heldu gara Paul eta biok Sunolera. Gaur produkzio-arduradun berria azaldu da, Geraldine, Boben ordez arituko dena. Aurreko astean sortutako arazoengatik egindako aldaketa da. Bobez gain Fred ere ez da gehiago azalduko, eta haren ordez neska bat etorri da mikrofono-eramaile, Amanda, japoniar jatorrikoa. Hortik aparte, zurrumurruak zurrumurru, Markek jarraitzen du argazki-zuzendari eta lehen kamera izaten. Eta, espezialista kargua izan arren, Kurt aritu da zuzendari laguntzaile lanetan.

Eszenak: eliza barruan, Brendak onartu Leonardek eskainitako lana; eliza aurrean, Leonardek Brenda autoaren maletategian sartu.

Uneren batean, Leonard gogoratu ezinik zebilen Buñuelen zein filmetan lan egin zuen Catherine Deneuve antzezleak; nik erantzun diot: *Belle de jour* filmean. Horrela, filmak zerbait ezagutzen dituen benetako irakasle moduan azaldu naiz. Zorionez, neure ikerketetan zehar egokitu zait Buñuelen filmografia apur bat aztertu behar izatea.

Arratsaldeko azken planoetan, eliza aurrean, Leonardek Brenda konorterik gabe hartu zuen eta autoaren maletategian jarri. Hiru edo lau aldiz errepikatu da hori, eta arrazoia lantaldeko batzuen arduragabekeria izan da, neu tartean nintzela: filmaketa lekutik nahiko hurbil geunden argi-tresneriaren kamionetaren atzean; besteak beste Louise ere han zen, eta hizketan ari ginen. Louise eta biok barre algaraka hasi ondoren konturatu gara isiltzeko agintzen ari zirela filmatzen ari ziren lekutik. Ez nago seguru, baina, agian, altxaera bat ere zapuztu dugu eta beste behin errepikatu behar izan dute gure barreengatik. Gauza horiek barkatzen ez diren susmoa dut. Geroago, zuzendaria hurbildu zait eta esan dit, *please* gehiegirik gaineratu gabe: «hartu garbigailua eta joan eliza barrua garbitzera». Berehala joan naiz hark esandakoa egitera, zintzo-zintzo.

Egoerari buelta eman nahian ekarri dute produkzio-zuzendari berria, baina zerbait gehiago beharko da.

7.2.15. Hamalaugarren eguna

Talde txikiko hizketa ugaritzen joango da, eta giro ezkorragoa sortzen.

Maiatzak 23, asteartea

7etan heldu gara Alamedako Ballena Pointera, Paulen autoan. Han gosalduta Oaklandeko *Amtrak* trenen eremura abiatu gara, aurrekoan baimenik gabe aritu ginen tren-bagoi berberean filmatzera. Autobide azpian bilduta, Anthonyk zenbait gomendio egin dizkigu. Segurtasun-arau moduan, inork ere ez zuen bakarrik ibili behar: izan ere, zarata izugarria zegoen, eta gerta zitekeen konturatu gabe alde batetik edo bestetik trena etortzea trenbidea gurutzatzean. Bagoi barrurako beste arau bat ere bota digu, ez genuela ezer jan edo edan behar. Egia esan, dena ahaztu da ordu pare batean; jendea bakarrik zebilen behin baino gehiagotan, eta bagoian goiz osoa igaro dutenek gauza pila sartu dute jateko eta edateko; azkenean, zabor-poltsak pasatu eta hondakinez bete ditugu.

Bagoiaren leihoak oihal beltzez estali egin behar izan ditugu alde batetik eta bestetik. Ni ez naiz barruan ibili, oso leku estua zelako; nahikoa jende zebilen han kamera, argi-arduradun eta laguntzaile batzuekin, antzezleez aparte.

Gaur Max ibili da argi-arduradun, eta gogoan zuen oraindik nola jaso zuen jendeak haren erantzuna lehen bileran, ez zeukala *aspiration*ik erantzun zionean zuzendariari. Han geunden bada, filmaketa erdian asper-asper eginda, eta Maxek galdetu digu maltzur: «Zer moduz zuen *aspiration*ak?». Irribarre bat besterik ez diogu bota.

Ez dugu lunchik izan, hamaiketako itxurako batekin konformatu behar izan dugu. Bostak inguruan amaitu dugunean, zuzendaria pozik azaldu da; azkenean *got it [badaukagu]*, esan du.

Alamedara itzuli gara, eta Paulek Anthonyrekin joan behar izan du haren bulegora; horrela, neuk ere Anthonyren konpainiaren egoitza ikusi ahal izan dut, zuzendariaren produkzio-lekua. Paulek zenbait artxibo pasatu behar zituen disko gogorreko unitate berrietara, film materiala han kopiatzeko. Bulego hura izango omen da filmaren post-produkzioa egiteko tokia.

Anthony, zuzendari ez ezik, konpositorea ere bada, piano-jotzaile ere bai, eta argitaratuta ditu zenbait CD jazz musikaz. Bulegoko hormetan zeuden Hollywoodeko film-eskolako bi diploma ere: film independenteen zuzendari eta produktore diplomak, urte gutxi lehenago lortutakoak biak, 2002 edo 2003koak.

Egun horretan hasi zen zabaltzen zuzendariak ez zeukala esperientziarik film luzeetan. Nolabait, ordura arte jendeak jakintzat ematen zuen Anthonyk eskarmentu zabala zuela.

7.3. Bigarren zatia: lantalde trinkoa sortu

7.3.1. Hamabosgarren eguna

Zuzendariaren eta argazki-zuzendariaren arteko harremana gaiztotzen joango den egun honetan, produkzioak berriro jendea gogotsu jartzeko saioa egingo du.

Maiatzak 24, asteazkena

Mendialdeko landetxean izan gara filmatzen, Sunol inguruetan.

Eszenak: etxeko egongelan, Jenson senar-emazteen eztabaida.

Gaurko filmaketarako Jensonen papera egingo zuen antzezlea etorri da lehen aldiz. Landetxerantz gindoazela, Philip konturatu da antzezle berriaren 4 x 4 ibilgailuaren atzeko aldean *support our troops* («eutsi gure soldaduei») jartzen zuen eranskina zuela; errepublikar sutsua den seinale. Aurpegiera ilun samarrak balio dio halako pertsonaia zigortu antzekoak egiteko.

Senar-emazteen eztabaida antzeztu behar zuten, beraz. Gizona egongelan zegoen, telebista ikusten, eta emaztea sukaldea eta egongela bereizten dituen barraren atzean. Senarra garagardoa edaten ari zen (etxekoandreari garagardo botila eskatu diote, *Pale Ale*, eta izena aldatu errotuladorez, *Dale Dale* jarriz, markarengatik arazorik ez izateko). Jensonen emaztea Sarah-ren heriotzaz ari zen, oso axolagabe esanez ez zela arraroa neskak halako amaiera izatea, bizi zen modua kontuan izanda, mutilzale buruarina baitzen. Jenson oso haserre jarri zen, emazteari erantzunez nola zeukan hain sentiberatasun gutxi. Orduan, hainbat trapu zahar atera ziren: neska buruarin hura Jensonen alaba ezkutua izan zela, eta gainera Jenson andrea horretaz jakitun zela aspalditik, senarrari inoiz ezer aurpegiratu gabe, urte luzeetan isilpean gordeta izanik informazio hori. Eztabaida horien ostean, gizonak emaztea hil zuen.

Une batean, Markek uste zuen argia beste era batera antolatu behar zela, eta kanpoaldeko gortinak bazterrera eraman ditu. Baina, kapitainak agintzen duen tokian marinelak ez, eta Anthonyk esan dio Marki gortinak zeuden bezala jartzeko. Markek agindutakoa bete du, eta zuzendariak *I'm sorry Mark [sentitzen dut]* esan dio, baina argi geratu da argazki-zuzendariak ez duela aparteko pisurik.

Gauza guztiak bildu ondoren jende gehienak alde egin du, eta han geratu gara Ken *gaffer*a, Justin eta hirurok, gure bila nor etorriko zain. Lehen aldia izan da Ken filmaketaz benetan zer uste zuen kontatzen hasi zaiguna, gaur arte bere kolkorako gordeta izan baitu guztia: jendeak gehiago espero zuela zuzendariarengandik, zioen. Filmaketan jakin baitute Anthonyk zuzentzen duen lehen film luzea dela.

Argiztapenaz hitz egiten jarraitu du: ez direla argia era egokian erabiltzen ari, aurpegi guztia fokupean jartzen ari direla, kontrasterik sortu gabe, dena argiztatua nahi omen du zuzendariak denbora osoan.

Eliza aldera itzuli garenean, eszena gehiago filmatzen ari ziren. Orduan, harriduraz jaso dugu Davinek bilera egiteko zabaldu duen deia. Nolabait, esatekoak esateko ordua zetorrela nabaritu dugu. Davin makillajearen arduraduna da, morrosko kolore gorria, eta film-lanetan esperientzia oso zabala

duen pertsona. Batzuek oso ontzat dute, eta beste batzuek, aldiz, ez dute begi oso onez ikusten; zuzendaria babesten ari da uneoro, produkzioan asko inplikatuz.

Bera izan da, hain zuzen, bileran mintzatzen hasi zaiguna. Honela labur daitezke esandakoak:

- Jendeak garaiz heldu behar du, eta filmaketa hasteko jartzen den ordurako badator, gosaltzeko ordua joana dela jakin behar du. Berandu hasten bagara, egun osoan zehar programa guztia atzeratuz eta atzeratuz joaten baita. (Izan ere, *call sheet* edo deialdi-orrietan bi ordu zehazten dira: biltzeko ordua —eta hori da, teorian, gosaltzeko garaia— eta filmaketa hasteko ordua; jende gehienak nahikoa izaten du filmaketa hasteko ordurako heltzearekin).

- Zuzendaria ez dago pozik, eta zuzendaria ez badago pozik antzezleek ezin dute ondo jokatu; hori gertatzen bada, dena doa gaizki.

- Film batek memoria oso luzea sortzen du, eta kredituetan zure izena agertzen bada, han agertuko da ehun urte barru ere. Beraz, saiatu behar da gauzak ondo egiten, lana ondo egiten.

- Aurrekontu baxua izateak ez du esan nahi ahalegin txikiago egin behar denik; izan ere, jendeak produkzio handia balitz bezalako esfortzu berbera egin behar du. Aurrekontu baxuak ez du esan nahi jendea edozein unetan kafea hartzera joan daitekeenik.

- Bera ez dagoela diruagatik esan digu, bere soldata normala eguneko 500 $ omen, eta hemen badago gidoia oso atsegin duelako dela (dirudienez, milioi bat dolarreko etxea du Los Angelesen, eta aurrekontu altuko edozein filmetan lan egin dezake; baina berak deitzen omen du gidoia gustatzen zaion proiektuetara, haietan lan egiteko).

Ondoren, beste hainbatek osatu digu erretolika. Kurtek esan du jendeak ahalik eta ondoen egin behar dituela gauzak, aurrekontu handiagoak dituzten proiektuetan parte hartzea nahi badu. Anthony zuzendariak esan digu lana astiroago egiten dugula egunetik egunera, eta gero eta plano gutxiago egiten direla. Berta bere buruaz aritu da, ez dela aurretiaz produktore moduan ibilia, baina hala ere aurrera egin behar dela (dirua jarri du eta baditu arrazoiak arduratuta egoteko).

Horri guztiari zerbait erantzuten ausartu dena neska bat izan da, Heather kamera-laguntzailea. Holako zerbait esan du: «gutxi ordainduta lan gogor egiten badut, nolabaiteko begirunea espero dut zuzendaritza edo produkzioaren aldetik».

Neska adoretsua da Heather, eta inork ez dio aurpegiratuko lana gogor egiten ez duenik. Beti dabil jo eta ke, kamera-laguntzaile moduan edo argi-teknikariei fokuak eskegitzen laguntzen.

Louisek bere arduratzat hartu beharra zuen neurri batean jendea berandu heltzearena, bera baita jendea geltokian jasotzeko arduraduna; eta zera esan du, jendea garaiz hartzeko, jendeak garaiz heldu behar duela geltokira.

Bileraren helburua jendea berriro tentsio-puntuan jartzea izan dela uste dut; izan ere, azken egunetan esamesak eta ahopeko solasak ugaritu egin dira, produkzioari buruzko kritika eta inpresio ezkorrak zabalduz. Eta, seguru asko, bilerak eragin ona izango du lantaldean; Heatherrek berak ere horixe esan digu Louiseren autoan bueltan gentozela. Produkzioburuak arduraz ari ziren nabaritzen lantaldearen erlaxamendua eta axolagabekeria; eta batzuek utzi ere egin dutela kontuan izanda, zerbait egin beharra ikusiko zuten jendea berriz ere akuilatzeko. Bileraren azkenean, Anthony Davinengana joan da, besarkatu eta musu eman dio masailean.

Heatherrekin itzuli naiz trenean Walnut Creek herritik Oaklandera, eta hark bere iritzia zehaztu dit: ez zaio gustatzen nola ari den zuzentzen Anthony, ezta planoak prestatzeko modua ere, era errepikatzaile eta aspergarrian. Markek ez duela askatasunik planoa nola egin pentsatzeko, ez dagoela mugimendurik, eta plano-kontraplano sistemaren erabilera handiegia dela. Argi gehiegi dagoela, kontraste gutxi eta, adibidez, apaizaren boterea islatzeko kontrapikatuak urriak direla. Galdetu dit nola filmatuko nukeen nik filma, eta erantzun diot erdia gauez filmatuko nukeela; ez zaio ideia txarra iruditu. Zera gaineratu diot: hori eginez gero, filmaketa askoz ere zailagoa eta garestiagoa izango litzatekeela.

Aurreprodukzioan gauzak ez direla ondo egin esanez jarraitu du, plangintza ez dela argia, Markek ez duela ezagutzen nolako planoak filmatu behar dituen, argi-teknikariei eta gainerakoei zer egin agintzeko. Eta gauzak ez badaude aurretiaz antolatuta, filmaketa-garaian askoz ere zailago eta luzeago bihurtzen direla.

Egun funtsezkoa izan zen produkzioaren gidaritzarako. Hor ikusi zen, benetan, Davin makillajearen arduradunak zuen pisua: iniziatiba oso garrantzizkoa izan zuen egun hartan, jendea motibatzeko. Izan ere, haren presentzia ez zen oharkabe igarotzekoa. Jessicak, jantzien arduradunak, hari buruzko iritzi hau bidali zidan azken asteko kronikan:

JESSICA. Davin bedeinkazioa zen filmalekuan. Haren esperientziak ekarpen handia egin dio produkzioaren izaera orokorrari. Benetan asko lagundu dit, gomendio onak eman ere bai, eta animatu aurreranzko urratsa egiteko eta serio ahalegintzeko produkzioa bikaina izan zedin. Ezin dut imajinatu nolakoa izango zatekeen produkzioa hura gabe.

Egun hartan, filmaketan gertatutako gorabehera txiki batek agerian jarri zuen zuzendariaren eta argazki-arduradunaren artean zegoen egoera. Filmaren irudi-tratamenduan, Markek ez zuen argazki-zuzendari batengandik espero daitekeen eraginik. Itxura batean, zuzendariak ere bigarren mailako garrantzia ematen zion argazkiaren tratamenduari. Lan handia egina zuen antzezleak aukeratzeko, haien lana bikaina zen, eta aurrekontu txiki batean argazkiari indarra emateak denbora gehiago eskatuko zuen, besteak beste. Halako produkzioetan ez dago luxurako leku handirik. Eta horretan Bob ere ados zegoen:

SANTI. Zer uste duzu filmaren irudi-tratamenduaz?

BOB. Horixe da askotan galtzen den arloa; izan ere, zuzendaria antzezleengan eta elkarrizketetan arreta jarrita dabil… Ez dago kamera-orgarik, goiko edo beheko perspektibarik ere ez, eta horixe gertatzen da gauza pila bat dagoenean filmatzeko; ezin dela. Beharko lirateke planoak, esate baterako, eguzkia sartzen, elizarenak, Brenda auto barruan dela, beharbada auto barrutik… Horrelako filmetan askotan ez dago luxurik… *Jurassic Park* saileko filmetako batean, izozkia jaten ari diren eszena dago; elektrizitatea joan egin da, eta mahaia izozkiz beterik dago, denak urtzen, eta jan egin behar dituzte. *Indie* filmean plano orokorra ateratzen duzu, gero itxiagoa antzezle baten ondoan, eta gauza bera beste antzezlearen ondoan. *Jurassic Park*en hamabi edo hamahiru angelu desberdin zeuden… *Indie* filmean, gauzak ateratzen diren bezala ateratzen dira.

Eta batzuetan egiten denak balio izaten du, edo konponbidea dauka, baina beste batzuetan ez. Eta Bobek *indie* zinemagintzan arrakasta handia lortutako zuzendari baten kasua gogoratu zuen, zeukana ondo baliatzen zekien batena, hain zuzen:

BOB. Robert Rodriguezen lehen filmaz, *El Mariachi*, denak ari ziren esanez nolako asmakizunak zeuzkan, zein harrigarria zen haren edizioa tabernako eszenan, nola ebakitzen zuen txakurraren planotik. Baina egin zioten elkarrizketan zera zioen Robert Rodriguezek: ez zegoela magiarik haren edizioan, 16 milimetroan filmatzen ari ziren, eta soinua kasetean jasotzen. Une batzuetan audioaren eta bideoaren arteko sinkronismoa galtzen zen, eta orduan txakurraren planoa ebakitzen zuten. Berriro sinkronizatzen zuten, harik eta galtzen zen arte; orduan berriz ere txakurraren planoa…

Baina askotan produkzioaren akatsak ezin dira disimulatu. Dena den, egiten ari ginen filmaren kasuan, zuzendariak geroago kontatuko zidanez, bideoaren kalitatea bikaina zen. Inork gutxik uste izango zuen hori filmaketan, baina edizioaren garaia heldu zenean, Mark argazki-zuzendariaren eta kameralariaren lana goraipatzen hasiko ziren.

7.3.2. Hamaseigarren eguna

Aurreko eguneko bilerak eragin positiboa izan zuen egoera zuzentzeko.

Maiatzak 25, osteguna

Paul eta Rosannerekin joan naiz Sunolera, eta atzoko bilerako kontuak aipatu dizkiet, haiek ez ziren egon-eta. Heatherrek zer esan zuen aipatu diedanean, hauxe atera zaio Pauli: «neska hori *fucking ballsy* da», sekulako barrabilak dituela, alegia.

Zuzendari laguntzaile berria izan dugu, Dave, eta lan egiteko erritmo oso azkarra jarri du. Berta pozik dago harekin. Davin ere bai, egunaren azkenean hala esan du: «gaur lan bikaina egin dugu».

Eszenak: abadetxearen aurrean Leonardek Jenson hil; Leonardi aitorlekuan «geriza» azaldu; Jack umea, adineko apaizarekin eta gizarte-laguntzailearekin.

Leonardek haitzurrez jo behar zuen Jenson behin eta berriro, eta antzezlana ikusgarria izan da. Aurrenez, Leonardek aitzurra altxatzen zuen behetik gora, Jensonen kokotsa joko balu bezala; hark erortzeko plantak egin, eta ondoren Leonardek izugarrizko haitzurkada jotzen zion lurrean zegoen harea-zakuari, lurra ez baitzen ikusten kameran aukeraturiko angeluan. Saio ona zen, nola erori eta pertsona bat nola arrastatu ikasteko (horretarako, Jensonen papera egiten zuen antzezleari babesa jarri diote bizkarrean).

Aitorlekuko filmaketan, Leonard jesarrita zegoen plano itxian, leihatilari begira; leihatila arroz-paperez estalita zegoen, eta beste aldetik argiztatua itzalak sortzeko. Bertan, buru baten itzala agertu bezain laster esku bat heltzen zen Leonarden aurpegira, arroz-papera apurtuz, eta gizona guztiz izututa geratzen zen. Gauza sinplea izan bada ere, ondo egina zirudien. Dave bera izan da aurpegi-itzalak egin eta eskua sartu duena ere.

Laneguna amaitzerakoan, Louise negarrez ikusi dugu: produkziotik kanporatu dute. Une hori aurreko egunetan gertatutakoaren ondorioa da. Produkzioaren gogortasuna nabaritzen da. Arduradunek jende langilea eta diziplinatua nahi dute bakarrik. Louiseri *fun*, dibertsioa eta ondo pasatzea gustatzen zaio, filmaren filmaketa hutsetik aparte. Orain egun batzuk, frantses pitin bat nekiela jakin zuen, eta nirekin frantsesez aritzen saiatzen zen, bera ere noizbait ikasten aritua baita. Antzezleekin hizketan aritzeko ere ez zeukan erreparorik. Beste gehienok, batez ere laguntzaileok, oso modu zuhurrean tratatzen ditugu. Ez gara haiengana zuzentzen, haiek lehenago geuregana ez badatoz. Produkzio honetan jolasa sobera dago, jendeak ez du algara handiegirik egiten ibili behar.

Hori bai, zuzendariak txistea egiten badu, eta edozein unetan egin dezake, orduan denek barre egin behar dute.

Gauza da Louise bota egin dutela. Nahiz eta triste egon, ez zaiola askorik axola horrelako produkzioa alde batera uztea zioen.

Egun horietan zehar, produkzioak lantalde trinko eta fidagarriarekin geratzeko ahalegina egin zuen. Ordurako, han jarraitzen zutenek bazekiten zer zegoen, eta hari egokitu beharra besterik ez zeukaten.

7.3.3. Hamazazpigarren eguna

Zuzendari laguntzailearen presioa. Aurreprodukzio desegokiaren efektuak.

Maiatzak 26, ostirala

Berriz ere Sunolen ibili gara grabatzen. Gaur Jason hasi da argiztatzaileburu lanetan, *key grip* moduan; orain arteko argi-arduraduna, Ken *gaffer*a, ez da egongo aurrerantzean. Beste argi-teknikari bat ere izan dugu, Gerry.

Eszenak: Leonard logelan, buztinezko iruditxoak egiten eta lantzen, xake-taulan jarriaz; Leonard egongelan, handik sukaldera joaten, eta abar; herriko kale nagusian, Leonard kafetegira sartzen eta irteten; Leonard trenbidearen ondotik oinez.

Sail artistikoan arazoak egon dira; Anthony horri buruz aritu da, baina ezin izan dut jakin zehatz zertaz ari zen. Uste dut xake-taulan jartzeko iruditxoak zirela kontua. Eskultore batek eginikoak dira iruditxoak, batzuk amaituta baleude bezala eta besteak erdi egindako itxuraz.

Planoen prestaketa oso klasikoa izan da: Leonardek mugimendu xumeak egin behar zituen xake-taulari begira, ispiluaren aurrean, taula txikia pintzelez bustitzen. Ardura handiz zebiltzan, irudia ondo enfokatuta zegoen ala ez. Zuzendari laguntzailea saiatzen zen gauzak azkar egiten, baina zenbaitetan gauzak astiroago zihoazen. Leonard oso sartuta egon da filmaketa-prozesu guztian. Nabaritzen zaio antzezle izatetik aparte produkzio kontuetan ere ibilitakoa dela.

Denbora luzean, hori filmatzen ari ginela, ate ondoan egon naiz, *rolling* esaten zenean atea zabaldu eta *quiet please [isildu!],* deika. Hantxe ibili naiz luzaroan, oihugile egoskor bihurtuta. Horixe izaten baita produkzio-laguntzaileek egin beharreko lan bat.

Bihar Mullens detektibearen papera egin behar duen antzezlea ere etorri da. Curriculum zabala dauka, telebistako hainbat serietan parte hartutakoa baita, zientzia fikziozkoetan, besteak beste: *Star Trek*, *X Files*…

Beste egunetan baino lehenago amaitu dugu. Bertari galdetu diot bihar argazki batzuk atera ahalko ditudan, nire azken eguna izango baita. «*No problem!*» esan dit.

Gaur aitorlekua desmuntatu dugu, bigarren aldiz, elizatik ateratzeko. Izan ere, bihar, larunbata, beste ezkontza bat ospatuko da elizan, eta ez litzateke itxura aitorleku bitxi hori aldare ondoan egotea. Eliza garbitzen aritu naiz garbigailuz, beste behin ere.

Leonard zera errepikatzen aritu zait: bihar nire azken eguna izango denez, eskoziar gona jantzita joan beharko dudala, horixe egiten omen du jendeak azken egunean eta. Txantxa gustatzen zaio.

Dena den, zuzendariak estra moduan ere aritu beharko dudala adierazi ondoren, Jessicak, jantzien arduradunak, arropa formalagoz etortzeko esan dit. Zeren paperean jarri behar ote naute oraingoan?

Ostatura heldu baino lehen Paulen etxetik pasatu naiz, produkzioaren dirua eman behar bainion *JCX Expendables*en gauzak erosteko. Biharko, 6etan dago jarrita gosaritarako ordua Sunolen, baina Gerryk eta biok hain goiz trenik ez daukagunez, geroago joan gaitezke. Pleasantonera iritsi eta Thomasek hartuko gaitu bere 4 x 4 ibilgailuan.

7.3.4. *Hamazortzigarren eguna*

Ez dago aitzakiarik, produkzioa martxa osoan.

Maiatzak 27, larunbata

Sunoleko eskolan igaro dugu egun osoa. Bi filmaketa-ekipo ibili dira, bakoitza bere aldetik.

Eszenak: Leonard ospitale psikiatrikotik alde egiten, medikua hil ondoren; Leonard pasillotik oinez, zaindariak gidaturik; Leonard medikuarekin mintzatzen eta hura hiltzen; eskolako sarreran Leonard Jenson andrearekin bildu; Leonardek Mullens detektibea ito, kanpaiaren sokaz.

Jende berria agertu da lantaldean: kamera-operatzaile beltz bat eta Jasonen lagun bat, Fran, espainolez mintzatzen den morroia, aita Ekuadorrekoa duena.

Sunoleko eskolan marrazkiz beteta zeuden pasilloko hormak, umeek egindako animalia eta loreekin, eta estali egin behar izan ditugu biltzeko paper marroiz. Leihoetan ere oihal beltzak jarri ditugu kanpoko argirik ez sartzeko. Lan handia egin behar izan dugu argi-fokuak jartzen pasilloko sabaian eta alboko geletan. Lehen planoa jasotzeko prestatzen ari ginenean, kamera-operatzaile berria ez zegoen oso gustura kameraren fokuarekin, eta hori hobetzeko ekipoak ordu laurdena hartu du, handik kanpora joan eta frogak egiteko.

Luncha hartu ondoren eszena korapilatsu batzuk filmatu dira, eta polizia moduan aritu naiz. Jessicak eman dizkit poliziaren jantziak, eta Abelek gerrikoa eta pistola; plaka bat ere eman didate jakan jartzeko, eta horrela jarri naute poliziarena egiten.

Lantaldeko jende gehiagok ere aritu behar izan du estra moduan: Marcelo detektibe moduan, Geraldine traje beltzaz, eta Bertaren seme bat ere etorri da detektibe moduan aritzeko; gainera, herriko estrak ere agertu dira, auzitegiko mediku eta antzeko paperetarako.

Egin beharreko planoa behin eta berriro entseatu eta grabatu da, hainbat jenderen mugimenduak koordinatu behar baitziren. Pasilloko atearen ondoan nengoen, kameratik nahiko hurbil, eta Marcelo aurrez aurre nuela, hitz egiten ari bagina bezala, baxu-baxu. Ondoren, herriko estra bat, gizon bizardun adineko bat zetorren, eskularru zuriak jarrita auzitegiko medikuarena eginez, eta sakelakotik hitz egiten; nik atea zabaltzen nion, ustez barruan baitzegoen medikuaren gorpua; ondoren Luke zetorren, Bertaren semea, detektibearena eginez, eta haren ostean Geraldine. Orduan, antzezle nagusiak heltzen ziren, Mullens eta Lidya, detektibe paperetan. Luke gelatik irten eta Mullensi ematen zion odoleztaturiko iruditxoa plastikozko poltsa barruan, hildako medikuaren itxura zuena; orduan, Marcelok bostekoa ematen zidan, *see you later [gero arte]* esan, eta joan egiten zen.

Bitartean, hitz egiten ari ginen itxura egin behar genuenez, Marcelori azaldu diot zeri buruzkoa zen filmatzen ari ginen eszena, eta hark papertxoan idazteko plantak egiten zituen, nahiz eta benetan idazten ari zena hurrengo asterako erosketa-zerrenda izan.

Jendeak esaten zidan «izugarria» (*great*) ematen nuela, estatu batuarrek ohitura handia baitute dena *great* dela aldarrikatzeko; eta Davinek gaineratu du: «falta zaizun bakarra amerikar itxura izatea da!». Ez dakit nolako itxura izango dudan, baina aurreko egun batean Abelen emaztea, filipinar jatorrikoa, harritu egin zen nongoa nintzen jakin zuenean: «nik uste nuen errusiarra-edo zinela, eta ingelesez egiterakoan daukazun azentua ez da espainiarrena bezalakoa». Erantzun nion gaztelaniaz mintzatzean ere azentu berezia genuela Euskal Herrian.

Astia izan dudanean jendearen zenbait argazki jaso ditut, eta lankideei aterarazi ere bai. Iluntzen ari zenean, eskola barruan hasi gara prestaketak egiten, elizaren kanpai-dorreko eskailera bertikala ordezkatzen zuen lekuan. Eskolako zine-emanaldietarako kabinarako igoera erabili da horretarako, bertan egurrezko eskailera baitago zulo karratu bertikalean. Leku horretan filmatu ditugu Mullens detektibea eskaileratik igotzen, lurrera erortzen, eta sokatik eskegita geratu den planoak. Horretarako, lan bikaina egin dute Kurt espezialistak eta haren lankide batek, antzezlea arnes batekin eskegi ondoren. Planoa behetik eta goitik filmatua izan da, eta espezialistek soka elastikoa erabili dute, antzezlea zintzilik zegoenean gora eta beherako mugimenduak egiteko. Arnesa jantzien barruan zeraman disimulaturik, eta horretarako bi pare jantzi zituen, zabalagoak eta estuagoak.

Nire azken eguna izan da, eta atseginez jaso ditut faltan botako nautela esan didaten lantaldeko jendearen esanak: Catherine eta Lorena hala ibili zaizkit, eta Leonardek galdetu dit ea non neukan eskoziar gona.

Filmaketa gaueko 11ak inguruan amaitu da, eta denbora aurrera joan zaigu gauzak biltzen eta kamioneta antolatzen. Une batean, nire kamiseta berdea eman diot Jasoni, REC eta puntu gorria dituena paparrean, Donostiako izen bereko soinu-nahasketa enpresarena. Pozik hartu dit.

Geroago, tabernan bildu gara jende talde bat. Adineko bi *country* abeslari ari ziren kantuan alboko oholtzatxoan. Han bildu gara gu ere: Kurt, Lorena, Jason, Fran, Jessica, Peter, Gabrielle, Anthony, Berta, eta Lorena. Azken honek biltzeko paper zati bat prestatu du, jendeak esaldiak eta opa zidana idatz zezan. Zein garagardo nahi nuen galdetu didate; barra atzeko apalean txakur baten itxurako panpina handia zeukaten, pixa egin ordez garagardoa botatzen zuena, eta bertatik eskatu dut pinta bat. Jakin dut benetako txakur bat gogoratuz egindakoa zela panpina. Famatua izan omen zen txakur hura herrian eta, antza, kaletik ibiltzen omen zen amerikar banderaz margoturiko txalekoaz hornituta.

Jendeari azken besarkadak eman ondoren, San Franciscora itzuli naiz Daverekin. Jakin nahi dut nola jarraitzen duen filmaketak azkenera arte eta, horretarako, Jessica jantzien arduradunak bidaliko dit datorren asteko kronika.

Egun hartan lan handia egin zuen taldeak, eta eszena zailak filmatu ziren. Lantaldea sendotuta zegoela ikusten zen.

7.3.5. Hemeretzigarren eguna

Zuzendari laguntzailearen garrantzia ikusten da, filmaketa ondo joateko.

Maiatzak 29, astelehena

Gaur *Memorial Day* izan da, estatubatuarrek urtean zehar daukaten jai ofizial bakanetakoa. Bobi elkarrizketa egin diot Mission District inguruan dagoen *Starbuck* katearen kafetegian.

Jaia izan arren, filmaketak jarraitu egin du. Jessicak bidalitako txostenaren arabera 8:00etan hasi dira eta pertsona berriak azaldu dira: kamera-laguntzaile berria, «edozertarako balio duen kidea», dio Jessicak; eta Jennifer produkzio-laguntzailea, Lorenari arte sailean laguntzeko.

Jessicarentzat ez da egun oso atsegina izan, karpeta galdu omen du-eta. Hantxe zituen gidoia, jantzien eskema eta filmaketako jarraipen-paperak. Hala ere, uste baino arazo gutxiago izan omen du, produkzioaren azken astea delako, eta beharrezko gauzarik gehienak gogoan zituelako. Horretarako, gidoia irakurri behar izan du berriro, Julie eta Davini kontsulta batzuk egin, eta aurreko egunetan ateratako argazkiak aztertu.

Eszenak: eliza aldean Leonarden gela, xake-piezekin; eta Sunoleko eskolako sukaldean Mullens detektibea eta Sheriffa.

Dave zuzendari laguntzaile izateak asko lagundu omen dio produkzioari. Aurretiaz ekipoa beti ibiltzen zela plangintza jarraitu ezinik dio, eta ez zegoela inor zuzendariaren eta lantaldearen artean lotura egiteko. Inor ere ez omen zen agertzen platoan lidergoa hartzeko prest. Jessicak uste du Davek taldeko jende guztia maila altuagora eraman duela, baina horrek bere kostua izan duela: Davek behin baino gehiagotan garrantzi handiago ematen omen dio programa betetzeari, filmaren alde artistikoari baino.

Gorpuen gelaren eszena grabatzeko, Lorenari lagundu dio filma-lekua txukuntzen, eskolako sukaldea tanatorio bihurtu behar izan baitute eztainuzko papera erabiliz.

Jantzien arduraduna izanik, Jessicak sail artistiko osoaren funtzionamenduaren ingurukoak kontatzen dizkit. Hasteko, uste du zuzendaritzak ez duela behar bezala aintzat hartu sail hori eta Lorenak beste hiru edo lau laguntzaile behar zituela lana ondo egiteko. Jantzien arloan ere arazo orokor batzuk izan dira, bere ustez:

«Nire arazorik handiena hauxe izan da, astebete beranduago sartu naizela filmaketan. Ni baino lehen beste hiru lagunek eginiko lana aurrera eraman beharrean nengoen. Hori oso gogorra izan da, saiatu behar nuen imajinatzen zer zegoen egina, eta zer egin nezakeen hura hobetzeko. Aurretiaz jantziekin ibili den jendeak lehen aldiz egiten zuen lan hori, eta haien antolamendua ulertezina zen. Beste aldetik, jarraipenari buruzko hainbat erabaki hartuta zeuden, baina ni ez nengoen ados».

Jessica jo eta ke aurrera egiten dutenetakoa da. Ondoko iruzkinean ikusi dut zein espirituarekin heldu zen bere lanera:

«Jantzietarako aurrekontu edo diru kopuru bat ezarri gabe egonda ere, nahiko ondo moldatu gara. Aurrekontu baxuarekin lan egiteak ez du esan nahi kalitateak ere baxua izan behar duenik. Filmaketara etortzerakoan beti izan dut gauza bera buruan: nituen baliabideekin, ea zein zen lor nezakeen mailarik altuena».

Jessica da horrelako lantalde bateko jendeak izan beharreko espirituaren adierazgarri: diren baliabideekin, ahal denik eta lan onena egiteko grina adierazten du.

7.3.6. Hogeigarren eguna

Erritmo azkarrak ere eragin negatiboak izan ditzake.

Maiatzak 30, asteartea

Eszenak: Anthonyren bulegoan, Alamedan, Mullens eta Cross detektibeak hizketan; Sunoleko kafetegian Mullens detektibea; kafetegian Leonard, Robert eta Sarah.

Lanpeturik ibili dela kontatzen dit Jessicak. Karpeta galduta Lydiaren jantzi-aldaketa guztiak gogoratu behar izan ditu, baina dena kontrolatzeko gai izan omen da, Julie gidoi-ikuskatzaileari kontsulta batzuk eginez. Sei jantzi-aldaketa omen zituzten Lydiak eta Mullensek, eta horrek mugimendu handia sortu omen du jantzien txokoan.

Dave presioa sartzen ari zen plano bakoitza oso azkar joan zedin, eta horrek arazoak sortu dizkie. Astirik gabe ibili dira, eta Jessicak liskar baten aipamena egiten dit:

«Hori ez zaio ezer ere gustatu Lydia detektibearen papera egiten ari den antzezleari, eta orduan Daveri esan diote apur bat lasaiago aritzeko. Jende asko ez da konturatzen zein garrantzizkoa den jantziena eta makillajearena antzezle batentzat, horixe baita bere pertsonaian, bere paperean benetan sartzen den unea. Gogor hartua edo deseroso sentitzen bada, horrek eragin handia izan dezake antzezlearen jardunean. Dena den, handik aurrera gauzak ondo joan dira (Lydia antzezle harrigarria da) eta haren jokabidea profesionala izan da».

Hori irakurtzerakoan gogoratu dut zer zioen Anthony zuzendariak Davini buruz: lan txukuna egiten zuela antzezleekin, abilezia oso berezia zuela. Gauzarik arraroenak eta anekdotarik bitxienak kontatzen aritzen zela, eta haiek eroso eta estimatuak sentitzen zirela zeuden lekuan, horrelako pertsonaren ondoan.

«Profesionala» hitza aipatzen da, unean-unean gogoak ematen duenari bidea eman gabe haren gainetik lanean txukun jarduteko gaitasuna goraipatuz.

7.3.7. Hogeita batgarren eguna

Antolamenduari kritika.

Maiatzak 31, asteazkena

Eszenak: Lydia detektibeak Robert aurkitu eliza inguruan zaurituta; Lydia herrira heldu; Robert *pick up*a gidatzen.

Roberten papera egin duen antzezlearen azken eguna izan omen da gaurkoa. Egun interesgarria jantzien arlorako ere, Jessicak aipatzen didanez. Zenbait plano egin behar izan dituzte, Lydiak Robert aurkitzen zuela palaz jota zaurituta, esaterako. Jessicak zenbait kamiseta prestatu behar izan ditu odoleztaturik eta zikin baileuden; zuhur ibili behar izan omen du zenbat odol eta zenbat lohi jartzen zuen jantzietan. Robertek ederto jardun omen du Lydiak odoleztatuta eta noraezean aurkitzen zuen eszena horietan.

Aitorlekua eliza barruan muntatu dute, biharko. Azken aldia izango ote da?

Filmaketaren prozesu orokorrari aipamena eginez, Jessicak bileren falta ikusi du:

«Zalantzarik gabe, produkzioa ondo joateko bilerak egin behar ziren, astean behin gutxienez. Plangintza egiteko denbora gehiago izan banu, gustatuko zitzaidan Anthony, Mark eta Lorenarekin biltzea eta filmaren diseinuaz eta izaeraz hitz egitea. Jantzien arloa artearekin eta zinematografiarekin koordinatu behar da. Inoiz ere ez nuen izan bilerarik ez Markekin ez Lorenarekin. Egon naiz une

laburrez Anthonyrekin eta badakit pozik zegoela nire lanarekin. Baina aurreprodukzioan bilera gehiago izan bagenu, denentzat izango zen lagungarri».

«Taldean» gutxiegi lan egitearen akatsa atxikitzen zaio filmaketari.

7.3.8. Hogeita bigarren eguna

Jessicak zuzendariaren eta kameralariaren arteko komunikazio eza aipatzen du.

Ekainak 1, osteguna

Eszenak: Alder eta Leonard aitorlekuan; Alder eta Leonard gizarte-etxean.

Gaur atzo baino beranduago hasi omen da filmaketa, baina hala ere lehenago bildu dituzte tresnak. Aitorlekuko lanak ere gaur amaitu omen dira:

«Leonard eta Alder zeuden bakarrik aitorlekuan eta jantzi-aldaketak errazak izan dira. Gero, egunaren amaieran, aitorlekua desmuntatu dugu, oraingoan behin-betiko».

Bazen garaia, pentsatu dut. Zeregin gehiago izan dute, etzirako (larunbaterako), prestakuntzak egiten, ordurako hamar ume lortu behar baitituzte eskola katolikoaren uniformez.

Jessicak bere gaia ez den argiztapenari buruzko komentarioa egiten dit, aurretiaz beste batzuek esandakoa berretsiz:

«Pertsonalki uste dut argiztapena interesik gabea izan dela gizarte-aretoko eszenako planoetan. Uste dut kontraste handiagokoa izan beharko zuela, argi gehiegi erabili gabe. Adibidez, itzal zipriztin batzuek asko hobetuko zuten».

Aurretiaz neukan iritzia indartuz, produkzioak arazo orokorragoa duela esaten dit:

«Nik uste dut Anthony eta Marken arteko komunikazioa oso urria izan dela, oro har. Gehiago bildu behar zuten eta elkarri ideiak adierazi, askoz ere era zabalagoan. Platoan izan garenean ikusi dugu biek ikuspegi desberdinak zituztela eszenak agertzeko moduaz eta *look* egokia lortzeko erarik onenaz. Behin baino gehiagotan eman izan du Anthonyk eta Markek elkarren aurkako harremana zutela platoan, eta giltza hauxe zen: komunikaziorik eza».

7.3.9. Hogeita hirugarren eguna

Antzezleak eta sentimenduen intentsitatea: Leonarden azken eguna.

Ekainak 2, ostirala

Eszenak: Leonard zoroetxeko gelan.

Jessicak jantziak lortu behar zituen biharko, eta horretan aritzen diren etxera joan da. Mojen ohiko abitua bilatu nahi izan du, baina, zoritxarrez, ez du gustukorik aurkitu joandako lekuan; hautsiak edo gastatuegiak omen zeuden. Jennifer sail artistikoko laguntzaileak egin dizkio ordezko lanak, itzuli bitartean.

Atrezzokoek lan handia izan dute zoroetxeko gela prestatzen, eta Lorenari laguntzen ere aritu da Jessica:

«Berriro ere lagundu diot Lorenari filma-lekua hornitzen. Gela zahar bat hartu dugu etxe huts batean, eta ospitale psikiatrikoko gela bihurtu. Leonardek jardun bikaina egin du leku horretan, benetan hunkigarria. Gelaren itxura, nik uste, funtsezkoa izan dela haren zereginerako. Han jarduten duen pertsonaiaren psikologia islatzeko prestatuta badago espazioa, orduan errazagoa da antzezlearentzat oso-osorik bere rolean sartzea».

Gainera, gaur izan da Leonarden papera egin duen antzezle protagonistaren azken eguna. Jessicak dioenez, tristura-puntua ekarri du horrek, eta Davin negarrez aritu omen da.

7.3.10. Hogeita laugarren eguna

Aurrekontu txikia izateak eragina dauka gai askotan.

Ekainak 3, larunbata

Eszenak: Leonard umea eskolan; eskola-umeak jolasten; moja batek eskutik hartuta eraman Leonard mutikoa.

Jessicak gaurkoa egun konplikatua izan dela beretzat kontatu dit:

«Jantziekin arazoak egon dira. Estra moduan aritzeko etorri diren ume guztiak modernoegi jantzita azaldu dira. Pentsatu behar da 1970eko urteak islatu behar zirela, baina neskato gehienak oso alkandora laburrak jantzita etorri dira, ebakidura modernoagoa zuten jantziekin. Ez zegoen denborarik gauza berriak erosteko, beraz, aldaketak egin behar izan ditut. Horretan denbora luzea eman dugu, eta hala ere ez zuten itxura egokirik erakusten. Baina, aurrekontua baxuegia zen garai hartako uniforme berdintsuak erosteko. Beraz, umeen gurasoez fidatu behar nuen, eta aginduak eman nizkien; baina gehienek ez zidaten kasu handirik egin. Jendeari haien jantziekin etortzeko eskatzeak horrelako arazoak dakartza, kontrolaren gradu bat inoren eskuetan uzten duzula. Gauzak horrela gertatu dira; aurrekontu handiagoarekin kontrol handiagoa izango nuen».

Arratsaldeko seiak inguruan amaitu dute, eta jendea oso pozik zegoen egindako lanaz. Jessica harro agertu da:

«Gutariko zenbait garagardo bila abiatu gara, *tolestu* aurretik nolabaiteko jaitxoa egiteko. Filmaketa-lekuan denek egin dute lan itzela. Nekatuta geunden tabernan, baina pozik eta harro egindako lanaz».

Bihar, igandea, geratuta daude denak Sunoleko tabernan *wrap party* edo «toleste jaia» egiteko.

Azkenera arte lantaldean jardun dutenak zerbaitegatik egin dute, eta ulertzekoa da poza azaltzea, lan handia eta askotan gogorra egin baitute.

7.3.11. Amaiera jaia

«Ondo egindako lanaren» poza.

Ekainak 4, igandea

Jessicak honela laburtu dit «toleste jaia»:

«Toleste jaia atsegina izan da. Polita, guztien bikotekide eta lagunekin egotea. Sunol herriko jende asko ere etorri da, eta oso ondo prestatuta zegoen dena. Pozgarria da lanetik kanpora biltzea lantaldeko jendearekin, erlaxatu eta lasaitzeko. Negar-anpulu ugari ere izan da. Dena den, gutariko gehienok berriro ikusiko dugu elkar. Film-platoan lan eginez bizitza osorako lagunak egiten dituzu eta ziur nago berriz ere film horretan lan egin duen jende askorekin aurkituko naizela».

Arrazoi asko zeukaten ospakizuna egiteko; izan ere, agertutako zailtasun eta arazoen ostean, sinesteko zaila zen lantaldeak aurretiaz esandako denboran amaituko zuela filmaketa, pentsatutako lan guztiak eginda.

8. Ondorioak

Puntu hauek azpimarra daitezke filmaketa honetan:

1. *Aurrekontu oso baxua izateak ez du esan nahi ekoizpena* amateurra *izan behar denik*. Kasu honetan, helburua aretoetan estreinatzeko moduko filma egitea zen, eta horrek esan nahi zuen jendeari «profesionaltasuna» eskatu behar zitzaiola. Aurretiazko esperientzia handirik ez izan arren, jendeak ahal zuen guztia eman beharra zeukan, beti prest egonik lan egiteko eta orduak sartzeko. Jendeak bere onena eman behar zuela azpimarratu zen behin eta berriz, horixe omen da bidea aukera hobeak eskaintzen dituzten proiektuetan sartzeko.

Ez zegoen lekurik, beraz, zeregin hura «dibertsio» moduan hartu nahi zuen jendearentzat. Ordain txikiaren truke lan gogor egiteko prest zeuden langile gogotsuak bilatu behar ziren. Baina hori lortzeko zenbait baldintza bete behar ditu produkzioak. Izan ere, proiektu honetan asmo horrek porrot egin zuen neurri handian, baldintza horietako batzuk ez zirelako bete: ez zen aurreprodukzioa ondo egin, eta arduradunetako hainbatek ez zuen behar besteko maila eman. Ikus ditzagun banan-banan bi faktore horiek.

2. *Aurreprodukzioaren fasea ez zen era egokian bete*. Fase horretan egin behar izaten da antolaketa eta prestaketa lanik handiena; hainbat gauza ondo egin ziren arren, beste batzuk gaizki egin ziren, eta horrek arazo handia sortu zuen.

Ondo egindakoen artean, antzezleen aukeraketa nabarmendu behar da. Anthony zuzendariak lan bikaina egin zuen horretan. Jessicak azpimarratu zidan moduan, antzezle protagonistak, Leonardek, talentu handia zuen. Protagonismo handia zuten beste batzuk ere, Brenda eta Robert, oso profesionalak ziren eta Jack umea ere oso ondo moldatu zen. Gainerako antzezle guztiek ere ez zeukaten aitzakiarik.

Baina filmaketaren antolakuntzari zegozkion hainbat puntu ez ziren aintzat hartu edo ondo prestatu. Hau da, Estatu Batuetan esaten den bezala, antolakuntza-lan hori *nuts and bolts* da, «torlojuak eta azkoinak», dena elkarrekin akoplatzeko eta egokitzeko. Horixe da egin beharrekoa, gauzarik sinpleenetik hasita (Non daude komunak? Non bazkalduko dugu? Nola garraiatuko dugu jendea?) konplikatuenera (Non jarri behar dira fokuak? Lekuan filmatzeko baimen zehatza lortu dugu? eta abar). Eszenarik zailenak filmatzeko *story board* edo

«marrazkien bidezko istorioa» behar da, eta ez zegoen. Horren guztiaren ondorioz, egun batzuetan inprobisazioa nagusitu zen, eta besteak beste, lan-orduak alferrik luzatu ziren.

Orduan, kontraesana sortzen da profesionaltasunaren inguruan: nola eskatu profesionaltasuna lantaldeari, prestakuntza profesionala izan ez denean?

3. *Buruek haiengandik espero den mailarik eman ez*. Esperientzia handirik ez duen jendearekin egin nahi denean filmaketa, nahitaezkoa da buruak behintzat fidagarriak izatea: hor sartzen dira zuzendaria, zuzendari laguntzailea, produkzio-zuzendaria, argazki-zuzendaria, soinu-arduraduna, argiaren arduraduna, eta abar. Arazo bat baino gehiago sortu zen postu horietan.

Hasteko, produkzio-zuzendaria eta zuzendari laguntzailea pertsona bakarra izan zen hasieran; hori horrela planteatzeko gauzak ia era perfektuan egin behar dira aurreprodukzioan, prestaketa bikaina izan behar da, filmaketa garaian dena ia automatikoki joan dadin antolakuntza aldetik. Baina, kasu hori ez zen horrelakoa, eta filmaketako tentsio guztia jasanezina gertatu zitzaion postu horiek betetzen ari zen pertsonari, Bobi, produkzioa uztera behartuz.

Hori gertatu orduko, filmaketako bigarren egunean bertan lanetik bota zuten produkzio-zuzendariari gehien lagun ziezaiokeen pertsona, Angela, produkzio-koordinatzailea. Horretarako arrazoia, hauxe: ez zegozkion erabakiak hartzen ari omen zen. Beharbada, produkzio-zuzendaria ez balitz aritu egun hartan zuzendari laguntzaile bezala, eta bai ordea produkzio-lanetan, Angela ez zen hasiko ez zegozkion erabakiak hartzen... Eta beharbada, gauzak apur bat hobeto joan zitezkeen produktore exekutiboak, Bertak, zinemagintzaz ideia gehiago izan balu; baina hura zen bere lehenengo filma.

Beste faktore nabarmen bat zuzendariaren eta argazki-zuzendariaren arteko harreman falta izan zen. Kamera-operadorearen eta argazki-zuzendariaren lanak biak batera hartu zituen Markek, baina ez zuen eraginik argazkiari zegokionez, zuzendariak agintzen baitzuen erabat horretan. Eta horrek giro ezkorra sortu zuen lantaldeko kide baten baino gehiagoren artean, iritzi kontrajarriak nagusituz: batzuek uste zuten argazki-zuzendaria albo batera utzia zela eta zuzendaria ez zela argiztapena era egokian erabiltzen ari; beste batzuek, ordea, errua argazki-zuzendariari botatzen zioten, ez zeukalako behar beste ezagutza, ustez. Zuzendariari buruzko iritzia, gainera, okertu egin zen haren lehen film luzea zela zabaldu zenean. Lehen filma izateak ez dauka zertan eragin negatiboa sortu, baina hori gerta daiteke aurretiaz garbi esaten ez bada eta gainerako zenbait gauza korapilatzen hasten badira.

4. *Aurrekontu txikiko filmaketa-lantaldean, aginte-hierarkiak ahalik eta gutxien nabari daitezen nahi izaten da. Baina arazoak sortzen direnean, produkzio handi batean beste azaltzen dira harreman hierarkikoak*. Baldintza kaskarretan lanean ari den jendeari profesionaltasuna eskatu nahi bazaio, organizazio mota horrek hauxe eskatzen du: ahal den neurrian lagun-giroko egoera egotea eta elkarrekin gustura aritzea. Baina horretarako ere aurretiaz aipatutako baldintzak egon behar dute eta antolakuntza ia perfektua izan. Horrela,

buruek «aginte lasaiaz» jardun dezakete, ia nabaritzen ez denaz. Filmaketa hasieran lantaldean egon daitekeen gogo bizia berehala agortzen da, eta handik aurrera «gauzak ondo egiten diren» pertzepzioak eta lan hartatik emaitza ona aterako den inpresioak lagun dezake jendeak diziplinaz lan egin dezan.

5. *Filmak ezin dira baliabiderik gabe egin.* Nahiz eta, inoiz, zinemagile handiek ere horrelakoak adierazi. Bobek Coppola zinemagilearen elkarrizketa bat aipatu zidan, Estatu Batuetako zinema independentearen munduan oso ezagun bihurtutakoa. *Ohioko neskatila potoloaren kontua* deitzen diote elkarrizketan esandakoari. Hau zioen Coppolak 1991n:

> «Gaur egun, 8 mm-ko bideo-grabatzaileak irten ondoren, uste dut orain arte filmik egingo ez zukeen jendea horretan hasiko dela eta, agian, edonoiz, Ohioko neskatila potolo bat Mozart berri bilaka liteke, film ederra egingo baitu bere aitaren kamera txikia erabiliz. Eta handik aurrera, gure lanbideari lotzen zaion izaera profesionala hondatu egingo da. Behin betiko. Eta zinema benetako arte bilakatuko da».

Ideia oso erakargarria da baliabide gutxiz lan egiten duen jendearentzat, baina Boben ustetan Coppolak ez zuen arrazoirik. Edozein proiektu modu txukunean bideratzeko, gutxieneko baliabideak izan behar dira. Baina film honen kasuan, gutxieneko baliabide horiek bazeuden, nahiz eta, agian, sailen batek eskertuko zuen aukera gehiago izatea.

---

[1] Ministerio de Cultura y Universidades (2009) *Calificación de peliculas*. http://www.mcu.es/cine/CE/Industria/CalificacionPeliculas.html. Noiz sartuta: 2009-05-07.

[2] Motion Picture Association of America (2009): *The Economic Impact of the Motion Picture & Television Industry on the United States*,10-11 or. http://www.mpaa.org/researchStatistics.asp Noiz sartuta: 2009-05-07.

[3] Screen Actors Gilt (2009) *An Introduction to SAGIndie Contracts and Incentives*. http://www.sagindie.org/resources/contracts/ Noiz sartuta: 2009-05-07

[4] VAN MAANEN, John (argit.) (1998): *Qualitative Studies of Organizations*, Sage Publications, Thousand Oaks, Londres, New Delhi, 33. or.

[5] RUIZ OLABUENAGA, J.I. (1996): *Metodología de la investigación cualitativa*, Deustuko Unibertsitatea, 140. or.

[6] VAN MAANEN, John, o.c. XI. or.

[7] Ikus hau: LIEBOW, Elliot (1967): *Tally's Corner*, Little, Brown and Company, Boston, Toronto, 3.-28. or.

[8] Ikus hau: CLEVÉ, Bastian (1994): *Film Production Management*, Focal Press, Boston & Londres, 55.-67. or.

[9] CLEVÉ, Bastian, o.c. 7.-8. or.

[10] CLEVÉ, Bastian, o.c. 3. or.

[11] STAPLETON, Oliver, BSC, *So You Wanna Work in Movies*. http://www.cineman.co.uk Noiz sartuta: 2009-05-11.

[12] NINYOLES, R. (1980): *Idioma y poder social*, Tecnos, Madril, 144.-155. or.